

Goienkaria

2008ko uztailaren 11 > Egubakoitza > VII. urtea > 340. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

Danbaka musika
lehiaketaren 3.
edizioa > 35-36

BERRIKUNTZA
Ikerlanek bere laborategiaren
lehen harria ipini du Garaian > 05

ARRASATE
Zerrajera eremuko 200 etxebizitza
inauguratu dituzte asteon > 16

ELKARRIZKETAK
Bergarako eta Aretxabaletako
alkateen lehen aginte urtea > 20, 24



"Udal
gobernuan
daudenek ez
dute ez
ideiarik, ez
gestorik"

Paco Gartzia
Arrasateko PSE-
EEko burua > 09

EKONOMIA > AUTOMOBILGINTZA

Automobilien salmenta %30 jaitsi da azken hiru hilabeteotan

DATU ONAK Saltzaileek esaten
dute urte hasieran salmenta
onak egon zirela, eta
udaberrian jausi direla

PIEZA EGILEAK Ibarreko
automobil-egileendako piezak
egiten dituztenek diote
esportatzen jarraitzen dutela

LAGUNTZA Espainiako
Gobernuak Vive plana sortu du,
autoz aldatzen eta kutsadura
murrizten laguntzeko > 02-03

ONDAREA > LEZE TXIKI

Leze Txikiko lana, laster bukatuta

Alvaro Arrizabalaga
arduradunak dio
2009an espero
dutela industketak
bukatzea > 06

Saskibaloia kalera irten dadin, hirunako txapelketa Bergaran

Bergarako Saskibaloi Taldeak antolatuta, bihar eta etzi hirunako txapelketa egingo dute San Martin plazan. "Argi geneukan kalean egin gura genuela txapelketa, herritarren aurrean", adierazi dute antolatzaileek. Saskibaloia gurean bizirik jarraitzen due-la erakusteko asmoz egingo dute txapelketa, eta oraingoz 40 taldek eman dute izena. Berandu dabilzanendako, lasai, gaur ere badago-eta ize-na ematea. Gainera, babesleei esker irabazoleek sari handiak eskuratuko dituzte: eli-tekoek, 500 euro. > 22



AURKEZPENA Txapelketako antolatzaileak eta babesleak, Bergaran.

ENEKO AZKARATE

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrikzeta > 09
Iritzia > 10
Gutunak > 11
Herriak > 13-31
Kirola > 32-33
Kultura > 37
Sailkatuak > 38
Eskelak > 39
Denbora-pasa > 40
Gazteak > 42
Komunikazioa > 43
Telebista-Irratia > 44
Non-zer > 46-47

iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udal Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Zatoz eta
ikus itzazu!
FAGOR

**Seat Ibiza
berria**

Udalaitz

Gipuzkoako etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT

EKONOMIA > AUTOMOBILGINTZA

Ibilgailuen salmentak nabarmen jaitsi dira Aste Santutik hona Debagoienean



KONTZESIONARIOAK Auto kontzesionarioak dira jaitsiera gehien igarri dutenak; Ford Mugarrin, esaterako, %30 eta %35 artekoa izan da

MIRIAN BITERI > BERGARA
Datuek baiezta dute gaur egun ez ditugula horrenbeste ibilgailu erosten. Ekainean, esaterako, turismoen matrikulazioa %30,8 jaitsi zen Spainian. 1997a ezkerro ez zen hain ibilgailu gutxi salten. Urteko lehenengo seihibilekoan ere %17,6 txikitu dira salmentak; 1993a ezkerro sektoreak jasan duen beherakada gogorrena. 2008a hasi zenetik, guztira, 700.000 ibilgailu saldu dira.

Debagoienean ere igarri da beherakada hori; baina, tokiaren arabera, modu batean edo bestean. Arrasateko Ford Mugarriko Rafa Etxabek azaldu du ibilgailuen salmentak, batez beste, %30 eta %35 artean jaitsi direla: "Beherakada nabarmenena, baina, azken hilabeteotan izan da".

Bergarako Giauto Opel kontzesionarioko Karlos Etxanizek ere jaitsiera hori sentitu du. Adierazi du Aste Santura arte ez zutela salmentetan alde handirik igarri: "Apirilean, baina, zerbait egin zuen behera". Orain, berriro, mugimendu handiagoa dagoela dio. Horren harira, gogora ekarri du historikoki uda parteak eta Gabonak direla salmentarako momentu onenak: "Gertatzen

dena da hau oso puntuala dela eta aurreikuspenek diotela merkatua gehiago jaitsiko dela". Etxanizek gaineratu du Debagoienean, zorionez, lan faltarik ez dagoela eta horrek automobilgintzaren merkatuan eragina duela.

"PSIKOSIA"
Sektorea krisian dagoela onartu badute ere, Etxabek eta Etxanizek azpimarratu dute "psikosi" handia sortu dela gai horren inguruan eta "garrantzi gehiegiz eman zaiola".

Etxabek, bestalde, gogorazia du automobilgintza jasaten ari den krisi "partikular" horrek Espainiari bakarrik eragiten dio. Hala, aipatu du Europako beste hainbat herrialdetan ibilgailuen salmentek mantendu edo gora egin dutela. Inglaterra, Holanda, Alemania eta Frantzia jarri ditu adibide.

AUTOMOBILGINTZAKO ENPRESAK
Eskoriatzako Fagor Automation kooperatibak gauza bera baiezta-dugu. Espainian beherakada gertatu dela igarri badute ere, enpresak asko esportatzen duela nabarmendu dute. Bereziki, Txinan, Taiwanen, AEbetan, Brasi-

AUTOMOBILGINTZA

Sektorerako lan egiten duten enpresetan esportazioak zati handia du eta, beraz, krisirik ez dute sumatu, oraingoz

VIVE PLANA Spainiako Gobernuak uztailaren 31n jarriko du abian Vive plana; ibilgailuen parkea berritzatzea eta seguruagoa izatea nahi du

len eta Italian dituzte merkatu handienak. "Joan zen urteko datuekin alderatuta, jaitsiera sumatu dugu Spainiako merkatuan; globalean, baina, ez horrenbeste", azaldu dute. Kontrol numrikoak ekoizten dituzte, makineriaren mintarako.

Fagor Ederlaneko egoera ere berdintsua da. Hango Leire Basaurik dio krisiak Spainiako merkatuari eragiten diola, eta Fagor Ederlaneko produkzioaren %80 inguru Europara esportatzen dela. "Alemaniara bidaltzen dugu ekoizpen horren zati handi bat. Hango egoera oso ona ez bada ere, ekonomia hazi da zertxobait. Orduan, oraingoz, guri ez digu krisiak horrenbeste eragin".

Auto fabrikatzaile nagusie-nendako piezak egiten ditu Fagor Ederlanek: motorrarekin eta transmisiorekin eta esekidurarekin eta balaztekin lotutakoak bereziki.

ARRAZOIAK
Rafa Etxaberena ustez, argi dago automobilgintzak bizi duen egoera zerk eragin duen: "Azken urteotan, prezioen igoerari dago-kionez, Spainian egon den kon-

Bergarako Giauto Opel kontzesionarioan gehien salt

trol faltak gaurko egoera ekarri du. Aurreko urteetan Europan ez da egoera zoro hori gertatu eta orain ez dute Spainian dagoen sentsazio hori". Aipatu du, baina, gauza gehienak izugarri igo diren bitartean, ibilgailuen prezioak "apenas handitu" direla. Orain prestazio hobea dituzten produktuek "prezioa berdintsua" dutela dio.

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

www.multiopticaspuzko.com

R.P.S. N°10/04 I.G.

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75

ARRASATE

bataurreko graduatuak
eguzkitako graduatuak
DOAN

konbinatu
eguzkia
MULTIOPTICAS

Promozi ballagarria 08/05/15tik 08/07/31ra arte.

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70

ORDIZIA



MIRIAN BITERI

VIVE PLANA

Gaur egungo parkea gutxiago kutsatzen duten ibilgailuz berriztatzeako eta segurtasun neurriak handiagoak izan daitezen, bestalde, Espainiako Gobernuak Vive plana onartu zuen ekainaren 27an. Esandako plana datorren uztailaren 31n jarriko da abian eta hasiera baten, bi urtez egongo da indarrean.

Hala, Espainiako Gobernuak asteon iragarri duenez, 13.000 euro balio dituen ibilgailu bakotzeko, batez beste, 1.040 euroko laguntzak emango ditu, kredituen bidez. Auto berrieik, baina, honako baldintza bete beharko dute: kilometroko 120 CO₂ gramo emititzen dituzten autoak izatea, hain zuzen. Kopuru hori handiagoa izan daiteke, ibilgailuak hain-

DATUA
20.000
EURO

Vive planaren laguntzak jaso ahal izateko, ibilgailu berriak 20.000 euro baino gutxiago kostatu beharko dira.

bat segurtasun neurri betetzen baditu. Hala, kilometroko 140 gramo baino gutxiago emititzen dituzten autoekin ere laguntzak eska daitezke, baldin eta egonkortasuna kontrolatzeko sistema eta segurtasun-uhala ipintzeko abi-su akustikoak baldin baditu. Horretaz aparte, gainera, ibilgailu zaharrek hamabost urtetik gora izan beharko dituzte, gutxiez.

Espainiako Gobernuak espero du hemendik bi urterako 240.000 ibilgailuk aterako diotela egitasmo berri horri etekina. Sektorearen iritziz, plan hori ez da nahikoa. Hamabost urterekin izan beharrean, auto zaharrak hamar urte dituztenean ere desegiteko tokira eramateko aukera izatea eska-tzen dute. Gainera, eskaintzen diren laguntzak zuzenak izatea gura dute; eta ez kredituen bidezkoak.

BAILARAKO ERREAKZIOAK

Etxabek antzera pentsatzen du. Haren ustez, Vive plana "pelikula hutsa" baino ez da. Larregi iruditzen zaio ibilgailu zaharrak hamabost urte eduki behar iza-tea eta berriak emisioak 120 gramotik beherakoa izatea: "Lagun-tza eskasa da. Oso gorakada txikia ekarriko du, adin horretako auto gutxi daudelako eta emisioak ere oso txikia direlako. Asko mugatzen du horrek". Etxaberen arabera, merkatua bultzatu nahi bada, ibilgailuen adina hamar urterako jaitsi beharko litzateke, gutxiez.

Gas kutsakorren emisioen kontua "trampa" besterik ez dela uste du. Salatu du, horren harria, joan den urtarilean indarrean jarritako matrikulazio zerga berria. Orain, 120 gramo baino gutxiago emititzen dituzten ibilgailuek ez dute ezer ordaindu behar. Etxabek nabarmendu du, baina, mota horretako oso ibilgailu gutxi daudela merkatuan. Gehienek 120 eta 160 gramo artean emititzen dituztela jakinara-zu du eta horiek %4,75eko zerga ordaintzen dutela; 160 eta 200 gramo artekoek, %9,75ekoak; eta 200 gramotik gorakoek, berriz, %14,75ekoak.

Azken datu horri lotuta, esan du tarte horretan ez direla lur orotako ibilgailuak bakarrik sartzen: "Zilindrada kontua da. Jen-deak, baina, uste du lur orotako ibilgailuei bakarrik eragiten die-la. Hori dela eta, lur orotako ibilgailuen salmenten beherakada bikotza izan da".

VIVE PLANA

> HAMABOST URTE

Vive planaren abantailak jaso ahal izateko, ibilgailuek, gutxinez, hamabost urte eduki beharko dituzte.

Automobilgintzako sektorea-rendako, hori larregi da, eta dagoeneko hamar urterako jaistea eskatu du.

> GAS KUTSAKORREN EMISIOA

Ibilgalu berriek gas kutsakorren emisioa mugatuta izan beharko dute. Hala, kilometroko 120 CO₂ gramotik beherako emisioak izan beharko dituzte; hortik gorakoak ez dira Vive planaren barruan sartzen.

> SEGURTASUN NEURRIAK

Azken horrekin, baina, salbuespe-na egin du Gobernuak. Ibilgailuak 140 gramo kilometroko baino gutxiago emititzen baditu ere, laguntzak eska daitezke, baldin eta egonkortasuna kontrolatzeko sistema eta segurtasun-uhala ipintzeko abisua baditu.

LAGUNTZA "MUGATUA"

Etxanizek ere Vive planaren gai-nean hitz egin du. Positiboak diren neurriak bultzatzea "lagun-du" egiten duela uste du. Baina, kasu horretan, "oso lagun-tza konkretua eta mugatua" dela gaine-ratutu du. Giauto Opel etxeko ardu-radunaren ustetan, ez du eduki-ko lehengo Prever planak izandako arrakasta, "auto kon-kretu batendako da-eta".

Aipatu du, baina, gas kutsakorren emisioen aldetik, marka gehienak "ondo kokatuta" daude-la eta planak eskatzen dituen bal-dintzak betetzen dituzten auto modeloak dituztela.

ETORKIZUNA

Epe laburrera begira, egoera mantendu egingo dela uste du Etxanizek. "Udatik aurrera, aurrekusu-penek diote horrela jarraituko dugula. Baina zeinek daki. Denok gabiltza jartzen gure partetik". Horri buelta emateko neurriak hartzen dituzte Giauton: "Des-kontu handiak daude eta horrek laguntzen du", azaldu du azkenik. Arrasateko Ford Mugarrako arduradunak, berriz, automobilgintzaren egoera apurka "nor-maltzen" joango dela uste du. Hala ere, gaineratu du merkatua ez dela lehengo salmentetara bueltatuko.

ZUREZKO BIZILEKU BIKLIMATIKOAK

Zbb

C/ZORROLLETA, 5
01015 GASTEIZ
T. 945 29 06 06
615 78 28 23
WWW.ZBB.ES



Eibar-Gasteiz autobidea, Eskoriatzako lurretan.

GOIENKARIA

AZPIEGITURAK > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

Arabako Aldundiak sei milioi euro eskatuko dizkio Gipuzkoakoari

Arabako Aldundiak ia sei milioi euro eskatuko dizkio Gipuzkoakoari AP-1 autobidearen lanen atzerapenen ondorioz galtzen duen diruagatik

NEREA MENOR > BERGARA
Eibar-Gasteiz (AP-1) autobidearen lanetan izandako atzerapenen ondorioz, Arabako Foru Aldundiak aurreikusten du 465.000 euro galtzen dituela hilean-exekutibo horrek egin duen bidesariko irabazien aurreikuspenen arabera- eta diru kopuru hori eskatuko dio Gipuzkoako

Foru Aldundiari. Bi Diputazioen arteko hitzarmenak ez du horrelako kasu batzen konpentsazio ekonomikorik aurreikussten, eta horregatik, Arabako Diputazioaren esanetan, gipuzkoarren fede onaren araberakoa izango da diru hori ematea ala ez. Arabako Alderdi Popularrak Arlabango tunelaren lanen ondo-

rioz izan diren atzerapenen kostuak Gipuzkoako Diputazioari exijitzeo eskatu dio Arabako Aldundiari, autobidearen irekiera urtebetetan bai, 2008 urte amaiera arte, alegia.

Arabako exekutiboak, Gipuzkoako orografia bihurria dela aitortu eta atzerapenen arrazoiei garrantzia kendu arren, konpen-

tsazioen gaia mahai gainean baze-goela azaldu zuen. Hala ere, konpentsazioa behin autobidea zabaldu eta gero zehatztuko zen, eta etekinen banaketetan aldaketa ekarriko luke.

PSE-EE alderdiak pauso horien gaineko azalpenak esku-tu zizkion Foru Gobernuari. Horren harira, Luis Zarabeitia, Arabako Herri Lanen diputatu jeltzaleak adierazi du autobidearen lanak luzatzeak aurreikusitako diru sarrerarik ez egotea ekarriko duela, baina ez dituela galerak ekartzen.

46,2 KILOMETROKO AUTOBIDEA

Gutxienez, 2008 urte amaiera arte ez da aurreikusten autobidearen irekiera. Data horretatik aurre-ra, Eibar eta Gasteiz bitarteko bidea autobidez egiteko -46,2 kilo-metro-, 4,6 euro ordaindu beharko dituzte auto-gidariek. Ibilgailu astunentzako prezioak ere zehaztuta daude: pisutsuenek 8,15 euro ordaindu beharko dituzte, eta tamainaz handiak direnek, 9 euro. Dena den, tramua-ren araberakoak izango dira prezioak, autobideak bost irteera ditu-eta.

Bi zerbitzugune izango ditu autobideak: Arrasaten eta Eskoriatzan. Arrasateko Oxina base-riaren ondoan kokatuko dute, 17,750 puntu kilometrikoan. Eskoriatzakoa, berriz, Uztarreta gunean egongo da, 24,950 puntu kilometrikoan. Gasolindegiaz gain, erradiadoreentzako likido hoztai-lea, pneumatikoentzako airea, ura, autoentzako osagarriak, telefonoa, Interneterako sarrera eta komunak izango dituzte, besteak beste, zerbitzuguneek. Gainera, zerbitzua 24 ordukoia izango da, astelehenetik domekara. Libre uzten duten tokiaren arabera, beste zerbitzu batzuk jar daitezke: kafetegia edo aparkalekuak, esaterako.



**Hemen
GARBIKETAK**
DISTIRA PROFESIONALA

Intxaurtxueta_16_behea
20540_Eskoriatza_Gipuzkoa
T_943 71 48 45
F_943 71 30 58
www.hemen-garbiketak.com



**Obra amaierako garbiketak
Garbitze eta mantentze lanak:**

- Enpresak**
- Bulegoak**
- Garajeak**
- Komunitateak**
- eta abar**



ISO 14001:2004 ISO 9001:2000



Mendigutxoa, Gartzia, Agirre, Aldekoa eta Lora, Ikerlan-IK4ko lehenengo harriaren ondoan.

ARANTZAZU EZKIBEL

INDUSTRIA > IKERLAN

Jarri dute nanoteknologia laborategiko lehenengo harria

Garaia berrikuntza guneko eraikinak sei milioi euroko kostua izango du

Batez ere, osasunaren alorrean garatuko du nanoteknologia Ikerlan-IK4k

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE Eguaztenean ipini zuten Arrasateko Garaia berrikuntza gunean Ikerlan-IK4ko mikronanoteknologia laborategi berriko lehenengo harria. Ekitaldian izan ziren Ana Agirre Eusko Jaurlaritzako

Industria, Merkataritza eta Turismo kontseilaria eta Mondragon Taldeko presidente Jose Maria Aldekoaz gain, Txomin Gartzia Ikerlan IK4ko presidente, Emilio Tora Mikroelektronikako Centro Nazionaleko zuzendaria eta Javier Mendigutxoa Ikerlan IK4ko zuzendari orokorra.

500.000 METRO KOADRO

Laborategi berriak orain arte Ikerlan-IK4k nanoteknologiaren alde egin duen lana indartuko du. Eraikin berria egiteko lanek 6.279.734 euroko kostua izango dute. Gartzia Ikerlaneko presidenteak esan bezala, 1997an hasi zen Ikerlan nanoteknologia alorrean lanean; ordutik hona hainbat lankidetza egin dituzte, besteak beste, AEBetaiko MIT zentroarekin. Garaia

berrikuntza gunean egingo duten eraikinak 5.000 metro koadroko azalera izango du. Landuko diren hiru ikerketa esparruen arabera banatu da eraikina: mikrofluidika, polimero organikoa eta mikro/nanosistema integrazioa. Gainera, disei-

nu eta laguntza laborategia ere eraikiko dituzte. Azpiegitura horren oinarria 300 metro koadroko sala da, *sala zuria* bezala ezaguna. Laborategiak azken belaunaldiko ekipamendu zientifikoa izango du; atmosfera kamera, esaterako, Estatuko bakarra izango da.

OSASUNAREN ALORREAN

Batez ere, osasunaren alorrean garatuko du nanoteknologia Ikerlan IK4k; asmoa kostu txikiko erabili eta botatzeko gai-luak sortzea izango da, gaixotsunak azkar diagnostikatzen lagunduko dutenak. Bestalde, energiaren alorrean ere garatuko du lana Ikerlan-IK4k: besteak beste, kostu txikiko eguzki plaka malguak eta eraginkorak sortzea izango da apustua.

DATUA
45

IKERLARI ETORKIZUNEAN

Gaur egun 16 ikerlari daude lanean nanoteknologia alorrean. Gartzia azaldu du datozen urteetan, 2011rako, 45 ikerlari ibiliko direla lanean, Ikerlan-IK4 goreneko mailan mantentzeko.

HEZKUNTZA

Hizkuntza integrazioa landuko du Huhezik

OIHANA ELORTZA > ESKORIATZA Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Huhezi fakultatean nazioarteko mintegia egingo dute eleaniztasunaz eta kulturaniztasunaz. Uztailaren 14an eta 15ean egingo dute eta, fakultateko irakasleek ez ezik, bi gai horietan adituak diren bi emakumek hartuko dute parte: Ingalestrako Charlotte Hoffman-ek eta Israelgo Anat Stavans-ek.

Julia Barnes mintegiaren koordinatzaileak azaldu bezala, munduko osoko esperientziak aztertuko dituzte: "Adibidez, Israelgo egoerari buruz hitz egingo dute. Israelien gero eta etorkin gehiago daude, Etiopia, esaterako, eta horiek Israelien hizkuntza ikuspuntuak nola integratu diren azalduko dute", dio Julia Barnesek. Izan ere, etorkinak eta leku hizkuntzen arteko lotura izango da mintegiaren gaietako bat.

Mintegian jorratuko duten beste gai bat hizkuntzaren jabetasunarena da: "Familia batzuetan, hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten da: guraso bakotzak berea egiten du, eta, bi hizkuntza horiez gain, etxetik kanpora beste bat edo gehiago ikas dezake semeak edo alabak. Egoera horiek ere aztergai izango dira", azaldu du Barnesek.

Bi aditu horiez gain, Huhezikoko irakasle Ane Urkizak eta Amelia Barquinek ere parte hartuko dute, hizlari moduan. "Euskal Herriko egoerari buruz jardungo dute, batik bat", dio Julia Barnesek. Mintegia Huhezikoko hizkuntza adarreko ikasle zein irakasleei eta interesa duen edonori dago zuzenduta.

Kalitatezko ametsak
beds
Koltxoi dendak

eta opari ... SMART bat!

400 € -tik gorako erosketagatik auto bat irabaz dezakezu!

nikolin

• Viscofoam Planet koltxoia
• Constanze koltxoia
• Mozart koltxoia

ZURE EROSKETA DOAN izan daiteke

BOOMERANG EFECTUA

DIRUA ZUREGAN BUELTA DATEKE

Koltxoi bat erosita, zure erosketa doan izan daiteke!

> IRUZURRA

Espetxe zigorra euskarazko proban iruzurra egiteagatik

Gipuzkoako auzitegiko fiskaltzak zazpi urteko kartze-la zigorra eskatu du ustez euskarazko bigarren hezkun-tza eskaizuneko proba gain-ditu ahal izateko beste pertso-na bat bidali zuen gizonaren-dako. Fiskaltzaren arabera, akusatua Oñatin eta Arrasaten saiati zen proba hori gain-ditzen, baina ez zuen lortu eta Bergarako azterketa egitera beste pertsona bat bidali zuen. Oreretan munizipal postua lortzeko aprobetxatu zuen.

> LAPURRETAK

Hiru lagun atxilotu dituzte Arrasaten lapurreta egiteagatik

Ertzaintzak jakinarazi due-nez, hiru lagun, txinatarra, atxilotu dituzte Arrasaten ustez txanpon-makina bat manipulatu eta lapurreta egi-teagatik. Astelehenean izan zen gertaera, Arrasateko erdi-guneko taberna baten. Ertzaintzaren arabera, meta-lezko alambre batekin mani-pulatu zuten makina. Ustez-ko egileetako batek 3.000 euro baino gehiago zituen.

> LAN ISTRIPUA

Bigarren solairutik erori da langile bat Arrasaten

Gizonezko bat bigarren solai-rutik erori da Arrasateko Gelma inguruan erakiten ari diren babes ofizialeko etxe-bizitzetan, Maala kalean. Mar-titzenean izan zen gertaera. Ertzaintzan adierazi dutenez, gizonezkoak ez zuen konorte-rik galdu eta anbulantzia era-man zuten ospitalera; aurpe-gian zuen kolpe handiena. Ober-nerrekarentzat ari zen lanean. Enpresak segurtasun arau guz-tiak betetzen zirela esan du.

> AHT

AHTren aurkako XIII. kanpaldia egingo dute Zaldibian

AHTren aurkako XIII. kan-paldia egingo dute uztailaren 24tik aurrera, Zaldibian. Kan-paldiko egitarauaren berri emango dute, AHTren Aurka-ko Asanbladakoek, datorren egubakoitzean, Donostian. Bestalde, AHT Gelditu! Elkar-lanak eta Marineko auzotar batzuk informatu dute Esko-riatzan hasi dituztela Abiadura Handiko Trena eraikitze-ko lanak. Tunel bat egingo duten lurretan, Eskoriatza eta Marin arteko bidean, zuhaitzak bot-a-tzen, basabideak irekitzen eta hesiak jartzen hasi dira.



Garagartzako Leze Txiki kobazuloan indusketa lanak egiten, eguztenean.

ARRITXU BARRUSO

ARKEOLOGIA > LANAK

"Hurrengo urterako buka ditzakegu Leze Txikiko indusketa lanak"

Aditu eta ikaslez osatutako 20 laguneko taldea dabil lanean Garagartzako kobazuloan, uztailaren 19ra arte

Leze Txikiko aurkikuntza guztiak Eusko Jaurlaritzaren esku daude

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Aranzadiko arkeologo eta EHUKO irakasle Alvaro Arrizabalaga oña-tiarrako dabil ikasle talde batekin Leze Txikiko aztarnategian indus-keta lanak egiten. 13. urtea dute Garagartzza inguruan lanean, eta aurreikuspenen arabera datorren urtean buka dezakete lana. "Ez daukagu presarik lana bukatzeko. Dagoeneko heldu gara Aita Baran-diaranek zulatu ez zuen tokiraino. Badakigu punturen batean harria topatuko dugula, eta hori izango da gure helmuga, haitza-ren azpian ez da-eta aztarnari-ko ego-tent. Nik uste dut hurrengo urte- rako bukatuko dugula", esan digu Alvaro Arrizabalagak.

Uztailaren 19ra arte egingo duten lanari dagokionez, oñatia-rrak dio aztarnategiaren bi toki-

tan dihardutela lanean: "Alde batetik, Aita Barandiaranek egin-dako indusketaren hegoaldeko profilean gabiltza; eta beste alde batetik, Leze Txiki 2 izeneko kobazuloan. Azken honek Leibar galeriaren bitarte bat egiten du Leze Txikirekin. Dena den, azne-neko urteotan bi toki horietan gabiltza lanean".

ARKEOLOGIA IKASLEAK

Ekainaren 30ean hasitako lane-an, batez ere, hezurak aurkitu dituzte, baina harrizko tresna batzuk ere bai. Goizeko bedera-tzietan hasten dira lanean, eta bazi-kaltzeko tarte hartu ondo-ren, 18:00ak arte egoten dira. Auren-ten 20 bat lagunek dihardute. "Jeneralean arkeologia ikasleak etortzen dira lanera, batzuek errepikatu egiten dute eta beste batzuk Internet bidez egiten dugun eskaiztekin aukeratzen ditugu. Oraintea dauden artean, kide bat Indiatik etorri da eta bes-tea bat AEBetatik. Dena den, arkeologoez gain gurekin lanean egon dira medikuak, abokatuak, kazetariak, arkitektak eta antro-pologoak, besteak beste", dio Arri-zabalagak.

Leze Txikiko aurkikuntzak garrantzitsuak direla esan digu Alvaro Arrizabalagak: "Euskal Herri mailan berebiziko garran-tzia dute. Izan ere, Euskal Herrian bi lekutan dauzkagu gure histo-riaurreak dituen sei zatietatik lehenengo bostak ezagutzeko

aukera: alde batetik, Leze Txikin; eta beste alde batetik, Irikaitzen (Zestoan).

Garagartzan dagoen kobazu-loan aurkitutako aztarnak ikus-teko aukerarik ez dagoela dio Oñatiko arkeologoak. "Egun, Eusko Jaurlaritzak ditu gorde-

ta industrialde baten. Orain arte, aurkikuntzak Aranzadien esku geratzen ziren bi urtean. EHUKO Gasteizko unibertsitate-cam-pusean aztarnak garbitu, sailku-tu eta oinarrizko azterketak egi-ten genituen, eta ondoren Jaurlaritzak gordetzen zituen. Baina bi erakundeen arteko har-tu-emana ez da oso ona, eta azken bi urteotan Eusko Jaurlaritzak gordetzen ditu. Kontuan izan behar dugu Gipuzkoan ez dago-e-la antropologia museorik, eta orain arte Aranzadik bete du paper hori".

GIZATERIAREN ONDARE

Unescoren erabakiz, Ekain, Altzerri eta Santimamiñeko kobazuloek Gizateriaren Ondarearen izendapena dute martitzena ezkerro. Leze Txikik halako kalifikazioa izateko dituen auke-rez galdezu diogu Alvaro Arriza-balagari: "Nik esango nuke epe ertainera ia ezinezkoa dela, halako izendapena jasotzeko aurre-tik lan handia egin behar da-eta. Dena den, Gizateriaren Ondarearen izendapena jasotzeko arra-zoiak baditu Leze Txikik; bestea-ak beste, giza hezurrik zaharre-na hemen aurkitu genuelako".

ESANAK

"Leze Txikin topatutako aztarna guztiak Foru Aldundiak ditu gordeta industrialde batean"

Alvaro Arrizabalaga > Arkeologoa

Kuga gama, kontsumoa: 6,3-6,4 l/100 km. CO₂ emisioak: 165-169 g/km.



Semaforo batek zergatik izan behar du semaforo antzik? Pentsa ezazu izara zuri bat duzula.

Ford Kuga

MUGARRI AUTOAK
Araba etorbidea, z/g
ARRASATE-MONDRAKÓN

kugarevolution.com

Feel the difference



Alberto Elortza > Sukaldaria

"Gure jatetxeetan baimenduta dagoenak ez du zertan beste etxeetan ere legea izan"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI
Alberto Elortza Oñatiako Zelai Zabal jatetxeko arduraduna da. Ehun urte baino gehiagoko jatetxea da Zelai Zabal; horren harira, 100 urtetik gorako jatetxeen elkartea sortzekotan dabilta Elortza eta beste hainbat. Uda osterako elkartea martxan izatea espero dute.

100 urtetik gorako jatetxeen elkartea sortzekotan zabiltzate, ezta?

Bai, hala da. Hasiera batean, uda aurretik sortzea pentsatu genuen, baina, azkenean, lan kontuak direla-eta atzeratu egin da. Hortaz, udazkenerako itxi dugu gaia. Gainera, Senatura joan beharra dago... Hainbat lan egin behar da.

Zein da elkartearen helburua?

Jatetxeak garen aldetik, gauza jakin batzuk eskatzen dizkiute: adibidez, arrapalak jartzea. Baina, bestalde, garai jakin bateko etxea izateagatik ezin ditugu hainbat obra egin. Guk eskatzen dugu bata eta bestea ez izatea kontrajarriak. Bestalde, detaile edo begirune handiagoa izan dezela eskatzen dugu: guk baimenduta daukagun zerbait, beste etxeetan ez daukana zertan legea izan. Hori da gure asmoa.

Espania mailan egingo duzue lan?

Espania mailako elkartea izango da, eta baliteke Portugalgoak ere batzea. Ez da oso herrialde handia eta jatetxe gutxi daude; hortaz, baliteke gurekin batera elkartzea.



Alberto Elortza.

Elkarteko presidente Segoviako Meson Candidokoa izango da. Denen artean, haren jatetxea izango da zaharrenetarikoa. Jatetxeko aita zenaren ekimena izan zen elkartea hau sortzea.

Gainera, estatuko jatetxe eta hotel federazioan –FERH– sartu zarete.

Bai, zorteaz egin dugu. FERH elkartean onartu gaituzte eta lagundu egingo digute. FERH

"Elkardea ezagutzera emateko ikastaroak egingo ditugu, babesleen laguntzarekin"

"100 urtetik gorako jatetxeak bidaude ibarrean, baina ez dira elkartean sartu"

errespetu handiko elkartea da; hortaz, egingo ditugun eskariak entzunak izango dira.

150 jatetxe gara 100 urtetik gorakoak, baina FERH elkartean beste jatetxe batzuk ere bidaude. Gu elkartearren barruan eongo gara, baina gure aldetik era-bakiak hartzeko aukera izango dugu.

Debagoienean badago beste jatetxerik 100 urtetik gorako?


Inguruko jatetxeen artean, gu bakarrik gaude elkartean apuntatuta. Baina bidaude gehiago: Arantzazun, esaterako, Goiko Benta, Sindika... Animatu gura ditugu beste horiek ere elkartean sartzen.

Euskal Herritik zu bakarrik egongo zara elkartean?

Asmoa da komunitate bakoitziak bi joatea. Oraingoz niri bakarrik deitu didate, baina banabil Bilboko Cafe Iruñakoak animatzen. Bilbokoak Aseginalaza familiakoak dira. Jatetxeko jabea hil egin zen, baina andrea eta alaba dabilta lanean.

Elkardea ezagutzera emateko ze ekimen aurreikusi duzue?

Elkardea sortzen dugunean ikusiko dugu, baina, oraingoz, bidaukagu zenbait gauza pentsatuta. Vichy Catalan taldea, esaterako, elkartean sartu da. Beste babesle batzuk ere badiatu: Chivite, adibidez. Dirua baino gehiago, euren generoa utziko digute ikastaroak eta antzerakoak egiteko.



NUBI ETA IESBAA

Arrasateko eta Aretxabaletako ume sahararrak, Cabarceno

Arrasaten eta Aretxabaletan dauden ume sahararrak Cabarcenoan egon ziren joan den zapatuan. Euria egin arren, ederki pasa zuten, gameluak, hartzak, hipopotamoak eta jirafak ikusten, besteak beste. Domekan, berriz, Donostiarra doaz, ume sahararrendako egingo duten jaialdira.

Arrasateko Nubi eta Aretxabaletako lesbaa elkarteeek udalekuak prestatu dituzte aurtengo udarako ume sahararrendako, eta udalekuen barruan txangoak ere egingo dituzte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa Uztaileko zozketa

**Sariak irabazteko
HARPIDETU!**
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

DVD-a

EROSKI
zurekin



KAMISETA+POLTSA

skunkfunk



KAMISETA+ALPARGATAK+CD-ak

karrikiri
Trinitateko alkaltzamun elkartea



**SARI NAGUSIA:
HONDARRIBIKO ARTIZARRA
LANDETXEAN GAU BAT**



Artizarra nekazalturismoa
www.nekatur.net/artizarra
943 64 23 37 / 655 72 18 34

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure dato pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batzen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haien zuzentzeko edo eeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

gure artekoak

PEUGEOT 308 SW > Peugeot etxeak hilabete bi dela merkaturatu zuen 308 SW berria. Lehengo 307 autoaren aldaera bat da; batez ere, diseinua da berritu dutena, eta baita gasolinazko motorrak ere.

Elisa Rodriguez > Ziorla Peugeot etxeko komertziala

"Espazioa norberaren gustura antolatzeko aukera dago"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Peugeot etxeak 308 berria merkaturatu du; aurreko 307 autoaren aldaera da. "Batez ere diseinua da aldatu dena; baina baita zabalera ere", dio Elisa Rodriguezek, Ziorla etxeko salmenta arduradunak.

Esan bezala, autoak zabalera handiagoa du. "Orain, zabalagoa da; hori dela-eta, egonkortasun handiagoa du autok orain", gaineratu du Rodriguezek.

MALGUTASUNA ESPAZIOAN

Autoa bost edo zazpi eserlekukoa da. Ezaugarri bereziena bidaia-riak espazioa antolatzeko duen malgutasuna da. "Atzealdeko eserlekuak independenteak dira; hala, bakotzak gura duen moduan ipin ditzake", azaldu du Rodriguezek. Hau da, norberak gura duen moduan antolatzen du espazioa: erdiko eserlekua etzan eta mahai bezala jar daiteke, adibidez. Gainera, eserlekuak kentzeko aukera ere badago; modu horretan, maletategiak 1,94 metroko luzera hartzen du.

Beste ezaugarri bat sabaia da. Kristalezko sabaia du Peugeot 308 autoak; hain zuzen, 1,26 metro koadroko sabaia. Kristal berezia da; argitasuna pasatzen uzten du, baina, ere berean, ez du eguzki energia pasatzen uzten.



Elisa Rodriguez, Peugeot Ziorla kanpoan, 308 SW berriarekin. ARANTZAZU EZKIBEL

Peugeot 308 SW 1.6L HDi 110 ZP

Prezioa	21.000 euro
Luzera	4,50 metro
Zabalera	2,03 metro
Maletategia	674 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,1 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	190 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	11,9 seg.
CO2 isurketak	129 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

MOTORRAK

Dieselezko hiru motor aukera daude eta gasolinazko bost. "Diesel motorrak Peugeot etxeakoak dira; gasolinazko motorrak, oso-rra, BMW etxeakoak", azaldu du Elisa Rodriguezek.

Autoa nori zuzenduta dagoen galdetuta, Rodriguezek dio bai gazteei eta baita familiei ere zuzendutako autoa dela. "Male-tategian leku handia dauka autoak; hala, gazteentzat egokia da bidaiatzeko, baina baita ume txikiak dituzten familientzat ere", dio. Izan ere, eserlekuen malgutusunak aukera asko ematen ditu.

begi-bistan

Behorra Urbian (Oñati) 2008/07/04

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Pasa den egubakoitzean Urbian hartutako irudia da. Arantzazutik igota, Urbia kozela iritsi bezain laster ikus zitekeen. Iru-dian ikusten denez, putreen lumekin inguratuta zegoen behorra.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik

Leire Kortabarria > lkortabarria@goiena.com'

Jaien beroan, denok gara etxe berekoak

San Fermín hasierako txupinazoa ikustea gustatzen zait; besteak beste, urteen buruan ikustea soziologia ikerketa txiki bat egiteko balioko lukeela iruditzen zait. Aurtengoan, beti bezala, hemengo eta kanpoko jende andana horretan, samur asko igartzen zen zein zen hemengo eta zein kanpoko, itxuratik hasita, baina baita gure nortasuna eta erreferentziak nonahi eramatea gustatzen zaigulako. Tarte-an, atentzioa deitu zidan poz-pozik Kolonbiako bandera bat jasotzen eta astintzen zebilen gizon bat. Gaur egungo egoaren eta trantsizioaren metafora polita iruditu zitzaidan: horzegoen seguruenik etorkina zen gizon hura, bere jatorria eta etorkizuna bat egiten ziren unean, jaioterritik urrutti, baina bizileku berriko jokabideak ere beretako hartuz.

Iruditzen zait jaiak direla, legeen neurrien gainetik, pertsonek semidetzeko modu one-na; kanpotik datozenak edo, arrazoi bategatik edo bestearrentzat, arrotz sentitzen direnak etxeko sentitzeko; eta barruan daudenek hurkoa norbanako moduan ikusteko. Eta hori San Ferminetan egiten bada, neurri txikiago baten, zergatik ezingo dugu debagoiendarrok egin?

> **Jaizaleen** pasioari mugak ipintzen lehena ez naiz neu izango. Baina oraindik deigarri egiten zait batak bestea ardoz mela-mela egiteko dagoen moda. Kanpotik ardoz bustita ere gehiago gozatzen ote da jaia?

> **Parte-hartzea** da aurtengo Debagoieneko jaiak definitzeko hitza, orain arteko jaietan, behintzat. Diru asko gastatzerik edo burua larregi apurtzerik ez da behar gauzak ondo egiteko, gogoa badago.

izen propioak


**Mireia
Gabilondo**
ZUZENDARIA

Bergarako aktore eta zuzendariaik Victoria Eugenia saria jaso zuen atzo, Kike Diaz de Rada eta Fernando Bernuesekin batera. Hain zuzen, Tantaka taldearen izenean jaso zuten, 25 urteotan antzerkiaren eta artearen alde egindako lana-rengatik.



Remi Diosdado
ATLETA

Oñatiako ART taldeak antolatuta, birziklatze tairerra eta artisau erakusketa egingo dute uztailaren 27an Gaudiaga Topagunean. Artea zabaltzea da helburua eta, besteak beste, Iñaki Jauregialtzoren lanak egongo dira ikusgai Arantzazu-ko erakusketan.



**Iñaki
Jauregialtz**
ARTISAU

Lau hilabete pasa dira Isaias Carrasco hil zutela eta ia bi hilabete eta erdi Ino Galparso- ro alkatea espetxeen sartu zute- la. Bi momentu haien, dimiso mozioa aurrera ez ateratzeak eta gobernuak duen "gestiorik ezak" galdera asko sorrarazen dizkio Paco Gartzia (PSE-EEko zinegotzia Arrasateko Udalean). Edozelan ere, lanean jarrai- tuko dutela dio.

Paco Gartzia > PSE-EEko bozeramailea Arrasateko Udalean

"Udal gobernuan daudenek ez dute ez ideiarik, ez gestiorik; Udala geldi dago"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
PSE-EE alderdiko bozeramailea da Paco Gartzia Arrasateko Udalean. Egungo egoerari buruz, Arrasateri eta PSOEren kongresuariburuz galduen diogu.

Nolako giroa dago Arrasateko Udalean?

Tentsio giroa dago, ez dago ez kontentsurik ezta harremanik ere lanerako.

Ze harreman duzue udaltzabako alderdiekin?

Ez dira txarrak, baina ezta beste agintaldietan izan ditugun besteko onak ere.

Egunero lan-jarduna oztopatzten du egoera horrek?

Ez, baina kontua da ez dagoela gestiorik. Ez dago ez gestiorik, ezta ideiarik ere. Ez dut ideia berri bakar bat ere ikusi, aurreko agintaldikoak izan dira urtebeteta pasa honetan bideratu direnak. Lau urterako gestio plana falta da, egiteke dago.

Zergatik?

Ez da goelako ideiarik eta ezta lidergorik ere. Geldi dago Udal, ataskatuta. Sei zinegotzik eta alkateak ezin dute Udalaren lidergoa hartu eta ez dakit alderdi batzuek nola onartzen duten egoera honetan egotea, udalbatzaren herena gobernuan egotea eta gehiengoa oposizioan. Batzuk, gainera, gezurra esaten ari zaie herritarrei: oposizioan daudela esan eta berez gobernatzen egon.

Zein da soluzioa?

Indarkeria babesten dutenak gobernatzen egotea iraingarrira da. Eta ausardia falta politikoa da gainerako alderdiek pausorik ez ematea Udal demokratikoa izateko.

Mozioa ez zelako onartu esaten duzu hori?

Mozioa ez zelako onartu eta ustez ETArekin kolaboratzaagatik eta desobedientzia zibilagatik epaituko duten pertsona baten aldeko kanpaina egiten ari direlako. Pertsona hori heroia izatea gura dute batzuek, eta Isaias Carrasco, hildakoa, gaizkile.

Nori buruz ari zara?

EAJ, EB, EA eta Aralarri buruz. Eta azken osoko bilkuran, PPk ere ez zuen ezer esan.

Nolakoak izan dira lau hilabete hauek?

ro alkatea espetxeen sartu zute- la. Bi momentu haien, dimiso mozioa aurrera ez ateratzeak

eta gobernuak duen "gestiorik ezak" galdera asko sorrarazen dizkio Paco Gartzia (PSE-EEko

zinegotzia Arrasateko Udalean). Edozelan ere, lanean jarraituko dutela dio.



Paco Gartzia, PSE-EEk Arrasateko udaletxean duen bulegoan.

OIHANA ELORTZA

Gogorrak, batez ere alderdi demokratikoak ez direlako egon behar zuten tokian.

Zer deritzozu alkatearen egoerari?

Ez dut ezer esango. Erabaki judziala da eta ez dut baloratuko, inoiz ez dut egin-eta.

Minduta sentitu zarete Ino Galparsoroekiko elkartasun mezuengatik?

Bai, baina batez ere alkatea babesten dutelako eta ez Isaias Carrasco.

Zergatik huts egin du zentsura mozioak?

Beste alderdiei galdetuko nieke hori.

Ze jarrera hartuko du PSE-EEk datozen hiru urteotan?

Betiko bera: herritarri dagokion gai batekin ados bagaudet, alde bozkatuko dugu eta bestela, ez. Herritarren zerbitzura gaude Udalean.

GIROA

"Udalean une honetan ez dago ez kontentsurik ezta harremanik ere lanerako"

KANPAINA

"Atxilotua heroia eta hildakoa gaizkilea izateko kanpaina ari dira egiten alderdiak"

SOZIALISTEN KONGRESUA

"Kongresuan aipatutako gai guztiak legetan islatuko dira, Zapaterok esandakoa betetzen duelako"

Zein da Arrasatek duen premia nagusia?

Asko, baina oraingo Udalak ez du ezer berririk proposatu. Baina, adibidez, herriak irudi berria behar du, garbia, mehatxuriak gabeko paretak. Bestetik, Udalak erakunde askorekin kolaboratu behar du, eta ez du egiten. Era-kundeetara ere jo behar da, herri-ka inbertsioak erakartzeko, baina hori ere ez da egiten. Herritarrik ikusi behar du Udal indartsu bat dagoela, ezin gara beti gauza berberaz aritu.

Nolako da PSOEren exekutiba berria?

Jende gaztea dago, politika eta herria ezagutzen duena eta kudeaketan onak direla erakutsi dute-nak. Orain, gainera, Euskadiko Alderdi Sozialistak ordezkarri bat gehiago lortu du, Eduardo Madi- na. Rodolfo Aresek ere jarraitzen du.

Jendarteko gai asko entzun dira kongresu horretan: abor-

tua, eutanasia, Elizari pribilegiорik ez... Zein da helburua?

Gizartearekin batera doazen gaiak dira. Gainera, Jose Luis Rodriguez Zapaterok erakutsi du agintzen duena bete egiten due-la, eta Kongresuko gai guztiak legetan islatuko dira legealdi honetan. Alderdi aurrerakoia da PSOE, eta atzerakoia, PP. Ziur naiz Espania modernoagoa, plura-lagoa izango dela aurrerantzean eta Europako lehenengoetako aurrerapen sozialean eta askatasunean.

Badago ala ez dago krisirik?

Bai, badago.

Sozialista bat egongo da Lehen-dakaritzan hurrengo legegin-tzaldian?

Bai. Euskal gizartea nekatuta dago EAJren gobernuez; gainera, ez du ezer berririk proposatu, Ibarretxe Planaz eta galdeketa z soilik aritu da. Jendeak politika egiteko modu berria gura du. EAJk oposiziota pasa behar du.



zabalik

Estepan Plazaola

'Elebitasuna'

Benetako elebitasuna lortzea jarri du helburu Eusko Jaurlaritzak eskola-curriculum berria onartzera, hau da, ikasleek euskara eta gaztelania, biak, ikastea. Gaztelaniera, batzuk kontrako esan arren, lortua dago lehendik: esaterako, Europako Pisa 2006 txostenean EAEko ikasleek emaitza dezentez hobeak izan ei dituzte gaztelaniazko irakurketan Espainiakoek baino. Euskararen kasuan, aldi, jakinekoa da eskolak ez duela oraindik ere lortzen ikasle guztiak derrigorrezko ikasketak euskara maila onarekin bukatzea.

Milaka dira, ondorioz, azken 25 urteetan eskolatik euskara ikasi gabe irten eta gero euskaltegira joan direnak. Zenbat kostatu ote da gero euskaldundu diren horiek (asko ertzainak, irakasleak, udal funtzionarioak...) euskalduntza? Lehenagoko sei, zortzi, hamar milioi pezeta? Ez dakit zehatz, baina halako kopuruak entzun izan ditut.

Kuriosoa da, baina helburu bera (*Un Bilingüismo Real*) ei dauka *El Mundo*, Cope, Savater, Rosa Diez eta konpainiak plazratu duten agiri berriak. "Ei" diot, zeren eta izenburua *Manifiesto por una lengua común* baitu. Bitxu gutxi: *Una, común*.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere, goian aipatutako eskola-curriculumaren kontra sortu dute antzeko beste bat: *Plataforma por la libertad de elección lingüística*. Lehengo sistema (A, B eta D ereduak) mantentzea eskatzen dute, hau da eskolatik euskara ikasi gabe irteteko eskubidea. Horra bilinguerik gabeko bilinquismoa.

Gero Osakidetza, epaitegian edo udaletan langile sartzeo euskara jakin beharrik ez izatea defendatuko dute. Eta, berri, denon dirutik horien euskalduntza ordaindu beharko dugu edo, bestela, *libertad de elección lingüística*, hizkuntza *común* a bakiak dakitenei bermatu.

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendaria** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Saietakor arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritz Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikurña, Arantza Ezkibel, Irati Agirrezailegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartza, Nerea Menor **Oinarritzko diseinua** Golo Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Munduñano, Zortza Martín, Itxaso Berezbar, Aintzane Muruamendiarraz **Testuen zuzenketak** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaiztaran, Ane Berezbar, Iratxe Bengoa.

EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com


Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1010 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



LAGUNTAILEAK

OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiako
UdalaAretxabaleta
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

herritarra galdezka

ZERGATIK EZ DAGO AUTOBUS ZERBITZU HOBERIK?

Aretxabaletako irakurle batek erretiroa hartu du, eta hara eta hona ibiltzea du gustuko. Guregan zuzendu da, hain zuzen, autobusez leku gehiagotara joateko aukera faltan igartzen duelako: "Zergatik Aretxabaletak eta Eskoriatzak ez dute autobus zerbitzurik, edo zerbitzu hoberik, Donostiara, Oñatira eta Bilbora joateko?", galdu digu.

Eskoriatzatik eta Aretxabaletatik Donostiara joateko bi autobus bakarrik dago aste barruan: 06:00etan bat eta 08:00etan bestea, Eskoriatzan, eta hamar minuto geroago, Aretxabaletan. Zapatuetan, 08:00etan dago autobusa; domeketan, ez dago autobusik. Bestalde, Oñatira eta Bilbora joateko ez da autobus bat ere pasatzen bi herri horietatik aste osoan; horietara joateko, lehenengo Arrasatera joan behar dute era-biltzaileek.

Bada, datu horiekin, Pesa autobus enpresara deitu dugu, eta hauxe izan da erantzuna: "Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik autobus mordoa daude egunero

Arrasatera joateko. Hori hartu eta gero, Arrasaten nahi duten lekura joateko autobusa hartzea daukate".

Gogorarazita gure solaskideari, Aretxabaletako edo Eskoriatzako urbanoak atzerapenik baldin badauka, Arrasatetik irten den autobuseko gidariaren arabera, batzuetan ez duela itxoiten, hauxe erantzun digu: "Erretratuak badira, egun osoa daukate galtzeko, ezta?"

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxe: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

PARKERA TXAKURRAREKIN SAR NAITEKE?

Bergarako irakurle gazte bat, txakur baten jabea, guregan zuendu da honako zalentzarekin: "Usondo parkean, batzuetan, jendea txakurrarekin ikusten dut, baina debeku kartela dago han. Nik neuk nahiko nuket txakurrarekin han ibili, baina ahal da?"

Gure irakurlearen zalantza argitzeko asmoz, Bergarako Udaltzaingora jo dugu. Hango buruak, Alfonso Alonsok, hauxe erantzun digu: "Bai, debekatuta dago txakurrarekin Usondo parkean ibiltzea; berdin dio txakurra lotuta doan. Horren arrazoia da jendea han lasai ibiltzeko aukera izan dezala". Ez hori bakarrik, debekua haratago doa: "Ezin daitete bizikletarekin edo baloiarekin ibili parke horretan". Gogorarazten du, gure irakurleak ondo esan bezala, debekuaren kartela badagoela parkean eta udaltzainek inor debekua hausten ikussten badute, isunik ez, baina parkeetik irteteko eskatzen diotela.

Bestalde, Irizar parkera ere ezin dela txakurrik eraman, hori ere argitu du Alonsok.

marrakiz

Alex Ugalde



blog-top

Euskal munduaren prestigioa dago jokoan

Mikel Iturria
eibar.org/blogak/iturri

Gaur goizean aritu da estreinakoz Juanra Viles, garai batean Duncan Dhu taldean bateria jotzaile ibilitako musikaria, MQP saioan (...). Patxi Bartzarrika eraman dute Jaurlaritzak hizkuntza politika-en alorrean indarrean jarriko

dituen neurrien inguruan berba egiteko. Vilesek aipatu du, bere ustez, terrorismoaren gaieren tokia hartuko duela hizkuntzarenak Spainian legegintzaldi honetan (...). Anjel Lertxundik Stock 13 zikloan kontatu zuen gauza bat etorri zait akordura. Lertxundik zioen 16 urterekin gaztelaniaz idazten zuela, baina 1968aren inguruan hasi zela euskara idazten. Zergatik eman ote zuen urrats hori galdu zion publikoki bere buruari. Ez omen zekien zergatia, baina, seguruenik, 1968aren bueltan eskaintza artistiko onena euskararen bidetik zetorrelako: Ez Dok

Amairu kantagileen mugimendua, pintura, antzerkia (Seminarioan taularatu omen zen lehen aldiz Samuel Beckett jaunaren testu bat Spainiako Estatuan; euskara, gainera), eta abar. Finean, Anjelek euskararen munduak prestigioa zuelako aldatu zuen sortze hizkuntza.

Eta nire buruari galdetzen diot orain, eta hemen, ea egoera gaur egun berdin-berdina ote den: prestigioa al du euskara sortzeak? Hemendik kampo ez dutuste, baina euskaldunen prestigioa Euskal Herrian? Ez dakit ba... gure burua estimatzen ikasi al dugu?



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



% 25 merkeago



A+ Sailkapen energetikoa

CFS-112 (850 X 1125 X 600) 451 € - 75.317 pta
CFS-126 (850 X 1260 X 600) 485 € - 80.995 pta
CFS-156 (850 X 1560 X 600) 530 € - 88.510 pta



185
X
60
X
60 mm



A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA 6FAC-495
430 € 71.810 pta



1200b/min
7 Kg



A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-1127
365 € 60.955 pta



1000
b/min
6kg



A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA L-1026
340 € 56.780 pta



800 b/min
5 Kg



A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF - 108
275 € 45.925 pta



pirolisis
labea +
3 fokoko
HP-7660 X
lehen: 1.519 €
Orain:
1.090 €

eta gainera
ontziteria
hau opari



LABEA eta BITROZERAMIKA
INSTALATUTA
360 € 60.120 pta



INDUKZIOA AI 1300 R/X
Touch 3 fokorekin

435 € 72.645 pta



TELEBISTA PHILIPS
LTD (TDT) INTEGRATUA
LCD 32" PFL5522D
610 € 101.870 pta
LCD 26" PFL5522D
550 € 91.850 pta.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen
duen batzak besteko energia kontsumoaren
araberako energia aurreztea.

A+ 70%
A+++ 45%
B++ 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Gomendatzen dizut sarijeta

www.aizue.com

Gomendatzen dizut
sarijeta

**Truka ezazu bidaiatzeko
informazio praktikoa!**

- Sariak:** ikus entzunezko materiala
edo gustuko oporralditxoa.
- 2 kategoria:** 12-17 urte eta
18-34 urte
- Ekarri gomendioa Gazte Bulegora edo
idatzi www.aizue.com blogean
- Epea:** irailaren 30a.

Animatu zaitez!



Herriak

Arrasate > 16-17 Bergara > 22-21 Aretxabaleta > 24-25 Oñati > 26
Eskoriatza > 27 Antzuola > 28 Elgeta > 29 Aramaio > 30 Leintz Gatzaga > 31



> ARRASATE

Zerrajerako lehen etxebizitzak inauguratu dituzte asteon > **16**

> BERGARA

"Udaleko hainbat alor planifikatuko dugu", dio Barruso alkateak > **20**

> ARETXABAleta

Inaxio Garro: "Udal programak martxan jartzen dabil" > **24**

> LEINTZ GATZAGA

Oraingo hilabetean bukatuko dituzte azpiegitura lan handienak > **31**



KALEAN Garibai etxeplazan aurkitu ditugu egun hauetan Sexologia Zerbitzua eta Gazte Bulegoa.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ARRASATE > ZERBITZUAK

Kalera irten dira Udaleko Gazte Bulegoa eta Sexologia Zerbitzua

EKINTZAK

17an dantza emanaldia egongo da Biteri plazan eta 24an ipuin tailerra antolatuko da

LEHIAKETAK

'Sexmetria' eta 'Gomendatzen dizut' lehiaketak martxan daude dagoeneko

NEREA MENOR > ARRASATE

Gazte Bulegoko eta Sexologia Zerbitzuko langileak kalera irtengo dira hil honetan eta jende artean ibiliko dira hainbat ekintza antolatzen. "Uztailean uda giroa izaten da eta herritarrek aisiaaldiarekin lotutako ekintzak burutzeko jarrera areagotzen da. Horregatik, bulegoetatik irten eta herritarrengana gerturatzen saiatzen gara; aisiaaldi giro horretan egoten", dio te beritza horietan.

Ekainaren 17an, Biteri plazan, dantza emanaldia egongo da Maiate Albesen eskutik; eta 24an, Arrasateko neska talde batek antolatutako ipuin tailerra egongo da. Ekintza horiek gauza bi uztarri nahi dituzte: "Zerbitzuak kantora ateratzearekin batera, herriko gazte-ekintzaileek ekimenak aurrera eramateko plataforma izatea nahi dugu".

BULEGOAK KALEAN

Asteon, bi bulegoak kalera ateratutu dituzte zerbitzuek: astelehen, martxeten eta eguztuen arratsaldeetan Garibai etxeplazatxoan izan ziren eta jende asko hurbildu zen: "Kuriositatea azaldu du jendeak, eta asko gerturatzen ziren; panfletoak hartzen ere hurbildu ziren batzuk. Musikak eta ekintzak jen-

dea erakartzen lagundu dute", azaldu ziguten. Bertaraino hurbildu zirenak Internet ere erabili ahal izan zuten.

UDAKO LEHIAKETAK

Sexologia Zerbitzuan Sexmetria lehiaketa antolatu dute, eta Gazte Bulegoan, Gomendatzen Dizut. Lehena, Sexologia Zerbitzuan

antolatzen duen film laburren lehiaketa da: "Lehiaketako parte-hartzaileen film laburren bitarte, sexualitatea bizitzeko ditugun modu ezberdinak kaleratu eta goraipatu nahi ditugu. Gizon edo emakumeek sentitu eta bizitzeko ditugun modu ezberdinak pantailalaratu nahi ditugu". Arunat al berria egongo da, Sexmugi delakoa: mugikorrez grabatutako film laburruak bidali beharko dira bertan parte hartzeko. Informazio gehiago: www.sexologiazerbiztua.com/sexmetria.

Gomendatzen Dizut, beriz, bidaiaztzeko gomendioen lehiaketa da. Helburua aisiaaldi edo oporturraldian ezagututakoaren berri ematea da. Lehiaketan parte hartzeko, gomendio bat idatzi eta argazki batekin herriko Gazte Bulegora eraman beharko da edo www.aizue.com webgunean sartu.

ESALDIAK

"Gure ekintzakin, herriko gazte ekintzaileek ekimenak aurrera eramateko plataforma izan gura dugu"

Dorleta Kortazar > Gazte Bulegoa

"Bulegoetatik irten eta herritarrengana gerturatzen saiatzen gara uztailean; aisiaaldi giro horretan egoten, alegia"

Larraitz Arando > Sexologia Zerbitzua

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatua, 12	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Domeka, 13	Azkoaga	Ferrero, 1	943 79 15 15
Astelehenetako, 14	Azkoaga	Iturrioz, 17	943 79 79 99
Martitzena, 15	Fdz. Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Eguaztena, 16	Irizar	Erguia, 11	943 79 12 39
Eguena, 17	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 18	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09

BERGARA

Zapatua, 12	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 13	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehenetako, 14	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 15	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 16	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 17	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 18	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74

ÖÑATI

Zapatua, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 13	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehenetako, 14	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 15	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 16	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 17	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 18	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

ARETXABAleta

Zapatua, 12	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 13	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehenetako, 14	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 15	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 16	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 17	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 18	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEza.

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhaitzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaiako.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalatxoa	
Antzuola.....	943 76 46 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaiako.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritzan garbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakidegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 03 67
Kiroldegia	
Aramaiako.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaiako.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaiako.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguia B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Obeñerrea, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguia A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguia B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obeneñereka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguia A eta Gorostiza.	

BERGARA

San Lorenzo/San Juanundi irteerak	
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Gera-lekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko (Mintegi), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluze), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomo-koatua).	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguia B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obeneñereka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	

ARAMAIOKO AUTOBUSAK

kale inuesta

Zer iruditzen zaizu 'Errekan gora' uztaileko jaialdia?



Ana Jesus Ancin
Langilea
Eskoriatza



Delfin Guede
Erretiratua
Eskoriatza



Clemente Beloki
Langilea
Eskoriatza



Mari Carmen Flores
Langilea
Eskoriatza



Ekhiñe Prior
Ikaslea
Gasteiz

Ondo dagoela uste dut. Uztailean jende asko joaten da kanpora eta jendea herrian gelditzeko aukera ona da. Kaleko ikuskizunek bizitasuna ematen diote herriari, eta ni neu ere joango naiz ikustera.


Giroa hobetze aldera bada, oso ondo ikusten dut. Gainera, uste dut gero eta gauza gehiago egiten ari direla herrian giro hobetzeko. Horrelako ikuskizunak udarako egoki ikusten ditut.

Ondo iruditzen zait. Hala eta guztiz ere, ez dut denborarik izaten horiek ikustera joateko. Udan herriko giroa berpizteko ondo ikusten ditut horrelakoak. Joango naiz fado ikuskizunera,

Ondo iruditzen zait. Herriko giroa zapatuau oso itzalita egoten da eta hori berpizteko egoki ikusten dut. Gainera, adin guztiendako dago zer ikusi: barre egiteko ikuskizunak, musika... Egoki ikusten dut.

Halako gauzak beharrezkoak dira, jendea herrian gelditzeko eta uda garaian giroa sortzeko. Gainera, adin guztiendako dago zer ikusi: barre egiteko ikuskizunak, musika... Egoki ikusten dut.

txistuak



GOIENKARIA

Oinezkoak, espaloitik ibili ezinda



Bergarako irakurle batek bidali digu aste honetako kexa: Masterreka 32ko ataritik ateratzean, bertako bizilagunek azkenaldian aurkitzen dutena. Kalean egiten ari diren lan batzuen ondorioz bertara mugitutako zabor edukiontzie gain, kale bereko bizikleta denda batek espaloian pilatutako kartoizko kaxak nonahi botata.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

1.400

Aurten, Debagoieneko udaleku irekietan izena eman duten neska mutikoak 1.400 izan dira, pasa den urteko udalekuetan baino gehiago. Haur gehien Arrasaten apuntatu dira, guztira 325 neska-mutiko.

5 galdera...

Jorge Markiegi

Markiegi Jantzi dendakoa
Arrasate

1. Noiz hasten da merkealdi garaia eta noiz arte irauten du?

Legeak dioenaren arabera, udako merkealdi garaia uztailaren lehengo abuztuaren 31ra arte da, bi hilabete; hala eta guztiz ere, merkealdi hitza erabili gabe beste hitz batzuk erabiliz denda batzuek lehenago hasten dute merkealdia.

2. Dendek, produktuaren beherapena egiterakoan, badute legeak ezarritako eta errespetatu beharreko minimo eta maximo bat?

Denda bakoitzak nahi duen beherapena egiten die produktuei. Hori librea da; legeak ez du alde horretatik mugarik ipintzen.

3. Produktu guztieta egin daitezke eta egiten dira beherapenak?


Orokorean, beherapena urtarro horri dagokion produktu guztieta egin da. Saltzaileak ez baldin badu nahi produktu bat beherapenetan jarri, erakusleihotik kendu baino ez dauka, edo denda barnean txartel baten bidez adierazi.

4. Arroparen kalitatea jaitzi egiten da beherapenetan?

Beherapenetan, produktuaren kalitateak berbera izan behar du, edo hala izan beharko luke, behintzat, urtarro horretako arropa saltzen ari bada.

5. Erosleek zer izan behar dute kontuan beherapen garaian?

Beherapen garaian mota askotariko jendea dago: alde batetik, betiko bezeroa dago, zure dendara etortzen dena daukazun produktu hori erostera; bestalde, badaude prezioa onean produktu on bat topatzera etortzen direnak ere; hirugarraren, berriz, prezioari bakarrik garrantzia ematen dion jendea dago, beste ezeri begiratzen ez dioten erosleak.



ETXEBIZITZA > ZERRAJERAKO ETXEAK

Zerrajerako lehen etxeak inauguratuta, laster, gehiago

Uztailaren amaieran sinatuko dituzte Zerrajerako etxeen eskriturak

Jaurlaritzak iragarri du 2009 hasieran 324 etxebizitza eraiki gura dituztela inguruan

A.E./U.M. > ARRASATE
Asteon inauguratu dituzte Zerrajerako babes ofizialeko etxeak. Besteak beste, Javier Madrazo Etxebizitza sailburua egon zen inaugurazio ekitaldian. Hark azpimarratu zuen uztail bukaean sinatuko dituztela eskriturak eta orduna emango dizkietela giltzak etxebizitzon jabeei.

Berreun etxebizitza dira inauguratu dituztenak, 100 alokairuan emateko eta beste 100 saltzeako, azalera-eskubidean. 58, 79 eta 90 metro koadro bitartekoak dira, bi edo hiru logela dituzte, eta bainugela bat edo bi. Lau etxebizitza egokitura daude mugitzeko zailtasuna duten pertsonendako.

Etxebizitza guztiak garajeak eta trastelekuak dituzte. Gainera, 131 garaje libre utzi dituzte, "Arra-



Javier Madrazo sailburua eta Oihana Aranburu jarduneko alkatea, inaugurazio ekitaldian, astelehenean.

ARANTZAZU EZKIBEL

sateko aparkaleku beharrizana konpontzen laguntzeko".

Bestalde, bi blokeek 1.300 metro koadro inguru lokalak dituzte; Udalari eta Aspaceri utzitakoak dira. Besteak beste, garun-paralisia duten pertsonendako egoitza eta eguneko-zentroa ipiniko dituzte han.

95.000 eta 128.000 euro bitarteko prezioan salduko dituzte etxebizitzak; alokairu soziala, osteria, 250 euro inguru izango da.

Oro har, Oihana Aranburu jarduneko alkateak aditzera eman zuen Arrasateko Udalak "pozik" dagoela etxebizitza horiekin eta aurrerantzean ere Jaurlaritzare-

kin lanean jarraitzeko asmoa daukala gaineratu zuen, bereziki etxebizitza beharra dutenei begira.

Etxebizitza horiek eraikitzeko inbertsioa 7.768.434 euro izanda. Arrasateko Udalak, berriz, ingurua urbanizatzeko inbertsioa egin behar izan du; kasu horretan, 687.841 euroko inbertsioa.

KONTUAN HARTZEKO

Promozioko publikoko beste 324 etxebizitza

Etxebizitza sailburuak herrian egin behar dituzten hurrengo egitasmoen berri eman zuen. Jakinarazi zuen babestutako beste 324 etxebizitza egiteko proiektua abiarazita dutela dagoeneko, horiek ere Zerrajera inguruan -orain eraiki dituzten etxebizitzen atzoko aldean. Madrazok zehaztu zuen Arrasateko Udalak badabilela ingurua urbanizatzen eta uztalean bertan esleitu behar dituela Visesak proiektua idazteko lanak. Etxebizitza horiek guztiak alokairuzkoak izango direla azpimarratu zuen sailburuak: 216 izango dira babes ofizialeko alokairudunak eta gaineko 108ak alokairu sozialekoak. Alokairuen kopuruen gaineko datua ere eman zuen Madrazok: hileko 200-250 euro. Bestalde, etxeon proiektua idatzi eta gero, lurren kutsadura garbitu egin beharko dutela gogora ekarri zuen eta horren ostean hasiko direla obrak egiten. Javier Madrazoren esanetan, 2009aren hasierako hilabeteetan izango da hori.

KONTUAN HARTZEKO

600 etxebizitza baino gehiago Zerrajeran

Proiektu guztiak bukatzen dituztenean, Zerrajera inguruan 672 etxebizitza berri izango dira. Guztiak, gainera, babestutakoak izango dira -saltzeako zein alokairuan ematekoak.

Asteon inauguratu dituzten 200 etxebizitzez gainera, Visesak beste 324 etxebizitza promozionatu behar ditu Zerrajeran. Beraz, guztira, 524 etxebizitza izango dira promozio publikokoak edo Eusko Jaurlaritzak bideratutakoak.

Horiez guztiez gainera, promozio pribatuko etxebizitzak ere eraiki behar dituzte Zerrajeran. Hain justu, Foment Inmobiliarik (La Caixa) alokairuan emateko beste 148 etxebizitza eraiki behar ditu -Aprendizien Eskolatik gertuago-. Azken horien kasuan, eraikin bakarrean eraikiko dituzte. U itxurako eraikina izango da. Etxeon beheko solairuan, berriz, lokal komertzialak egingo dituzte eta sotoan 158 aparkaleku inguru.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Lagunza terapia.
- Mota guztiako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

KUTSADURA

Arrasate,
kutsatutako
herrien
zerrendan

Zirkulazioa,
harrobiak eta obrak
dira kutsaduraren
arrazoi nagusiak

U.M. > ARRASATE
Ekologistak Martxan elkartek Estatuko airearen kalitate maila neurru eta jakinari zu bizilagunen erdiak baino gehiagok kutsatutako airea arnasten dugula, tartean Arrasateko bizilagunek. Kasu horretan, PM10 partikulek eragiten dute kutsadura, suspentsioan dauden partikulek. Kontua da egunean partikula horien 50 mikrogramo m³-ko muga finkatuta duela Europak; bada, urtebetean 35 egun baino gehiagotan muga gaindituz gero, kutsadura dagoela konsideratzen dute. Elkarte ekologistaren datuen arabera, Arrasatek urtebetean 52 egunean gainditu du muga hori.

Rafa Ugarte Ingurumen Saileko teknikari-buruak emandako datuen arabera, kutsaduraren arrazoi nagusiak hiru dira: "Bereziki, zirkulazioa; gero, harrobiak eta obrak; industriak ere badu eragina, baina txikiagoa da; gainera, urteotan kutsadura murritzeko neurri gehien hartu den esparrua da".

Injurumen sailak azpimarratu gura izan du, baita ere, kutsadura neurtzeko kabina Arrasaten dagoela, "baina kabina Bergaran, Aretxabaletan edo beste nonbait egongo balitz ere antzerako datuak erakutsiko lituzke". Jakinarazi dute halako kasuetarako Eusko Jaurlaritzak baduera protokolo bat eta dagoeneko Arrasaten behin aplikatu dutela, baina ez dela gauzatu: "Diagnostikoa egin zuten eta ekintza plana proposatu. Orain dela urtebete egin zuten proposamena. Mahai gainean dago".

MUSIKA > BRUTAL MELODY TALDE ARRASATEARRAREN ITZULERIA

Brutal Melody 'biolentzia ordu bat gehiago' eskaintzeko asmoz itzuli da

Uztailaren 25ean 3.60 aretoan, izango da kontzertua, 23:00etan. Aurretik Anger talde beteranoak joko du.

Oraingoz ez dute kontzertu askorik lotu eta ez dute kantu berririk aterako

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE Brutal Melody talde arrasatearrak azken kontzertua 2000. urtean eskaini zuen. Orain, zortzi urte geroago, Arrasaten bilduko dira, 3.60 aretoan. Heavy metal estiloan Arrasatek eman duen talderik arrakastatsuenaren uztailaren 25eko emanaldia ikusteko zortzi euro ordaindu beharko dira aurrez, eta hamar euro leihatilan. Sarrerak Ekaitz eta Dat tabernean eta Lazcano musika dendaran izango dira salgai.

MUSIKA "GOGORRA ETA BASATIA"

Brutal Melody heavy metalarekin lotu izan da beti. Hala ere, musika estiloa zehazki definitza ez da batere erraza. Eurek "gogorra eta basatia" dela diote, baina hard, death, grind eta trashcore etiketak ere gehitzen dizkio-te euren musika moldeari.

Taldea 1994. urtean jaio zen. Taldeko partaide guztiak, Aner abeslariak izan ezik, beste proiektu askotan hartu dute parte. Txemi baxu joleak Necrosis eta Chile Abuse eta Ominus taldeetan jo du, Pako guitarra joleak Necrosis eta Bad fLine-en, Juanra beste guitarra joleak Mortuorion eta J. Odola bateria joleak Ekon, Fjord eta Governors-en hartu du parte.

ZUZENEKO BORTITZAK

Brutal Melody berezia egiten dutena zuzenekoak dira. Horrela zen, behintzat, jo eta ke jardun zuten sei urteetan –1994tik 2000ra.



Brutal Melodyren *Hogeい minututako biolentzia* diskoko ateratako irudia, 1998. urtekoa.

GOIENKARIA

Emanaldi bortitzak eskaintzen zituzten, eta oholtza gainean jasaten zuten eraldaketa ikaragarria izan ohi zen.

DISKO ASKORIK EZ

Estudioko lehen lana *Mundu Faltsua* deituriko maketa izan zen, eta Arrasateko Shot! estudioan grabatu zuten. Hala ere, ezagutzen eman zuen lana 1998. urtean grabatu zuten *Hogeい minututako biolentzia* izeneko CD laburra izan zen. Diskoaren izena ulertzeko lana osatzen duten sei abestiak entzun besterik ez da egin behar. Doinu bortitzak, era-sokorrak nagusi, finean, 20 minutuko –CD laburraren iraupena– biolentzia entzulearentzat. Ez dute beste lanik atera; grabazio gutxi, beraz. Hala ere, zenbait bilumatan kolaboratu dute: esate-

rako, Rip taldearen omenez *Versiones* izeneko bilduman *última generación* abestiaren bertsioa egin zuten.

MEREZITAKO ERREKOZIMENDUA

Talde arrasatearrari 1999. urtean heldu zitzaison urteetan zehar egindako lanak merezi zuen errekozimendua. Urte hartan Bilbo Hiria deritzon lehiaketan parte hartu, eta Espaniako Estatuko beste 900 musika talderen artean, lehen saria jaso zuten. Sari hura jaso ostean, normala denez, hainbat ate zabaldutzen zitzakien. Hala, besteak beste, Festimad makrojaialdi ospetsuan jotzea eskaini zieten eta, noski, ez zuten aukera alferrik galdu. Arrasatearrek Metallica, Backyard Babies, Skunk Anansie, Monster Magnet, Urban Dance

Squad eta Safety Pins moduko talde famatuekin jotzeko aukera izan zuten.

ITZULERAKO KONTZERTUA

Datorren egubakoitzeko kontzertua berezia izango dela ezin uka-tu. Ez du boskote originalak joko, baina Aner, Pako eta J. Odolak Jimmy Soziedad Alkoholikako guitarra jolearen eta Numen taldeko baxu jole ohi Otutoren laguntza jasoko dute. Luxuzko laguntza, hortaz. Kamisetak izango dira sal-gai kontzertuan.

Brutal Melody izango da protagonista. Aurretik, baina, Anger talde arrasatearrak joko du. Esperientziadun taldea da Anger, hainbat estilo uztartzen dituena, eta hain bortitzak izan ez arren, haiek ere taula gainean eraldatu egiten dira; bai, horixe.

bere ustez



Maialen Gonzalez

Itxaropen txuri-urdinaren azken izpiak

Hilabete pasa da dagoe-neko Realak azken partidua jokatu zuenekit. Halere, zaleok ez dugu hain samur ahaztuko liga amiera. Batzuk galdezka ibiliko dira oraindik ere. Nola da posible? Eskuetan izan genuen eta!

Bai, eskuetan izan genuen. Domeka arratsalde hartan, Mendizorrotza kolo-re txuri-urdinez jantzi zen. Realzaleon oihuak, aldiz, gehiago ziren. Zorteak, hale-re, etxekeoen alde egiten du maiz eta gu ez gara salbues-

"Lillok ekainaren 15ean barre egin nahi zuen, beste guztiak baino ozenago"

penez gozatzen duten horietakoak. Lillok ekainaren 15ean barre egin nahi zuen, beste guztiak baino ozenago. Entrenatzale gisa, lana onto egin duela esango nuke eta hala izaten jarraitza espero dut. Partidu hartan, ordea, gehiegi fidatu zela esatera ausartuko nintzateke. Kamera batek, bukaerarako 20 minuturen faltan lasaitasuna islatzen zuen keinu bat ere harrapatu zion.

Nik uste dut epaileak amaiera adierazi arte ez dela komenigarria lasaitzea eta hori, 90. minututik aurrera gertatu zenak berresten du. Ez dugu igoera lortu. Aurten ez. Barne-alda-keta ugari eman beharko da aurrera egiteko, baina gauza bat argi daukat: atzo, gaur eta beti, aupa, Real!

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarre kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

AGR
LEHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
Garcia Ripa
ZAHARBERTZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

ZIKLISMOA > TOURREKO PORRA

Monteko porrak errekor guztiak hautsi ditu; zaleek milatik gora apustu egin dituzte

Monteko porrako irabazoleak goraino beteko ditu poltsikoak aurten, antolatzaleen esanetan 12.000 euro irabaziko ditu-eta

XABIER URTZELAI > ARRASATE
 Tourrak dagoeneko egin du lehenengo astea, eta baita Monte tabernako porrak ere. Gainera, aurtengo edizioan Xantini Ziklismo Taldeak antolatzen duen porrak errekor guztiak hautsi ditu. Iaz 850 porra jaso zituzten, eta aurtengo gorakada nabarmena izan da: "Pentsa, 1.002 porra jaso ditugu aurten, sekulako igorera da", adierazi du Monten lan egiten duen Juan Carlos Davilak. Apustu kopuru hori jasotzeak esan gura du irabazoleak 12.000 euro jasoko dituela, kontuan hartzeko zenbatekoa da: "Kanpoko jende asko etortzen da apustuak egitera, eta euren esanetan, Euskal Herriko porrarak garrantzi tsuena izango da hau".

AURTEL INTERNETZ
 Monteko porra Internet bidez jarraitu ahal da aurten www.amasg.com/xantini helbidean, eta apustu asko ere Internet bidez egin dituzte. "Webgu-



Cadel Evans da apustu gehienetan kontuan hartu duten ziklista. ERIC LALMAND

nearekin beste aurrerapauso bat egin dugu, jendeak etxetik jarrai ahal izango du-eta lehiaketa".

Joan den domekan lanez lepo ibili ziren Xantinikoak, baina etapa batetik besterako egunaketak ez du horrenbesteko lanik ematen: "Lehenengo, dortsal guztiak sartu genituen ordenagailuan, eta domekan, 14:00etan apustu guztiak jasota, banan-banan sartu behar izan genituen. 22:15ak arte ibili ziren horretan".

INOIZ BAINO IREKIAGOA

Beste edizio batzuetan ez moduan, aurtengo Tourrak ez du faborito garbirik. Hala, lehenengo astean inork ez du aparteko nagusitasun erakutsi, eta Monteko uztetan horrek erakarga-riago egin du proba: "Lauzpabost faborito daude, eta horiek gehienetan apustuetan daude. Irabazoleak, baina, beste ziklista batzuk ondo aukeratu dituelako eskuratu du saria".

Besaideko 31 ordezkarri ibili dira Bizkaiko mendietan

Besaideko mendizaleak Bizkaiko ipar-mendebaleko mendietan ibili ziren joan den asteburuan. Lehenengo Santurtziraino joan, eta herri horri itzal egiten dion Serantes igo zuten. Handik Zierbanara egin zuten, Punta Luzero eta La Arena ere bisitatu. Ez dira mendi garaia, baina paraje ederrak dira. Eta, menditik hondartzara joateko astia ere izan zuten, Arena hondartzara, hain zuzen ere.



Hogeita hamaiaka laguneko koadrila Serantes mendian. BESAIDE

ARRAUNA > EXPO 2008

Amaia Doyague txapeldun, Gipuzkoako traineruan

Bizkaiko neskak hartu zitzutzen mendean Expon egindako arraun txapelketan

X.U. > ARRASATE
 Gipuzkoako eta Bizkaiko traineruak zein baino zein gehiago izan ziren ekainaren 29an Ebroko uretan, Expon. Hain zuzen, Euskadiren egunean lehiatu ziren bi traineru horiek, eta Gipuzkoako arraunlarien artean zegoen Amaia Doyague arrasatearra. Hala, gipuzkoarrak izan zen txapelketa, 20 segundoko aldearekin nagusitu ziren-eta.

'HASIERA BAINO EZ DA'
 Orain arte batelean lehiatu da Doyague, baina traineruetan emakumezkoek geroago eta pre-

sentzia handiagoa izateko lanean dabiltza: "Expoko txapelketak emakumezkoen arraunari bultzada emateko balio izan zuela uste dut, Euskal Telebistan ere bota zuten-eta. Horren harira, irailean Kontxako Bandera emakumezkoak ere jokatuko dugu; gizonetako domekan lehiatzen badira guk zapaturan jardungo dugu; oso berezia izango da".

Bistan dago emakumezkoak kirol horretan finkatzeko lorpen handia izango dela Kontxan lehiatzea, eta liga txapelketa sortzea da beste helburuetako bat. Lehenago, Tolosan bizi den arraunlari arrasatearrak baditu beste hitzordu batzuk: "Datorren uztailaren 23an Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dugu Donostian, eta hilaren 31n Lekeitio izango gara, Euskadiko Txapelketan".



Amaia Doyague, beheko ilaran, eskuinetik bigarrena.

EGUZKINÉ

> UDALEKUAK
Arizmendiko 29 gazte abiaturako dira hilaren 16an Euskal Herriari itzulia bizikletan egitera

Aurreko urteotan Arizmendiko neska-mutikoak Donejakue bidea egitera animatu izan dira uztailoko udalekuetan. Aurten, baina, bizikletak hartu eta Euskal Herriari emango diote itzulia, hilaren 16an intenda.

Guztira 29 neska-mutikoz osatutako taldea izango da. Mendi-bizikletak hartu, eta Hondarribian hasiko dute ibilbidea. Handik Iparraldera egingo dute –besteak beste, Iparraldeko ikastole-tako ikasleekin hartu-emanetan ibiltzea dute helburu-, baina Iparraldean zehar ez ezik, Nafarroa aldean ere ibiliko dira gazteok. Aurreratu moduan, Hondarribian hasiko dute bidaia, eta Arrasateraino etorriko dira bizikleta gainean.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

BASATI TABERNA

943 711768

KUBA

- Habana egonaldia 9 egun / 7 gau - Presidente hotela 699 € OG
Irteera egunak: uztailak 10, 12, 15 eta 17
- Habana Ostatua + gosaria (3 gau) + Varadero DENA BARNE (4 gau) 699 €
Irteera egunak: uztailak 10, 12, 15 eta 17

FUERTEVENTURA 399 €

9 egun / 7 gau DENA BARNE

- Apartamentos Oasis Village - Papagayo
Irteera eguna: uztailak 19

MAIA ERIBERA 945 €

9 egun / 7 gau DENA BARNE

- Blue Bay Grand Esmeralda
Irteera egunak: abuztuak 1, 8, 10, 12, 15, 17, 22 eta 24

PUNTA CANA 899 €

9 egun / 7 gau DENA BARNE

- Carabela Bavaro Hotel
Irteera egunak: 1, 5, 8, 12, 15, 19, 22 eta 26

TUNISIA 9 egun / 7 gau Abuztuan

- Vincci El Kantaoui Center. ME 656 €
- Orient Palace. Dena barne 743 €

Eta askoz
eskaintza gehiago!
Oraindik badago
oporetan prezio onean
joateko aukerarik.



Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA
marsans viajes
ARRASATE BIDAIAK • Kontzeziño kalea 12 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es

Oharrak: tasak, erregai eta zigilu marka
ez daude barruan.
OG: Ohea eta gosaria
ME: Mantenu erdia

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriozt 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL
ARETXABAleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK
AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABAleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABAleta / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK
JESÚS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ASEGURUAK
GOIENA ASEGURUAK
ARRASATE / Antso Abarka 6
T: 943 79 59 81
F: 943 79 39 18
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65
F: 943 76 40 37
goiena@goienaaseguruak.com

EKONOMISTAK

ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBAARRIA
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, beheha
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK
URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuarte esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK
EGUREN
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK
JOSE M. BARRIOLA ETXEBAERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Agurne Barruso > Bergarako alkatea

"Alor askotan ez dago planifikaziorik eginda, eta horretan dihardugu gehienbat"

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Datorren eguztenean 13 hilabete beteko ditu Agurne Barrusok alkate lanean. Dio Udal Gobernuak orain arte ilusioarekin egin duela lan eta horrela jarraitzeko asmoa duela. Datorren asteko GOIENKARIAn, udalbatza osatzen duten gainerako alderdien balorazioak jasoko ditugu.

Zer moduzko urtea izan da?

Intentsua izan da. Herrian urte garrantzitsua izan da, momentu gazi-gozoekin. Adibidez, ikastetxeen aferak eragin handia izan du herrian eta Plan Orokorraren plangintzak ere momentu tentsuak izan ditu. Bestalde, Euskal Herri osoan ere urte gogorra izan da.

Ikastetxeei dagokienez, zein puntutan dago auzi hori?

Aste Santua eta gero, behin-behineko irtenbidea eman zitzaion: San Martin de Agirre ikastetxeko gela batzuk Martinez de Iralan jartzea. Orain, Hezkuntza Saileko ordezkaritzak Bergarako epe luzerako planifikazioa aurkezteko zain gaude. Ea urri erdialderako ekartzen duten.

Plan Orokorra uztailean onartu gura duzue?

Hasierako onarprena eginda zegoen eta guk alegazioak aurkezteko epea luzatu genuen. Aldaketa garrantzitsuak sartu ditugu eta berriz hasierako onarprena egin behar zaio. Hil honetan egin gura dugu. Alegazioak jartzeko epea zabalduko da gero berriz.

Zabalotegiko errempidea ez sartzea da aldaketa bat. Zergatik?

Udal Gobernuan gauden bi alderdiok lehen ere esan genuen ez gaudela errempide horrek ados. Errepide hori egiteko berdeguneei kendu behar zitzaion aprobetxamendua, Mariaren Lagundian eta Errekalden, eta, auzotarren beste arrazoi batzuekin batera, ez sartzea pentsatu dugu. Berez, errempide horrek duen helburuarekin bat gatoz, alde zaharra oinezkoendako utzi



Agurne Barruso, udaletxean duen bulegoan.

XABIER URTZELAI

gura dugu guk ere, baina pentsatzen dugu beste bide batzuk jorratu behar direla, horrelako kalteak egin barik.

Aztertu duzue alternatibarik?

Mugikortasunaren azterketa egin da eta alternatibak bilatzeko prozesuan gaude; udazkenako bukatuko da. Ikuksiko dugu Bideberri zabaltzea nahikoa den edo ez mugikortasuna arintzeko eta alde zaharra libratzeko.

Zein puntutan dago Seminarioaren berrantolaketa?

UNED Arrizuriaga jauregira doa eta hori gestionatzen ari gara orain Patronatukook, Udal barne; udazken aldera jakingo dugu horren emaitza ere.

A ze udazkena datorren, e?

Bai. Urte honetan izan dugun beste konstatazio bat da Udal

"Zabalotegiko errempidea ez dugu sartu Plan Orokorean; alternatibak aztertu behar ditugu"

"Urratsak eman behar ditugu herritarren partaidetza sistematikoa izateko"

"Dimisioen mozioak, politikoki, iragan eta gero bat markatu duela uste dut"

honek oso alor gutxitan egin due-la planifikazioa, eta ikusi dugu alor askotan planifikazioa bera dela egin beharreko lehenengo gauza: etorkinekin, emakumearekin, kulturarekin edo finantzazioarekin, adibidez. Gure ustez, oso garrantzitsua da gestioak planifikazio baten arabera egitea, eta ez momentuan sortzen diren egoeren arabera. Pasa dugun urtea eta datorrena planifikazioan zentratuko dira asko.

Etxebizitza sozialak aurreikusten dituzue?

Administrazioak bultzatutakoak aurrera doaz. Artabillaren inguruko eta Algodonerako proiektuak Plan Orokorraren onarparen zain daude.

Lortu duzue herritarren parte hartzeari eta iritzia jasotzea?

Oraindik ere Udalak urra-

tsak eman behar ditu sistematikoagoa izateko, baina hasitako bidea oso ondo baloratzen dugu.

Ze proiektu dituzue orain esku artean?

Adibidez, agintaldirako plana diseinatzen gabiltza. Alor politikoan gobernuak bere ideiak finkatu ditu eta orain asmoa da Udaleko teknikariekin kontrastatzea eta gainerako alderdiei euren iritzia eskatzea.

Ze harreman duzue alderdiekin?

Batzordeak zabalik dituzte. Saiatu gara beti proposamenak beste inori baino lehenago eurei helarazten. Elkarlanerako eskaintzak egin ditugu, baina jaso dugun erantzuna ez da elkarlanerakoia izan. Politikoki, dimisioen mozioak iragan eta gero bat markatu duela uste dut.

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Egunerojan janariak
Txitzizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrea 13 beheea. Bergara
943 76 55 00

bere ustez



Von Suinaga

Futbola ahaztu eta ziklismora pasa

R ealekoa izanez gero, poz gutxi eta nahigabe asko jasotzen dituzu. Azken urteak hondamen bat bestearen atzetik izan dira eta gaurko egoerak beldurra ematen du. Futbolarekin jarraituz, Realeko atsekabeak gutxi balira, Espainiak Eurokopa irabazi du. Beraz, hobe futbola ahaztu eta txirrindularitza pasatzea.

Txirrindularitzak zorigaitzoko azken urteotan kolpe gogorrak jaso ditu; baina pixkanaka urak bere ibilbidea itzultzen ari dira. Bidean

"Munduko lasterketa garrantzitsuenak Alberto Contador kanpoan utzi du"

izen ezagun asko gelditu dira: Vinokourov, Mayo, Saiz, Ullrich, Beloki eta abar. Batzuk errudunak, eta besteak... Auskalo!

Aurten Contadorrek lortutako garaipenak ikaragarriak izan dira, baita Euskaltelek Dauphinien egindako lana ere, halaber Boonen edo Valverdearen erakustaldiak klasikoeitan. Itxaropentsua izan da Igor Antonek Suitzako itzulian egin duena. Orain Frantziako Tourra martxan da. Munduko lasterketa garrantzitsuenak Alberto Contador kanpoan utzi du. Gaur egungo txapeldun handiena eta Gorlan irabazlea izandakoa. Ze akatsa Tourreko antolatzaleena. Bainoa ea, goza dezagun Valverde, Evans, Zubeldia eta konpainiarekin. Nork eramango du aurten Lokatzako porra?

JAIAK > AUZOETAKO JAIAK

Santamaiña eta San Kristobal auzoetan hainbat ekitaldi asteburu guztian

Zinema, Udal Musika Bandaren kontzertua, erromeria eta meza besteak beste, asteburu honetako auzoko jaietan

J.Z. > BERGARA Asteberu honetan auzoetako jaiak aurrera jarraitzen dute. Horrela, Santamaiñako jaien barruan, gaur goizean 12:00etan etxafuegoak eta kanpai hotsek jaiei hasiera emango diote.

Arratsaldean, zinema egongo da Agorrosingo ekintza gunean, 20:00etatik 22:00etara. Horrela, umeendako *Nocturna* euskalrazko marrazki bizidunak emango dituzte. Ondoren, 22:00etan, *Eutsi!* filma eskaimiko dute.

Domekan, berriz, 09:00etan, Udal Txistularien kalejira egongo da; ondoren, 11:00etan, Bergarako Udal Musika Bandaren kalejira, eta 12:30ean, Udal Musika Bandaren kontzertua Udal Pilotalekuaren. Guztira

Alfredo Gonzalez Chirlaquearen zuzendaritzapean, sei lan eskainiko dituzte: *Antzuolako Doinuak*, Alfredo Gonzalez Chirlaquerena; *Ballet Parisien*, J. Offenbachena; *Ballata Della Tromba*, F. Pisanorena; *Raquel*, M. Gonzalez Bastidarena; *Noah's Ark*, B. Appermontena eta *American Beauties*, N. Iwarena.

SAN KRISTOBALEKO JAIAK

Aldai-Egia auzoan ospatzen diren San Kristobal jaien egitarauaren barruan, berriz, bihar, zapatua, gaelean erromeria egongo da 23:00etatik aurrera, Izer, Alabier eta Lutxurdioarekin, goizalderarte.

Domekan, berriz, eguerdiako 12:00etan, meza nagusia izango da San Kristobaleko ermitan; ondoren, autoen bedeinkapena egindo dute, urteroko ohiturari jarraiki, eta jarraian, auzoko erretiratuendako lurcha egongo da; aldi berean, Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia. Ordu berean, haurrendako kukainak ere egongo dira. Goiz guztian zehar musika egongo da giroa alaitzeko.



JJ Band Jose Juan Martinez, taldeko baxu jolea.

KULTURA SAILA

MUSIKA > ESPOLOIKO KONTZERTUAK

Ahots flamenko-afrikarra eta jazz musika, gaur gauerako

Uztaileko Espoloiko musika kontzertuen barruan, gaurkoa bigarrena izango da

JASONE ZABALA > BERGARA

Gaur gaelean, Espoloiko eszenatokia soinu andaluziarrekin beteko da. Hango kioskoan, 22:30ean, JJ Band talde andaluziarra arituko da *Tangos de Lavapiés* ikuskizuna eskaintzen, ahots flamenko-afrikarra eta jazz musika uztartuaz.

MESTIZIA ETA KULTURA

Horren guztiaren ardatza Jose Juan Martinez baxu jolea da, eskarmiento handiko musikari andaluziarra, Malagakoa, hain zuen ere. Radio Tarifa, El Cigala, Nina Pastori edo Triana bezalako artistekin jotakoa da. *Tangos de Lavapiés* ikuskizunak Madrilgo Lavapiés auzoan du jatorria, hango mestiza eta kultura desberdinak. Ikuskizunak hainbat estilotan barrena egiten du bidaia, ahotsarekin nahasirik, jazz moldeen barruan. Musikari ahotsa Obanee Enayak jarriko dio.

IKUSKIZUNA > ZIRIKA ZIRKUS

Errespetua lantzko zirku tailerrak

Adin guztiei zuzenduta dago; zirkuan erabiltzen diren materialekin jolasak egingo dituzte

J.Z. > BERGARA

Bihar arratsaldean, Zirika Zirkus talde iruñearrärekin zirku tailerrak egongo dira, 18:00etan Muniplazan.

ERRESPETUA BULTZATZEA

Talde Nafarra, Ainhoa Juanis eta Luis Lainezek osatzen dute. Tailor hauetarako, baina, begiraleak ere egoten dira. Biharko tailerrak bi orduko iraupena izango du, eta helburu nagusia zirkuko elementuak ezagutzea eta oinarritzko tek-

nikak ulertzea izango da; hala nola, oreka, koordinazioa eta lateralitatea, beti errespetuarekin, eta lehiakortasuna sustatu gabe.

Adin guztiei zuzendutako tailerrak izango dira, eta zirkuan erabiltzen diren hainbat tresnarekin jolas ezberdinak egingo dituzte. "Tailor hauetan, ondo pasatzea lortu nahi da; egon daitezkeen beldurrei aurre egiten ikasi, eta norberak bere buruarekin duen lehiakortasuna bultzatu", Juanisek adierazi digunez.



Errespetua Zirika Zirkus taldearen ardatzetako bat.

ZIRIKA ZIRKUS

Kayak Taberna

Abuztuan eguneko menua

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behe • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarrekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

SASKIBALOIA > HIRUNAKO TXAPELKETA SAN MARTIN PLAZAN

Saskibaloia kalera ateratzeko asmoz, Hirunako Txapelketa bihar eta etzi

Dagoeneko 40 taldek eman dute bihar egingo duten saskibaloi txapelketarako izena, baina gaur ere izena ematea dago

XABIER URTZELAI > BERGARA
Eguaztenean aurkeztu zuen Bergarako Saskibaloitza asteburuan egingo duten hirunako txapelketa. Eta aurkezpenean izan ziren klubeko ordezkariak, TAU Baskoniako jokalari Ander Gartzia -txapelketan parte hartuko du- eta Bruesa GBC taldeko gerente German Lea. Txapelketaren helburua garbia, herrian saskibaloia sustatzea, eta horretarako bitarteko guztiak jartzen ari dira, ahalegin handia eginda: "Kalean jendeak galdetzen zigun ea Bergaran saskibaloik jarraitzen ote zuen edo ez, eta hori ikusita zerbait egiteko beharra ikusi genuen. Horrekin batera, herriko taldeek bultzada behar zuten, eta kategoria txikiatarra jokalaria erakarri", adierazi zuen eguzteneko prentsurrekoan taldeko ordezkari Jokin Perez.

Klubaren kudeaketaren arduera, baina, lagun gutxi batzuen eskuetan zegoen, eta orain, gura-



Hirunako saskibaloitza txapelketako antolatzaile eta babesleak, eguztenean, Lasa jatetxearen lorategian.

ENEKO AZKARATE

soen implikazioa lortuta, asteburuko hitzordua gertatzen burubarri dabilta: "Bihar 10:00etan hasiko da txapelketa, San Martin Plazan. Argi geneukan txapelketa pilotaleku edo plazan egin behar genuela, herritarren aurrean". Hala, plazan jarriko dituzte sei kanasta: "Asteburu osoan

zehar izango dira partiduak, zapaturan egun osoan eta domeka eguerdira arte".

SARI POTOLOAK

Antolatzaileek onartu zuten hasieran aurreikusi baino talde gutxiagok eman dutela izena, eta hala ere, uztaila izateko 40 talde batzear

zenbateko pilotak da. Dena dela, izena emateko epea luzatu egin dute, eta txapelketan parte hartzeko gogoa duen edonork -kategoria mordoa daude- gaur ere izena emateko astia izango du: www.saskibaloia-bergara.spaces.live.com helbidean. Hala, gazte mailatik beherako kategorietan ibarreko

taldeek hartuko dute esku, baina elite mailan, Euskal Herri osoko taldeek hartuko dute esku. Badute, gainera, Bergarako etortzeko motiboa, sari ederrak batu dituzte-eta: "Kontuan haritu Zarauzko torneoa dela maila honetan egiten den txapelketa handienetakoak, eta han irabazleek 250 euro irabazten dituzte. Gurean, berriz, elite mailako txapeldunek -bai gizonezkoeitan eta baita emakumezkoetan- garaikurrekin batera 500 euro poltsikoratuko dituzte".

Bistan da gaztetxoen artean saskibaloia sustatzea dela garrantzitsuena, baina seniorretako elite mailan izango diren sariekin, aurreikus daiteke kategoria horietan izena eman duten 18 taldeek ikuskizuna eskainiko dutela.

SASKIBALOIA GUREAN BIZIRIK

San Martin plazan egingo duten muntaia horrek erakutsiko du saskibaloia erakutsiko duela Bergaran, baina ez Bergaran bakarrik, eguzteneko ageraldian Eskoriatzako taldeko presidente Manolo Muñozek onartu moduan, ibarreko saskibaloaren alde egiteko bertako klubek batera egin behar dute- eta lan. Eta ondo daki hori Muñozek, Eskoriatzako nesken taldea -edo Arrasateko senior mailako MU- debagoiendarrez osatuta dagoelako.



**AZKARATE
AROZTEGIA**
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

**Arotz lanetan behar
duzun guztia**
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Fax: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreileenak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untzia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

BERGARA
Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com




DRAGON ORIENTAL
Jatetxea

Lokal klimatizatua
Egunero zabalk
WI-FI GUNEA

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

SANTAMAIÑAK 2008



Uztailak 11, ostirala.

12:00etan: Etxafuegoak eta kanpai hotsak jaiei hasiera emateko.

19:30ean: Umeendako ZINEA Agorrosinen. *NOCTURNA* filma (marrazki bizidunak euskaraz).

22:00etan: Nagusiendako ZINEA Agorrosinen. *EUTSII* filma.

Uztailak 13, igandea

09:45ean: Udal Txistularien KALEJIRA

11:00etan: Bergarako Udal Musika Bandaren KALEJIRA

12:30ean: Bergarako Udal Musika Bandaren KONTZERTUA frontoian

Uztailak 18, ostirala. SANTA MARINA eguna

10:30ean: Umeentzako KUKAÑAK, poniak eta zezentxoak, San Martin herri eskolan.

19:00etan: MEZA. Eliza Nagusian Meza ondoren, ARITZETA Abesbatzaren KONTZERTUA.

19:00etan: XVI. BOCCIA txapelketa.

22:30etatik goizalderarte: DISKO-FESTA Matxiategin.

Uztailak 19, larunbata. JUBILATUEN eguna

10:30ean: Aitonetan, XX. IBILALDI NEURTUA jubilatuentzat.

16:00etan: TXIRRINDULARITZA, Santamarinako XVII. SARIA

16:30ean: AITONETAN: tute, mus, briska, toka, rana, bolo eta billar finalak jokatuko dira.
Ondoren, Aitonetan SARI banaketa.

Ondo pasau Santamaiñetan!

Eskerrik asko laguntzaile guztiei!

Jai batzordea.

PIKULITXA Roots 2008

DANTZA ETA SENTIMENTU JAJA

Afariak • Ogitardekoak • Pintxoak

Aurrez deitu 627 81 82 12 telefonora

bihotzez pailazoak

armiarma (euskaraz herriko flamenco)

z-marhaba (sabel dantza)

ras reguilón & riddim Family band

dingwash

UZTAILAK 19, LARUNBATA, ARRATSALDEKO TETAN HASTA

GORLAKO ZELAETAN, KANTINAN, ELOSU GANDEAN, BERGARA ETA AZKOTIA BITARTEAN

GORLAKO KANTINA zabalik!

martitzenetik igandera

12:00etatik itxi arte
jaiegunetan 10:30etatik
astelehenetan itxita

ogitardekoak

•

pintxoak

•

plater konbinatuak

•

eguneko menua

•

karta

Harremanetarako telefonoa:
627 81 82 12

Inaxio Garro > Alkatea

"Lau urterako udal programa osatu dugu eta proiektuak abian jartzen gabiltza"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
 Enpresa mundutik eterri zen Udalera, eta ez zuen inolako esperientziarik. Lehen hilabeteak zailak izan zirela onartu du. Orain, neurria hartu dio lanari, eta pozik dago egindakoarekin, batez ere, herritarra gustura igartzen dituelako.

Zelakoa izan da urtea?

Entretenituta egon gara. Hasiera gogorra izan zen, baina behin neurria hartuta eta aurreko agintalditik zetozenten proiektuak ezagututa, hartu dugu marta. Arazoak egunero daude, baina bideratzeko modukoak dira.

Aurreko agintalditik zetozenten proiektuak bakarrik daudela abian esan izan dizuete.

Bai, halako diskurtsoa entzun genuen aurrekontua onartu genuenean, eta egia da proiektu eta partida batzuek lehendik zetozenten lotura zuzena dutela, baina, errespetuz, ez ditugu zakarrontzira bota. Horren atzetik lan mardula dago, eta jarraipena ematea ez dago txarto. Hala ere, geure udal programa osatu dugu lau urterako, eta horko proiektuekin gabiltza.

Zeintzuk dira programa horren ardatzak?

Herriaren beharrak eta hutsuneak jaso ditugu. Zein aurretan? Gizarte ongizatean, herrian drogaren kontsumoak gora egin du eta kezka iturri handia da. Hiru hilabekoa diagnostikoa egingo da irailean hasita, eta 2009 eta 2010erako kale hezitzaile figura sortu gura dugu. Bestalde, emakumearen aldeko



Inaxio Garro udaletxeko sarreran.

Gure herriak 10 urte barru zelakoa izan behar duen landu duzue. Zelakoa izango da Aretxabaleta?

Herriarrekin egindako lanak urrian hasi eta Gabonak arte iraun zuen eta 80 batek hartu zuten parte. Oso implikatuta ikusi nituen eta gogotik lan egin ostean txosten mardula jaso genuen. Orain, debatea maila politikora eroatea falta da. Aurrerakina aztertu eta lantzen hasita gaude, baina pauso gehiago ematea komeni da; oporen aurretik gurako genuke eman.

Legez kanpo zegoen EAE-ANV irabazi zituen hauteskundeak, eta orduan hitzarmen bat sinatu zenuten. Urtebetear ostean zelan dago kontua?

EA, EAE-ANV eta Aralar elkarlanean ibili ginen lehen hilabeteetan, eta hitzarmena sinatu. Baina gero ez genuen asmatu aurrera eroaten. Orain, demaseko harremanik ez dago, 2008an lau bilera egin ditugu neuk deitura EAE-ANVrekin, baina garbi ikusiten dugu ezker abertzaleak baduela zeresana eta zer eskainia herri honetan. Horregatik, legeak eskainitako zirrikitu guztiak aprobetxatu behar direla pentsatzen jarraitzen dut.

Eta gainerako alderdikideekin zelako lan giroa dago?

Bi bloke tinko daude: Udal Gobernua osatzen dugunok eta oposizioan daudenak. Oposizioa bai, baina eraikitzailea gurako nuke. Baten baten aldetik ez dago gogo handirik eta dena da kritika ezer eskaini barik.

programa dabilta lantzen. Euskalaren alorrean orain dela zazpi bat urte erabaki zuen Udalak Euskara Biziberritzeko Plana onartzea, eta lehendik martxan zeuden hizkuntza irizpideak berriku eta osatu ditugu. Kirol etxe berria esku artean dugu, datorren hilean botako dute eta irailean eraikitzen hasi. Herritarrei Udaleko informazioa gerturatu gura diegu, eta horregatik Arrata aldiakaria sortu dugu.

"Premia asko daude: osasun etxe berria, industrialdea parke enpresarial bihurtu..."

"EA, EAE-ANV eta Aralarrek sinatutako hitzarmena aurrera eroaten ez dugu asmatu"

Eta herriak zein premia ditu?

Premia asko daude: osasun etxe berria behar dugu, Kurtzebarri eskolaren egoera ez da ona -kokapen txarra eta espazio falta-, Pausoka haur eskola txiki geratu da, orain dela 27 bat sortutako industrialdeari beste buelta bat eman eta nolabait parke enpresarial bihurtu behar dugu. Industria kutsakorrak -atmosfera, zarata...- herritik kanpora atera behar dira.

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOAK

EA

"Industrialdea enpresa-parke bihurtuko dugu"

"Balorazioa positiboa da. Agintaldi hasiera ez zen erraza izan, EAEkoak Udaleko lanean integratzeko ahalegina egin genuen, baina ezinezkoa izan zen. Gure programan adierazi genuen moduan, *biziberritu* helburuaz proiektu ezberdinak egin ditugu agintaldi honetan. Kultura, merkatari... sustatuko dituzten programak eraman ditugu aurreira eta epe luzerako ikuspuntuaz planteatu ditugu beste batzuk. Esate baterako, industrialdea parke enpresarial bihurtzea, agintaldi honetan hasi eta hurrengoetan bukatuko dena, etorkizuneko Aretxabaleta kalitatezko herri bilakatzeko".

EAJ

"Egiazko kolaborazioa eskaini diogu gobernuari"

"Ekimen gutxi, ez esatearren bat ere ez, Udal Gobernua garatzen ari dena. Batzuek esango duzue mugimendurik ez dela falta herrian, baina aurretik datozen ekimenak dira, aurreko agintaldian onartuak. Ekimen falta handia sumatzen dugu: Udal Gobernuak ez dio behar duen jarraipenik egiten Plan Orokorrari, Urkulun utzikerria da nagusi, kultura etxearen dinamizaziorako prozedura eska-sa egin da, enpresa garrantzitsuenen beharrei erantzunik ez. Gobernu programari buruz gutxi dakigu, eta Elkarbizitzarako Planari buruz ezer ez. EAJ-PNVk egiazko kolaborazioa eskaini dio; erantzuna, osteria, eskasa izan da".

PSE-EE

"Batzordeetan ez dira lehen mailako gaiak lantzen"

"Agintaldia txarto hasi zen. Hiru alderdik (Aralar, EA eta EAJ) ez zuten zinegotzi bat bereganatu; beraz, 13 beharrean 10 ditu Udalak. Anormaltasun sintoma da. PSE-EEko zinegotziek isekak jasan ditugu osoko bilkuretan. Aralar eta EAk ANVkoekin *Normalkuntza eta Bake Hitzarmena* deitua sinatu zuten, gure alderdia baztertz; beraz, aretxabaletar ugari baztertz. Batzordeetan ez dira lehen mailako gaiak lantzen; ondorioz, osoko bilkura askotan gaiak kendu izan behar dituzte horregatik edota gobernuak ez dituelako garbi gaiak. Aurrekontuak denboraz kanpo onartuak, sozialisten ekar-penei jaramonik egin gabe".

EZKER BATUA-BERDEAK

"Argi-ilunekin beteta dago lehen urteko kudeaketa"

"Hauteskunde osteko hilabeteetan *geldi* egon zen Udala, ezker abertzalearekin adostasunak lortu guran ibili zelako, eta azkenean ez zen ezertan gauzatu. Aurrekontuari dagokionez, positiboki baloratzen ditugu egindako negoziazioak, eta EB-Berdeen proposamenak sartu zituzten, herri justuagoa eta sozialagoa lortzeko. Norabide egokian zihoazela uste dugu; hala ere, aurrerakoia gauzatu zitezkeen gai sozialetan. Baina Udal Zerbitzuak azpikontratzea oso negatiboa dela deritzogu. Horregatik, argi-ilunekin beteta dago lehen urteko kudeaketa. Eta guk aretxabaletarren alde lanean jarraituko dugu".

KARGURIK GABEKO HAUTETSIAK

"Ezaugarririk nabarmenena demokrazia falta da"

"Urtebete hasitako agintaldia baloratzean, nahi eta ez, demokrazia falta aipatu behar da. Udalbatza honen ezaugarririk nabarmenena demokrazia faltarea da, bere osaera aretxabaletarron borondadea islatzen ez duelako.

Gestioari lotuta, gehien kezkatzen gaituen gaia kultura etxearena da: alde batetik, bukaerak izan duen azalpenik gabeko atzerapena; eta bestetik, aukeratu den kudeaketa eredu. Larria deritzogu, gainera, lehen saiakerak huts egin eta gero bere horretan tematzeari. Egia ote da, gobernu osatzen duten alderdietako baten kideak esan omen zuen moduan, herri-kulturaren alde ez daudela?"

Goienkaria

2008ko uztailaren 11 / GOIENKARIaren ARGITALPEN BEREZIA / Arduraduna: Iker Barandiaran / Maketazioa: Oxel Arrieta / Publizitatea: Ziortha Martin



ARGAZKILARIA: GOIENKARIA

Doitasunezko
trokelak



ELAY Taldea

Zerbitzuak
ELAY, S.L.

Ebaketa zehatza
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.

**Gainmoldaketak
eta tratamenduak**
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.



alkatearen agurra

Pedro Iturbe

Ondo pasatu Antzuolako jaiak!

Ezgunak joan, egunak etorri, berriz ere jaietan dugu Antzuola. Urteak konturu gabe pasatzen direla esan ohi dugu sarri, baina eguneroko lanek hamaika buruhauste, hamaika neke eta hamaika sentazio gazi-gozo sortzen dizkigute; eta hortarra dato zaiak, guztiak bizipen eta esperientziak koktela etxean utzi eta gozamenari aukera emateko.

Jaiak sekula ez dira berdinak, egunak ere sekula ez diren bezala; beti dugu esperien-

tzia berriren bat bidean eta jaiak horrertarako aproposak dira. Adin ezberdinak nahasturik, herritarren arteko harremanak sendotzeko balio dezake jaiak, elkarbizitzarako jolas eta tresna bilakatuz. Beraz, irriak eta negarrak, besarkadak, dantzak eta jolasak, guztiak elikatzeko eta edateko parada izango dugu jaietan. Gazte izanda ere, hor ditugu probatzeko hainbat sentsazio, gaupsa dela, sexu harremanak direla, musika eta dantza, alkohol eta drogen eremuan. Auke-

ra guztiak kalean izanik, zentzu eta arduraz bizi beharrekoak, guztiak eskatzen duten normaltasun eta errespetuz bideratu eta jorratu beharrekoak.

Azkenik, aurten ere elkartasun biziz jantzi nahi nuke agurra, jaiak gozatzeko nahiarren eta ezinaren esperientziak bizi diren guztiak besarkada beroena, gaixotasunen bat eduki jaiez disfrutatu ezingo duten herrirei eta bide batez hainbeste urtetan erbestean duten Eltzikortari ere. Ondo pasatu jaiak!

argazki zaharra



Ijitoak jaietara joaten zirenekoak

Ez dira benetako ijitoak, baina hala dirudite. 70eko hamarkada bukaeran Antzuolako koadrila bateko kideak parrandan zeudela erabaki zuten biharamunean ijito mozorrotuta irtetea; eta hala egin zuten.

Ezkerretik eskumara, zutik: Bartolome Larza *Correcaminos*; jarrita: Jorge Colominas, Aurora, Iñaki Lete, Carmen Egaña, Santi Iturbe eta Txomin.

Umeak, berriz, honako hauek dira: Mirentxu Amosarrain, Bartolomeen alaba, Mirari Lete, Alexander Lete eta Garikoitz Lete.

Gurdian dagoena Sergio Colominas da.

Bitxia da ez 70eko hamarkada bukaeran ezta orain ere ez dagoelako mozorrotzeo ohiturarik.

Argazkia: Txomin.

Urtea: 1978

Testua: Iker Barandiaran.

Nelea

Zorionak antzuolar guztoi!

659 57 50 97

Kalebarren 13 ANTZUOLA

ANTZUOLAKO



HERRITAR GUZTIAK ZORIONDU NAHI LITUZKE,
ETA PIEDADE JAI ATSEGINAK IZAN DITZAZUELA

Itzar
LIBURU DENDA
ESTANKOA
ZORIONAK!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxa: 943 76 60 62



Kalebarren 1, Antzuola.
943 76 64 84

HARATEGIAK

*Mari Kruz eta Juan Joxek
jai zoriontsuak
opa dizkizuete
antzuolar guztoi!*



Komenio kalea 2, Bergara.
943 76 10 72

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Eguena, 17

11:00 UMEENDAKO JOLASAK udaleku irekietako begiraleekin, plazan.
12:00 UMEEN KARAOKEA Herriko plazan.
14:00 UMEEN HERRI BAZKARIA, plazan.
15:00 UMEENDAKO JOLASAK Herriko plazan.
18:00 TXUPINAZOA. Txistulari, trikitilar eta buruhandiekin kalejira.
18:30 KALEJIRA herriko txistulari, trikitilar gazte eta buruhandiekin.
19:00 TXOSNAK zabalzea Zurrategin.
19:30 SALBEA. Antzuolako abesbatzak Arrueren Salbea kantatuko du.
20:15 Oinarineko umeekin IKURRIN DANTZA, eta Udalbatzaren aurrekua, Oinarineko dantzariekin.
20:30 Txupinazoa, kanpaiak eta udalbatzaren dantza saioa, plazan.
22:00 EUSKODISKOTEKA.
23:15 SUZKO ZEZENA. Herriko Plazatik abiatuko da.
23:30 HONTZAREN JAITSIERA kanpandorretik.
00:00 EUSKODISKOTEKA.

Egubakoitza, 18

09:55 SUZIRIAREN JAURTIKETA eta txistularien GOIZ ERESIA.
11:00 Umeendako JOLAS PARKEA.
11:30 MEZA NAGUSIA.
11:30 Antzuolako I. MARMITAKO LEHIAKETA pilotaleku txikian.
13:00 Marmitako lehiaketaren SARI BANAKETA.
13:15 Marmitako banatuko zaie gerturatutakoei.
16:30-18:30 Umeendako JOLAS PARKEA.
18:30 AFIZIONATUEN PILOTA PARTIDUAK pilotalekuaren. Amantegi-Lopez Vs. Muguruza-Irureta. Onsal-Bengoetxea Vs. Mendizabal-Jauregi.
19:00 KAROLI. Gizon erruberaren ikuszkizuna Herriko plazan.
20:00 Antzuolako trikitilar gaztetxoen kalejira.
23:00 Orots taldearekin berbena Herriko plazan.
23:00 KONTZERTUA Zurrategin, Antzuola eta Zumarragako Klakson, Gasteizko Niet Rocken eta Elorrioko Malo.

Zapatua, 19


09:55 KANOIEN DANBATEKOIA.
11:30 Bergarako Udal Musika Bandaren KALEJIRA.
12:00 Kiki eta Koko pailazoak Herriko plazan.
12:30 Bergarako Udal Musika Bandaren KONTZERTUA.
Lagartijilla
Ballet Parisien
Noah's Ark
Rivieren Cyclus
American Beauties
Antzuolako doinuak
18:30 MAIRUAREN ALARDEA. Salvador Peña mairuari agurra eta omenaldia egingo diote. Gero, Oinarin dantza taldearen DANTZA SAIOA.
20:30 TRIKIPOTEOA herriko trikitilariekin.
21:30 HERRI AFARIA Zurrategin.
23:00 KONTZERTUA Zurrategin: Sospechosos, Never Surrender eta Ipar Haizea.
23:30 SUZKO ZEZENA.
00:00 COCTEL LATINOren kontzertua.
01:00 DJ BULL Zurrategin.

Domeka, 20

11:00 ZESENTXOAK eta PONIAK Zurrategin.
12:30 BERTSOLARIAK Herriko plazan: Amets Arzallus eta Amaia Agirre.
12:30 SALDA emango dute erretratuek.
18:30 BENTAZAHARREKO MUTIL ALAIAK.
19:00 SARDINA JANA eta SAGARDO freskoa Herriko plazan. Batuko duten dirua 2009ko Trikiti Egunerako izango da.
20:15 LARRAIN-DANTZA herritarren eskutik, Herriko Plazan.
20:30 JOSELU ANAIAK Herriko plazan.
00:00 Txosnetako edariak euro baten truke bukatu artean.
00:00 Jaietako AZKEN SUZIRIAK botako dituzte eta herritarrek agur egingo diete jaie datorren urterar arte.
OHARRA: Jaiek irauten duten bitartean jaietako lepoko zapiak salgai egongo dira. Zapiok herriko tabernetan eskuratu ahalko dira 2 eurotan.

Marmitako lehiaketa

Egubakoitzean Antzuolako I. Marmitako Lehiaketa egingo dute pilotaleku txikian. Herrian gastronomia zale asko daude, baina aspaldi ez dute horrelako lehiaketarik antolatu. Hala, herriko hainbat saltserok Udalaren laguntzarekin ekimenarekin aurrera egin dute. Herriko edozein elkartetako kide zein herritarrek esku hartu ahal izango du lehiaketan.



Marmitako egiteko gongidapena.

GOENKARIA

Hontzaren jaitsiera

Hilaren 17an, eguna, 23:30ean, puntu-puntuaren iritsiko da Hontza Antzuolara eta elizako kanpandorretik jaitsiko da hegan, ohitura duen moduan. Orain dela bi urte berreskuratu zuten aspaldiko ekimen hori antzuolarrek, eta herritarrek oso gustuko dute ohitura hori. Aurten, DYAKO ordezkariek izango dute hontzari ongietorria emateko ardura



GOENKARIA

SUKALDERAKO ALTZARIAK
Harizki
Ondo pasau jaixak!

Espezialitatea: haritzezko sukalde errustikoak

ERAOKUSKETA: Zurrategi 4, behea. Tel.: 943 78 71 80 Faxa: 943 78 60 24 e posta: harizki@harizki.com

MOTA GUZTIETAKO
SUKALDEEN PROIEKTUAK
ETA INSTALAZIOAK


IGELTSEROTZA S.L.

Ondo pasau jaixak!

ZAHARBERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak

Kalegoi 9 -1 • ANTZUOLA
Tel./ Faxa: 943 76 60 89 • Sakelekoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51
E-posta: joseluis@zabaloazcarate.e.telefonica.net

ELKARRIZKETA SALVADOR PEÑA ALARDEKO MAIRUA

"Mairua izanda, herritarrek maitasuna hartu didatela uste dut"

IKER BARANDIARAN

Salvador Peña Zaragozan jaio zen orain dela 76 urte, baina 26 urterekin tren bat hartu eta Antzuolara etorri zen bera bakoik. Are gehiago, orain dela 39 urte alardeko mairu izatea eskatu zioten. Aurtengoaz azkeneko aldia izango da.

Aurtengoa mairu moduan egingo duzun azkeneko alardea izango da. Zer dela-eta?

Hala esan zidaten antolatzaileek. Nik beste bi urte jarraitzeko asmoa neukan, baina ulergarria deritzot gazteagoei ere lekua egitea. Aurtengoa mairu jantziko naizen 39. urtea izango da. Dena dela, laster 76 urte beteko ditut eta ditudan urteak igartzen ditut.

Zer eman dizu zuri alardeak?

Oso urte politak izan dira, eta oso ondo pasatu dut. Horrez gain, jende ugari ezagutu dut, eta nik uste dut, mairua izanda, hainbat herritarrek maitasuna hartu didatela, neurri baten.

Zer da zuretzat alardea?

Oso ekitaldi berezia. Gogoan daukat gaztetan ere ekitaldia oso modu berezian bizi genuela, eta kanpotik ere jende asko etortzen zela ikustera.

39 urte dela irten zinen lehenengo aldiz mairu. Zelan gogoratzentzu hasierak?

Nire aurretik *Kaiuka* deitzen zioten gizon bat irteten zen mairu, baina halako baten gaixotu egin zen. Eta orduko alkateak neuri irteteko esan zidan. Neu zur eta lur gelditu nintzen, baina baiezkoa eman nuen... eta gaur arte. Gogoan daukat hasieran oso urduri egoten nintzela, baina gerora, behin plaza irten eta jendea agurtu ostean, lasaitu egiten naiz.

Azken urteotan hausnarketak egin dituzte eta mairuaren irudia duintzeko ahaleginetan dabiltsa. Zer deritzozu?

Beno. Ulertzan dut gure artean bizi diren etorkinetako batzuei ekitaldi hori arraroa egitea. Dena dela, orain dela hainbat urte iraingarriagoa izan zitekeen. Aspaldian beste modu baten egiten dugu.



Salvador Peña 39 alditan irten da Mairuaren Alardean. Aurtengoaz azkenekoa izango da.

GOIENKARIA

"Nik beste bi urte jarraitzeko asmoa neukan, baina ulergarria deritzot antzuolar gazteagoei ere lekua egin nahi izatea"

Zer aholku emango zenioke zure ordezkoari?

Oraindik ez dakit nor izango den, baina zorte onena opa diot, eta urte asko egin ditzala. Horrez

gain, edozer gauzatarako laguntzeko prest nauka.


Zelan bizi dituzu jaiak zuk?

Oso ondo. Dantza suelta eta abestu egiten dut.



Antzuolako udala
www.antzuola.com

**ANTZUOLA
JAIXETAN
ONDO PASA!**



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

KALEBARREN 5

943 76 62 90 ANTZUOLA

**Zorionak
antzuolar
guztioi!**

OINARIN DANTZA TALDEA

Dantza ekitaldi ugari egingo dituzte

Ikasle gazteenek lehenengo aldiz egingo dute dantza dantzari jantzita

IKER BARANDIARAN

Ikasle gaztetxoeneak, herritarrek eta Oinarin dantza taldeko kideek, guztiak, izango dute jaietan jendaurrean dantza egiteko aukera hainbat ekitalditan

Herriko Oinarin taldea da Antzuolako dantza ekitaldien erantzulea. Talde horrek urte ugari darama lanean eta orain dela 14 urte jarri zioten Oinarin izena. Ume, gazte eta helduez osaturik dago eta 100 bat dantzari ditu gaur egun.

Eguenean dantza taldeko ikasle gaztetxoeneak ikurrin dantza egingo dute 20:15ean. Hala, aurten dantza ikasten hasi diren 6 eta 8 urte bitarteko 30 bat ume iztengo dira plazara. Dantza erraza egingo dute ilarratan, lau taldetan banatuta. Erdian dantzari heldu batek esku hartuko du ikurrina eskutan duela.

Bukaieran ume dantzari guztiak makurtu eta ikurrina euren gainetik pasatuko dute.

LEHENENGOZ DANTZARI
Ekitaldi hori izaten da ume horiek dantzan irteten diren lehenengo aldia. Aurretik, Aratusteetan ere dantza egiten dute, baina



Zapatuan oinarin taldekoek trokeo dantzak egingo dituzte. Argazkian zinta dantza.

GOIENKARIA

ez dantzari jantzita, mozo-rrotuta baizik. Neskatilek, gainera, jantzi berriak estreinatuko dituzte.

TROKEO ETA LARRAIN DANTZA
Bestalde, azkeneko bi urteotan Oinarinek gura duten herritarrei ikastaroa ema-

ten die, eta domekan herri-tarrak plazara irteten dira dantza egitera.

Horrez gain, zapatuan, Mairuaren Alardearen ostean, Oinarineko kideek trokeo dantza egingo dute, herriko ezaugarri bereziak dituena.

Zinegotziak eta alkatea, dantzan

Aspaldiko ohitura da egunean Antzuolako bandera eta ikurrina jaso ostean, udalbatzaren aurreskua egitea.

Hala, udal ordezkari guztiak Oinarin taldeko bi dantzarik lagunduta plazara irtengo dira elkarri lotuta zapi banarekin.

Lehenik eta behin, banaka egingo dute dantza. Horren ostean, Oinarineko bi dantzarik desafio antzeko bat egingo dute; eta bi emakume aterako dituzte jende artetik beraiei dantza eskaintzeko.

Horren ostean, zinegotzi guztiak bikote edo lagun bana dantzara aterako dute eta guztiak biribilean fandangoa eta arin-arina dantzatuko dituzte. Behin hori eginda, udal ordezkari guztiak udaletxera sartuko dira.

Ekitaldi horretan esku hartu ahal izateko, asteotan Oinarin dantza taldekoak udal ordezkariei dantza erakusten dabiltza.




Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA

Tel.: + 34 943 78 60 09

Faxa: + 34 943 78 70 34

<http://www.matz-erreka.com>



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

•
Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoak

•
Oinezkoentzako ate automatikoak



MONDRAGON
COMPONENTES

IKUSKIZUNA

Monoziklo bitxiak eta umorea batuko ditu Karoli artistak

Europa osoan ibilia da azken 20 urteotan gurpil bakarreko ibilgailuekin ikuskizunak egiten

IKER BARANDIARAN

Europa osoan monozikloetan ibiltzen eskarmen gehien daukan Karoli artistak umerezko ikuskizuna egingo du egubakoitzean, hilaren 18an, 19:00etan, herriko plazan. Kataluniatik dator Karoli.

Une zein helduentako ikuskizun berezia egingo dute egubakoitzean, hilaren 18an, 19:00etan, herriko plazan: Katalunia-ko Karoli-k *The Wheel man* ekarriko du Antzuolara.

Karoli Ramon Muñoz da, kale antzerkia egiten eta tamaina desberdineta-ko bizikleta, txirrindua eta gurpilekin eskarmen handia daukan artista.

MONOZIKLOEKIN MAITEMINDU
Oso gaztetxotan zaletu zen bizikletekin, eta berehala konturatu zen bi gurpilekin baino gehiago bakarrarekin probatu gura zuela.

Monozikloan ibiltzen ondo ikasi eta perfektiona-

tzeko, Japoniara eta Txinara jo zuen hainbat kongresutara. Are gehiago, Muñoz gurpil bakarreko ibilgailuak egiten hasi zen bere kabuz.

BONI&CAROLI 18 URTEZ

Karoli izenarekin bakarrik aritu aurretik, baina, 18 urtez Boni&Caroli taldean aritu zen, Europa osoan monozikloekin kale ikuskizunak egiten. Blues Brothers taldearen ukitu handia zeukan taldeak.

2003an, baina, bakarka lan egiteari ekin zion. Hala, hainbat ibilgailu erabiltzen ditu umerezko ikuskizunetan: motordun gurpila, hamar, hogeい edo hogeitamar zentimetroko tamaina daukaten monozikloak, bere barruan sartzen den gurpil erraldoia eta beste batzuk. Hain zuzen ere, uneano monoziklo eta ibilgailu berriak egiten dabil Kataluniako artista.

Ramon Muñoz Karoli-k esan digu adin guztietarako ikuskizuna dela Antzuolan ikusi ahal izango dena, eta umoreak ezinbesteko garrantzia izango duela ekitaldian.



Karoli artistak zur eta lur utziko ditu herriko plazara hurbilduko direnak.

Umeendako ekitaldi ugari egingo dituzte

Ume eta gaztetxoek ez dute aspertzeko aukerarik izango jaietan. Hain zuzen ere, egunero egingo dituzte eurendako ekitaldiak.

Hala, egunean umeendako jolasak izango dira 11:00etan, eta horren ostean, udalekuetatik abiarazita umeen karaokea izango da Herriko plazan, 12:30ean.

Egubakoitzean, berriz, umeendako jolas parkea jarriko dute Herriko plazan: balanbike zirkuitoa, monoziklo txikiak, puzgarriak, tailerrak... 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 18:30era egongo da zabalik. Bukatzeko, zapatuan Kiki eta Koko izango dira 12:00etan.



Zabalo Iturgintza S.L.

Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Aire egokitua
- Enpresen mantendimendua
- Lurrun instalazioak

- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBAren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel. / Faxa: 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren 1. Antzuola. Tel. / Faxa: 943 76 64 73



TXOMIN GARAJEA

Mekanika orokorra

IAT/ITVrako prestaketa

AD

Tailer profesionala

ZORIONAK GUZTIOI!

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tel.: 943 78 70 77

KONTZERTUAK

Rockaz gozatzeko aukera izango da Zurrategin

Egubakoitzean eta zapatuan hiruna talde izango dira txosna gunean

IKER BARANDIARAN

Musika estilo askotako taldeak eramango dituzte txosnetara: heavya, punk-rocka, Oi!-a, rock psikodeliko... Gustu guztierrako taldeak izango dira entzungai.

Egubakoitzean eta zapatuan, bietan, egingo dituzte rock kontzertuak Zurrategin. Egubakoitzean Klakson, Niet Rocken eta Malo taldeak arituko dira 23:00etatik hasita. Zapatuan, berriz, Sospechosos, Never Surrender eta Ipar Haizea taldeek izango dute

musika zaleak entretenitzeko ardura. Zapatukoia ere 23:00etan izango da.

KLAKSON, HERRIAN

Egubakoitzeko kontzertua musika estiloz oso zabala izango da: Antzuolako eta Zumarragako partaideak dituen Klakson taldeak Antzuolan joko du aspaldiko partez. Estilo oso personala dauka taldeak, euskarazko rocka egiten du eta tarteka The Doorsen giroetatik hurbil dago.

Horiekin, Gasteizko Niet Rocken eta Elorrioko Malo taldeak ere igoko dira agertokira. Niet Rocken taldeak punk-rock melodikoa egiten du, The Clashen antzekotasunak dituena.



Antzuolako eta Zumarragako kideak dituen Klakson taldea Danbakarako sailkatu zen (argazkian). Orain abeslari berria dute.

GOIENKARIA

Zapaturako, berriz, doinu gogorragoak aukeratu dituzte antolatzaleek: Oñatiako Sospechosos taldeak punk-rocka egiten du gaztelaniaz eta euskaraz

abestutakoa, eta Naiara da abeslaria. Aspaldian emanaldi asko egiten dabil talde oñatiarra.

Horiekin batera, Arrasateko Never Surrender

Estilo askotako taldeak batuko dira Zurrategiko gunean

Antzuola eta Zumarragako kideak dituen Klakson taldea egubakoitzean


taldeak ere kontzertua egingo du. Never Surrender taldea ezaguna da punk eta Oi! musika zaleen artean. Hain zuzen ere, Deskontrolen ostean beraiek dira zuzenean gehien jozen dutenak.

2002an sortutako talde horrek iaz Aurrerapenaren izenean diskoa kaleratu zuen Puzkarra diskoetxarekin. Euskal Herrian ezezik Espanian ere jarraitzaileak ditu taldeak. Hitz kritikoak idazten dituzte, pentsatzen behartzen

dutak, eta euskaraz eta ingelesez abesten dute.

ZARAUZKO HEAVY

Azkeneko taldea erabat desberdina izango da: Zarauzko Ipar Haizea taldeak heavya egiten du. 2004an sortu zuten taldea eta dagoeneko metal estiloko hainbat bildumatan esku hartu dute. Are gehiago, 2005ean Ipar haizea ize-neko lana kaleratu zuten. Euskaraz abesten dute, eta gero eta izen handiagoa hartu dute.



DTM
Fisioterapia Zentroa

Diego Tena
Tel.: 607 95 93 34

diegotenamartin@yahoo.es
Olaran Etxea 3, M-9
20577 Antzuola

- Ondo pasau jaixak!
- Fisioterapia
 - Masajeak
 - Etxez etxeeko tratamenduak

ILAIA
Ile apaindegia • Estetika
JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIO!!

Kalegoi 20 beheha ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER

KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN
ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO
IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
 - PNEUMATIKOAK
 - HIDRAULIKOAK
 - MEKANIKOAK
 - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL.: 943 78 60 00
FAXA: 943 76 60 08 - 943 78 70 95
E-MAILA: goizper@goizper.com
Webgunea: www.goizper.com

ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA

943 766407 616 277999

Antzuola

> TXAPELKETA
**Arizmendiren eta
Bordelen arteko
partidua dago bihar**

Arizmendi ikastolako guraso, ikasle ohi eta langileen artean osatutako taldeak Bordelko gurasoen aurkako partidua jokatuko du bihar (10:00) Ibarra futbol zelaian. Ondoren, bazkaria izango dute Almenen eta arratsaldea trikitilariek girotuko diente.

Arizmendiko ikasleak maitzean izan ziren Bordelen futbol txapelketa jokatzen, eta orain, aste bukaera pasatzera datozen hango ordezkarriak. Bigarren aldiz antolatu dute elkartrukea, eta 39 lagun etorriko dira.

> JAIAK
**San Kristobal jaiak
ospatuko dituzte
Larrino auzoan**

Atzo, uztailak 10, izan zen San Kristobal eguna eta Larrinoko auzotarrek gogoan izan zuten. Meza eta mokadutxoa izan zituzten, baina ospakizunak aste bukaeran jarraituko du. Hala, afaria egingo dute gaur auzotarrek San Kristobal gastronomia elkartean.

Bihar, elkartekoek eta auzotarrek zaindariaren eguna ospatuko dute: jolasak eta puzgarriak izango dituzte umeek (17:30) lehenengo; txokolatea, gero (18:30); eta bukatzeko, buruhandiak (19:00). Bazkideek, gainera, afaria izango dute.

> IKASTAROA
**Eskujoko ikastaroa
dute gazteek
eguaztenean hasita**

Eskujoko ikastaroa antolatu du Gazteria Sailak gaztetxoa -13 urtetik gora-. Arkupe kultura etxearen egingo dute, hilaren 16an, 17an eta 21ean (18:00-20:00).

Izena aurrez eman behar dute interesatuek Arkupeko harreran, 3 euro ordainduta, eta azken eguna martitzena da. Ikastaroa egiteko gutxinez zortzi laguneko taldea eskatzen dute antolatzaleek.

**((112))
SOS DEIAK**

KIROLAK > ARETXABAleta KIROL ELKARTEA

Igor Arenatza, zuzendaritzan, eta Igor Gordobil, entrenatzaile

Preferenteko eta lehenengo erregionaleko taldeen ardura izango du Arenatzak

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Joan zen egubakoitzean egin zuen batzar orokorra Aretxabaleta Kirol Elkarteak, eta 100 bat bazkide elkartu ziren Arkupe kultura etxeen. 2008-2009 denboraldia ren aurkezpena egin zien zuzendaritzan batzordeak, eta hainbat nobedade iragarri zizkien.

dutelako. Bestalde, pilotaren kasuan, mankomunitateak proposatutako proiektu bat dago abiatzekotan: pilota eskolak sortzea. Kirol elkartea barruan dauden kirol horien bien eta karatearen eta txirrindularitzaren helburuak dira mantentzea eta poliki-poliki aurrera egitea.

Bukatzeko, *Oso-osoko jokalaria* sariak banatu zituen UDAk.

PREFERENTEA ETA ERREGIONALA

Orain arte preferenteko entrenatzailea izan den Igor Arenatza aretxabaletarra zuzendaritzan batzordean egongo da, eta preferenteko eta lehenengo erregionaleko taldeen ardura izango du. Preferenteko entrenatzailea, ostera, Igor Gordobil izango da; azken denboraldian Mondrako entrenatzailea izan dena, baina aurretik Aretxabaletan ere ibilitakoa. Jokalarien artean hainbat aldaketa egongo dira: taldetik bakarrak alde egingo du, Argider Aranak, eta hiru edo lau etorriko dira, baina oraindik zehaztu barik dituzte izenak.

Aurreko denboraldian bigarren erregionalean jokatu duen taldea lehenengo erregionalean ibiliko da orain, igoera lortu ostean. Entrenatzaile lanak Imanol Bolinagak beteko ditu. UDAko presidente Jokin Antxiaren esanetan, preferentearendako oso ona da lehenengo erregionalean taldea izatea: "Maila handiko taldeak elkartuko dira: Bergara, Antzuola, Urola, Eibartarrak, Ilintxa, Orioko... eta oso lehiakorrak dira guztiak".

Irailean hasiko duten futbol denboraldiari dagokionez, talde bakoitzak bere helburuak ditu. Preferentearen kasuan, taldea indartu gura dute: "Apur bat indartuz gero, goiko postuetan ibiliko da, eta zorte apur batekin, mailaz igotzeko aukera izan dezake", dio Antxiak.

ARETO FUTBOLA, KANTXA BARIK
Areto futbolari dagokionez, jokatzeko kantxa barik geratuko dira, irailean kirol etxea bota egingo

'Oso-osoko jokalaria' sariak

Preferentea:

Haritz Igartua

Bigarren erregionala:

Mikel Ibabe

Ohorezko gazteak:

Jose Mari Galante

1. mailako gazteak:

Igor Oyanguren

Euskal Ligako kadeteak:

Mikel Zubizarreta

1. mailako kadeteak:

Joel Berenguer

Ohorezko infantilak:

Dabid Enekotegi

Infantil txikiak:

Xabi Zugasti

Kimuak:

Dabid Martin

Areto futbola:

Iker del Teso

Eskola pilota:

Odei Izquierdo

Pilota federatua:

Unai Urrutia

San Ferminekin prozesioa eta entzierroa

San Fermin jaiak telebistari begira bizi beharrean, ospakizuna bertan antolatzea erabaki dute Pausoka haur eskolako umeek. Hala, lehenengo, prozesioa egin zuten santuarekin astelehenean, San Fermin eguna, eta ondoren entzierroa. Goizero ibili da Pausokako zezena neskamutikoen atzetik, eta astelehenean esango die agur *Gaixoa ni* abestuta.



PAUSOKA

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABAleta

Tel. 943 77 00 33/79 42 56



Mobiliario
ARENaza

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABAleta

Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21

garbitu@euskalnet.net

LEHIAKETA > ARGAZKILARITZA

Carlos Romerok lehen saria Corpus probako argazki lehiaketan

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak antolatutako lehiaketara 38 argazki aurkeztu zituzten

Bigarren saria Oñatiko Jokin Astigarragak eroan du, nesken probako irudi batekin

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Corpus egunaren bezperannazioarteko lasterketa jokatzen da, eta horren inguru Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurten. Bada, horren sariak banatu zituen eguztenean. Ekitaldian parte hartu zuten Andoni Gartzia Kirol zinegotziak eta Antxintxiketan taldeko kide Jesus Arregik eta Asier Osinagak.

Lehiaketara aurkeztu ziren lanen artean onena Carlos Romero ondarrutarrak egindako *Sufriimiento* izeneko argazkia izan zen, eta lehen sariko garaikurra eta 300 euroak jaso zituen. Bigarren saria Jokin Astigarraga oñatiarrarendako izan zen, nesken probako argazki bati esker. 200 euro eta garaikurra eroan zituen. Eguzteneko ekitaldian egon ez baten ere, hirugarren sariari zegozkion garaikurra eta 100 euroak Iñaki Barace donostiarra rendako izan ziren. Iñaki Bara-


ceren argazkian lasterkariak unibertsitate aurretik pasatzen agertzen dira. Gainera, Carlos Romerok egindako beste argazki batek epaimaharen aipamena jaso zuen, eta finalista izan zen. Guztira, hamar argazkilariak egindako 38 argazki aurkeztu zituzten lehiaketara.

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteo kideek osatu zuten epaimahaia. "Gustura gaude lehiaketak izan duen erantzunarekin", esan ziguten antolatzaleek, "antolatu dugun azken lehiaketako batera bi lan bakarrik aurkeztu ziren-eta".

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak lehiaketa deitu zuenean baldintzeten zehazten zen moduan, lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Antxintxiketan elkartearren esku geratuko dira. "Lehiaketa honekin, gure artxiboa handitu dugu, eta hurrengo urteko lasterketako kartelak eta publizitatea egiteko erabili ahalko ditugu argazkiok", esan zuten sari banaketa ekitaldian Jesus Arregik eta Asier Osinagak. Hori zen argazki lehiaketa antolatzeko helburuetako bat: "Aurreko lasterketetako hainbat argazki ditugu. Baina antolatzaile lanetan eta argazkilari moduan ibiltzea ez da erraza guretako. Hortaz, ibilbideko puntu batzuetako argazkiriek ez genuen. Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak antolatutako lehiaketarekin 38 gehiago lortu ditugu. Argazki gehienak profesionalak dira".

ERAKUSKETA IRAILEAN

Lehiaketako baldintzeten zehazten zen beste puntuatoko bat era-kusketarenaren zen. Alegia, lehiaketara aurkezten ziren lan guztiekin erakusketa egitea. Antxintxiketan elkartearak ez ditu erakusketako egunak zehaztu, baina seguruenik irail hasieran egingo dute. "Argazki guztiak Izarraitz tabernan jarriko ditugu. Hamabost bat egunez ikusgai egongo dira, baina oraindik ez dugu zehaztu noiz. Badakigu taberna margotu egin behar dutel; hortaz, oporren ondoren jarriko ditugu argazkiak".



Sufriimiento izeneko argazkiak irabazi du lehiaketa.

CARLOS ROMERO



Argazkian, Jesus Arregi, Andoni Gartzia, Asier Osinaga, Carlos Romero eta Jokin Astigarraga saritutako argazkiekin.

M.B.

OSPAKIZUNAK > ARRANO ELKARTEA

Urteurreneko bazkarirako txartelak salgai

Arrano elkartearen 25. urteurreneko bazkaria uztailaren 19an egingo dute, eta txartelak astelehena baino lehen erosi behar dira

M.B. > OÑATI
Arrano elkartearak 25 urte beteko ditu uztailaren 21ean. Hain zuzen, 1983. urtean sortu zuen herritar talde batek. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dituz-

te datozen hilabeteetan. Dena den, uztailaren 19an egun handia ospatuko dute, besteak beste, bazkaria egingo dute-eta. Hain zuzen ere, 14:30ean egingo dute Arrano elkartearen aurrealdean; baina, eguraldi txarra egiten badu, plazako azokan egingo dute. Horren harira, salgai daude dagoeneko bazkarirako txartelak: elkartean bertan eros daitezke, 943 78 29 82 telefonora deitzu edo gorgomen-disl@euskalnet.net helbidera idatziz. Txartelak erosteko azken eguna astelehena da. Bazkariaren aurreko orduak girotzeko, 12:00etan herri trikipoteoa egin-

go dute Arrano tabernatik hasi. Bazkaria bukatu ondoren, ber-solari eta trikitilarien saioak egongo dira. Bestalde, elkartearen 25. urteurrena uztailaren 21ean beteko denez, egun horretan luncha egingo dute Arranon.

BOLUNTARIOEI ESKER

Gainera, beste hainbat ekitaldi egingo dituzte datozen asteetan. Dagoeneko uzaileko egubakoi-zetan kontzertuak egiten dabil-za elkartean, eta hitzaldiak eta beste hainbat ekitaldi antolatze-ko asmoa ere badute. Horren harira, ekintza ugari biltzen

dituen egitaraua osatu dute. "Ekitaldi guztiak lotu barik dugu oraindik, baina komunikabideen bidez zabalduko dugu informazioa", diote.

Arrano elkartea egun dagoen lokal berean sortu zen, 1983. urtean. Hamar lagunez osatutako herritar talde batek jarri zuen martxan. "Urte hauetan boluntaarioek eta herritarrek egindako lanari esker egin dugu aurrera", esan digute urteurrenako ekitaldiak antolatzen dabilen taldeko kideek. "Guztiak eskertu nahiko genituzke". Egun 170 bazkide ditu Arrano Elkartearak.

> JAIAK
'Astotrastok' hasiko ditu Trianako jaiak gaur arratsaldean

Astotrasto-ren jaitsierarekin hasiko dituzte gaur 19:00etan Trianako jaiak. Hain zuzen ere, domekara arte ospatuko dituzte. Buruhandi eta erraldoien kalejiraren ondoren, erromeria egingo du Luhartz taldeak. Biharko, besteak beste, umeendako marrazki saioa, mus txapelketa, haur jolasak eta puzgarriak eta Orotz taldearen erromeria antolatu dituzte. Domekan, meza egingo dute San Martinen, eta ondoren bertsolari gazteen saioa. Herri bazkaria eta ilinti kafea egongo da. Jaiak bukatzeko Kuluxka taldeak emanaldia egingo du.

EUSKARA > AISA IKASTAROAK

Etorkinak euskarara hurbiltzeko ekimena emaitza onak ematen dabil

Hainbat etorkin euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko eskola praktikoak egiten dabilta Leintz Udal Euskaltegian uztail osoan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Jaurlitzak sortutako unitate didaktikoa da Aisa. Hala, gura duten udal eta euskaltegiak material horretatik abiatuta etorkinei zuzendutako ikastaroak antolatzent dituzte. Eskola horien helburua da etorkinak euskarara eta Euskal Herriko hurbiltzea, euren jaioterririko kultura ere abiapuntu hartuta.

Dagoeneko Eskoriatzan Aisa izeneko pare bat ikastaro egin dituzte eta harrera oso ona izan dute. Orain, adibidez, uztailean 20 bat eguneko eskolak ematen dabilta. Aste barruan egunero lau ordu egiten dituzte euskara hurbiltzeko.



Argazkian, Mirian Txintxurreta irakaslea, Omar, eta Mayendi ikasleekin, eskolan.

IKER BARANDIARAN

Taldea Eskoriatzakoa den arren, Leintz Udal Euskaltegiak Aretxabaletan daukan eraikinan ematen dituzte eskolak, ordenegroa gehiago daudelako. Irakaslea Mirian Txintxurreta da.

Uztailerako osatu duten taldean zortzi ikasle daude. Horietatik zapta adin txikikoak dira: Tangerreko Yassin, Asiz, Bilal eta Mohammed, Ghanako Yow, Aljerriako Bohabdelah eta Saharako

Omar. Zortzigarren Kubatik etorrak Mayendi da. Mayendik 10 urte daramatz Eskoriatzan.

Txintxurreta irakaslea ahalgintzen da ikasleei Euskal Herriko ohiturak, euskal kultura eta euskara apur bat ezagutzen. Horretarako, eguneroko ekintzak eta jarduerak praktikatzen ibiltzen dira.

Ikastaroa hasi eta lau eguna dagoeneko gai dira zenbaikiak euskaraz esateko, agurtzeako edota taberna baten edariak eskatzeko. Are gehiago, kasu askotan, irakasleak esandakoa ulertzeko gai izaten dira, nahiz eta oraindik berba gutxi egiten duten.

SEMEA 'BULTZATUTA'

Mayendi kubatarrak azaldu digu Julen semeak askotan euskaraz egiten diola, eta horren aurrean erabaki zuela ikastaroetara joatea. "Asko ikasten nabil, baina hitzak ahoskatzen zaitasunak ditut; z, adibidez. Etxean semea ibiltzen da niri zuentzen".

Omarrek ere euskara ikastea erabaki zuen: "Hemen bizi behar badut, ikasi behar dut. Hitzak luzeegiak dira, baina ahaleginzen nabil eta gustuko dut".

Oso gustura eta motibatuta daude, eta bai Mayendiren eta bai Omaren asmoa da uda ostean euskara ikasten jarraitzea.

IKUSKIZUNA > 'ERREKAN GORA'

Teatrino dei Piedi, hezur-haragizko txotxongiloak

Veronica Gonzalez artistak ospe handia hartu du hankekin txotxongiloak manipulatzen

I.B. > ESKORIATZA
Bihar, zapatua, Argentinako Teatrino dei Piedi taldeak *Habia una vez... dos pies* ikuskizuna egingo du Gernikako plazan 23:00etan. Hala ere, Udalak jakinarazi du eguraldi txarra egiten badu kirolegian egingo dutela. Ikuskizun hori *Errekan Gora* jaialdiaren barruan kokatu beharra dago. Udalak antolatu du jaialdia, eta helburua da uztaleko zapatu guztiak ikuskizunak kalean doan eskaiztea.

TXATARERRIA KEATON, ATZERATUTA
Zoritzarrez, aurreko astean bertan behera utzi behar izan zuten Txatarerra Keaton taldeak egin beharreko ikuskizuna, eguraldiaren erruz. Hala, Udaleko Kultura Saileko arduradunek jakinarazi digute taldearekin harre-

manetan daudela uztaleko besete egun baten zinema eta musika uztartzen dituen ikuskizuna egin dezaten.

Bihar, zapatua, berriz, eguraldiak ezin izango du Teatrino dei Piediren ikuskizuna zapuztu; hala balitz, kirolegia egokituko dute-eta.

Teatrino dei Piedi izenaren atzean Argentinako Veronica Gonzalez dago. Gonzalez 13 urte-rekin hasi zen Buenos Airesko antzerki tailer independente baten antzezlanak egiten, eta 15 urterekin, ordaindutako lehen lana egin zuen Ariel Bufanok egokitutako *La bella y la bestia*. Une hartan, Gonzalezek erabaki zuen aktore izan gura zuela. Hala, Buenos Airesko Arte Dramatikoko Eskolan ikasi zuen, eta musikaren gaineko ikerketak



Teatrino dei Piediren edo Veronica Gonzalezen pertsonaiek hainbat istorio kontatuko dizkigute.

TEATRINO DEI PIEDI

egin zituen. Horren ostean, Italiara jo zuen eta han Laura Kibel ezagutu zuen. Kibeletek hankekin txotxongiloak egiteko teknika erakutsi zion.

NAZIORTLEAN ASKOTAN SARITUA

Teknika hori ikasi zuen etik, gorputzko hainbat atal erabiliz ikuskizunak egiten ditu, eta mundu osoan zehar bidaia eta ikuskizunak egin ditu.

Hain zuzen ere, Veronica Gonzalez artista eskarmentudunak Eskoriatzan jendaurrean egingo duen *Habia una vez... dos pies* lanak sari ugari jaso ditu honako jaialditan: Italiaiko San Giacomo Puppet Festival, Silvano D'Argento 2005 eta Silvano D'Oro 2007, Greziako Fun&Kids 2007, Valsequillo, Canarias 2007, Valenziako Tittel de Val D'Albaida 2007 eta beste batzuk.

Aipatutako ikuskizuna adin guztietako ikusleei zuzenduta dago: guziak txunditura gelditzen dira. Gonzalezek ahotsa eta mugimendua emango die fantasiako hainbat pertsonaiari, eta pertsonaia horien bitarte amets egiteko aukera izango dugu.

Fantasia, magia, poesia eta umorea dira ikuskizun berezi horren ezaugarri garrantzitsuenetako batzuk.

KULTURA > ARTE MARATOIA

Herriko artisten lanak berriz ipini nahi dituzte ikusgai

Kultura batzordeak arte maratoian parte hartu zutenei eskerrak eman eta ekimena errepikatzeko asmoa azaldu du

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Herriko artistekin arte maratoia egin zuten ekainean. Orain, Udaleko Kultura batzordeak parte-hartzailee eskerrak eman nahi ditzkie.

Batetik, eskertu nahi dituzte "euren obrak herritarrekin partekatu eta gozatzeko aukera eman diguten artistak: Koldo Lizarralde, Maritxu Mondragon, Nagore Igarza, Epifanio Perez, Estebe Olaortua, Maite Telleria, Peio Errasti, Yolanda Lizarralde, Antonio Deogracias, Susana Morcillo, Ana Peñalba, Andoni Larrañaga, Jose Mari Galeano, Andoitz Aranburu eta Samuel Cuevas".

Bestalde, lanak ikusi, komeniatu eta duten balioa eman diezenak ere eskertu nahi dituzte, eta baita ideiaren sortzaile eta suspertzaile nagusi izan den Maite Telleria ere. Hala ere, argia daukate ez direla artista guztiengana iritsi: "Obra interesgarri asko dago oraindik izkutuan". Horregatik, Kultura batzordeko-

ek aurten erakusketa jarraitzena izatea nahi dute: "Horretarako ahalegin guztiak egingo ditugu, herrian dagoen altxor artistiko osoa ikusgai ipini arte", diote. Hala, herritarrak animatu nahi dituzte batzordekidekin edo Kultura teknikariarekin harremanetan jarriz oraindik kaleratu gabe dauden lanen berri emateko.

ANTZUOLARRAK MUNDUAN

Arte kontuetarako ez ezik, Udaleak herritarren laguntza eskatu du beste asmo bat abian ipintzekeo: oporetan Antzuolatik kanpo doazenekin oporen kontakizun saioak egin nahi dituzte irailean eta urrian Olaranen.

Horretarako, oporetan kanpora bidaian joateko asmoa duten herritarrei eskatu nahi diente horren berri emateko Udaleko Kultura batzordean eta bueltan etortzen direnean oporrak gainontzeko antzuolarrei kontatzeko eta erakusteko. Horrela, oporrekin berriz gozatzeko aukera izateaz gain, beste batzuei gozazteko zein bidaietarako ideiak emateko balio dezake ekimen horrek. Oporrak kontatzeko gertu daudenek Kultura batzordekoekin ipini beharko dute harremanetan: 943 76 62 46 telefono zenbaki edo helbide elektroniko honetan: *kultura@antzuola.net*.

JAIAK > GASTRONOMIA

Marmitako lehiaketan, parte-hartze zabala

Egubakoitz eguerdian egiten zuten bertso saioa domekara pasa dute aurten; Amaia Agirrek eta Jokin Sorozabalek jardungo dute bertsoan


I.A. > ANTZUOLA

Aurtengo jaietako berrikuntzako bat da egubakoitz eguerdian egingo duten marmitako lehiaketa. Aurrez, inoiz egin izan dute gastronomia lehiaketa jaietan, eta aurten jarduera horri eutsi nahi izan diote. "Jai batzordean pentsatu genuen egubakoitz eguerdian ekin-tzaren bat ipintzea jai giroa pizteko, jende gutxi ibiltzen baita. Lehiaketaren aitzakian jendea inguratuko dela uste dugu", esan digu batzordeko kide Juanita Zabalok.

Marmitakoa aukeratu dute garaiko jateko delako, eta gerituratzen direnen artean banatuko dute, denek probatzeko aukera izan dezaten.

Eguenerako zapta taldekin eman zuten izena eta, Kultura batzordekoen esanetan, "lehen urtea izateko kopuru polita da".

Bestalde, orain arte egubakoitzean egin izan den bertso saioa domekara aldatu dute. Amaia Agirrek eta Jokin Sorozabalek jardungo dute.



Jaietan inoiz egin izan dute gastronomia lehiaketaik aurrez.

GOIENKARIA

HONTZAREN JAITSIERA

Jaietan berria da hontzaren jaitsiera ere. Aurten udaletxearen ongietorria egingo diotenak DYA-

ko kideak izango dira. Hainbeste urtean Antzuolan egonik, modu horretan omenaldi xumea egin nahi diete boluntarioei.

> OSPAKIZUNAK

Erretiratuen bazkaria Herri Eskolan izango da domekan

Domekan erretiratuek bazkaria egingo dute. Asmoa zen Torressoroa eraikinean egitea, baina urbanizazio lanak amaitu barik daudenez eta horrek arriskuak ekar ditzakeenez, erabaki dute aurreko urteetan bezala Herri Eskolan egitea. 14:00etan izango da jatordua.

> JAIAK

Mairuaren Alardeko entsegua martitzenera aldatu dute

Datorren astean martitzenean egingo dute alardeko entsegua. Hortaz, uztailaren 15ean 21:00etan elkartuko dira txistulariak, danbor joleak eta eskopetariak elkarrekin jaietarako gertatzeko. Alardea aurten atzerritu egin dute, jendearen eskariz: 18:30ean hasiko da.

Germaine de Capuccini produktuak

Laser bidezko depilazioa

Informa zaitez!

Ondo pasau jaixak!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

Ma Paz
ARGAZKIAK

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Herriko plaza 4. Tel.: 943 78 70 66 ANTZUOLA

DESKARGA
AUTOAK

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel.: 943 76 62 75

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

ALTZARTE

**ONDO PASAU
JAIXETAN!**

Kalebarren 18 • Tel.: 943 76 62 94 • Antzuola

Kalebarren
janari-denda

Goretti eta Amaiak
jai zoriontsuak
opa dizkizuete
herritar guztioi!

Kalebarren 11 ANTZUOLA Tel.: 649 66 27 91 / 675 70 13 47

JAIAK > FERIXA NAGUSIA


Udala pozik dago, jaietan herritarren parte-hartzea handia izan delako

Norbanakoen eta elkarteen laguntza eskertu du Oxel Erostarbe alkateak, baina ardura azaldu du jaiegunetan izan diren apurketen aurrean

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
"Pozik gaude, egindako deiar erantzun egin diotekoa elgetarrek", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak jaien inguruko balorazioan. "2008ko Ferixa Nagusirako genituen helburua ziren jaiak kalera ateratzea eta parte-hartzaileak izatea. Biak lortu ditugu eta pozik gaude".

Herritarren parte-hartzea nabarmendu du alkateak umeen jokoetan, eguneko mozorroetan, herri bazkarian eta herri egunean, baserritar jantzi zirelako.

ESKERRAK EMATEKO TXANDA
Eskerrak eman dizkie Erostarbek antolatutako egitaraua aurrera eramaten lagundu duten elkarte eta norbanako guztiei. "Hainbat elkartetako lagunek eta hainbat herritarrek lanean jardun dute denok jaietan ondo pasatzeko: salda, saihesquia eta



Hobetu beharrekoen artean, Oxel Erostarbe alkateak mariatxien soinua aipatu du.

JOSETXO ARANTZABAL

kafea gertatzen eta banatzen, paella banatzen, herri afaria zerbitzatzen, idi probak antolatzen, umeen jokoetan laguntzen, erretilatuei baziaria ematen, mozorroak gertatzen, zezenetarako hesiak ipintzen, feria antolatzen, txitxi-burruntzia gertatzen, bolo jokoa egiten, astoak lagatzen... Zorionak guztiei eta eskerrik asko", adierazi du alkateak.

HOBETU BEHARREKOAK

Alkatearen ustez, baina, badau-de hobetu beharrekoak. "Mariatxietan soinua ez zen ondo entzuten", esan du. "Mariatxiak entzuteko soinua ipintzeak asko balio duela kontuan hartuta, arazoa nola konpondu pentsatu beharko dugu", adierazi du.

MENDI KRITERIUMA, 20AN

Ferixa Nagusiko egitaraua beteteko, azken ekitaldi bat gelditzen da: 24. Euskadiko Mendiko txirrindulari lasterketa, hain zuzen ere. Hilaren 20an, domekan, egingo da. Zalantza askoren ondotik, ekain hasieran erabaki zuten lasterketak jarraipena izango zuela, gutxienez beste urtebetetz.

Elgetako txirrindulari elkarreko kideak guztia gertatzen ari dira 23 urtetik beherakoek eta elite mailako txirrindulariek osatuko duten tropela iristen denerako.

Herri-altzarien aurkako erasoak eta apurketak izan dira jaietan

Elgetako Udalak ardura azaldu du aspaldian herri-altzariek jasan dituzten apurketengatik. Ferixa Eguneko jaietan ere eraso bat baino gehiago gertatu dira. "Sei zakarrontzi erre dituzte, frontoiko atea apurtu dute eta kaleak garbitzeko haritu den enpresaren makina erretzen saiatu dira", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Torrealdeko auzotarrek amatatu zuten sua makinaren zepiloetan".

Ez da horrelakoen aurrean Elgetako Udalak ardura plazaratzen duen lehenengo aldia. Maiztaren 23an apurtuta aurkitu zituzten Maala parke inguruan dauden kale-argi guztiak. Kolpeka apurtu zituzten, izan ere, kristal guztiak lurrean aurkitu zituzten. Kultura etxean ere eraso bat baino gehiago izan da: su-itzalgailuen hauts guztia eraikineko eskaileratan zabaldu dute gutxienez hirutan.

Marilina
mertzeria

*Linak jai
zoriontsuak
opa dizkizue
antzuolar
guztioi!*

Herriko plaza 4
Antzuola

Aixa
frutategia

Zorionak, antzuolar guztioi!

Bustinzuri 6 behe - 20577 Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Ongi etorri

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak

Zatoz jaietan geurera!

Bustinzuri 5 Tel.: 943 76 63 49

**marlin
okindegia**

Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA

Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!

Ainara Inuntziaga > Kultura zinegotzia

"Herritarren parte-hartzea oso ona izan da eta giro polita egon da aurten jaietan"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaioko San Martin jaiak bukatu berri dira. Aurten herriko plaza beteta zegoela hasi zituzten jaiak eta astelehenean, jaien azkenengo egunean, jende mordoa elkartu zen koadrilen arteko *pikeak* ikusteko. Ainara Inuntziaga Aramaiko Kultura zinegotzia da. Lanpetuta ibili da jaietan, baina disfrutatzeko aukera ere izan du. Jaien inguruan galduen diogu.

Zer moduz joan dira jaiak?

Oso ondo. Ez dut herritarren gandik inolako kexurik jaso, eta hori oso seinale ona da. Oso gurutzua ibili naiz eta giro oso polita aurkitu dut egunero.

Herritarren parte-hartzea sustatzea zen zuen helburuetako bat. Nola erantzun dute herritarrek?

Pozik gaude herritarrek jaietan erakutsi duten jarrerarekin. Parte-hartza beste urte batzuetan baino handiagoa izan da. Asko nabaritu dugu hori. Txupinazoa ere beste urte batzuetan baino askoz jende gehiago zegoen aurten. Nik ez dakit *Ri-rau* kontu horregatik izan zen, baina, egia esan, plazan sekula baino jende gehiago zegoen. Txupinazioan, gainera, Maider Undari omenaldia egin genion eta bertso eskolako gazteek bertsoak eskaini zizkion. Uste dut horrek ere lagundu zuela. Herritarrek, beraz, oso ondo erantzun dute. Horren harira, gainera, aipamen berezi bat egin nahi nuke: eskerrak eman nahi diz-

kiet, Jai batzordean egon ez arren, jaietan dena ondo irten zedin laguntzen jardun duten guztiei. Eskerrak, benetan.

Aurten nobedadeak izan dituzue egitarauan. Nola erantzun du jendeak?

Tortilla txapelketa izan da nobedadeetako bat. Hasieran bel-durtu egin ginen, talde bakarra aurkeztu zelako. Baina, azkenean, guztira lau talde aurkeztu ziren eta dena oso ondo joan zen. Herri kirolak ere berreskuratu ditugu aurten. Berandu samar hasi ziren, baina herriko plaza jendez bete zen herri kirolak ikusteko.

Zein da, zure ustez aramaioarrei festetan gehien gustatzen zaien momentua edo ekintza?

Nik uste dut herritarrek parte-hartzen duten ekintzak direla arrakasta handien dutenak: Papargorri abesbatzaren emanaldia bariku, Txirritolinpiadak zapatau eta astelehenean koadrilen arteko *pikea*. Baina,

"Aramaioar asko urte guztia egoten da koadrilen arteko 'pikea' ikusteko zain"

"Txupinazoaan beste urte batzuetan baino askoz jende gehiago zegoen aurten"



Ainara Inuntziaga, Aramaiko Kultura zinegotzia.

J. INUNTZIAGA

beharbada, azken hau da herritarrek gustuko dutena: jende asko urte guztia egoten da zain.

Eta zuk zeuk zer duzu gustuko?

Gauza asko. Aurten, adibidez, domekan Bentahazarreko Mutiko Alaien taldea eterri zen Urretxutik eta euren emanaldian oso ondo pasatu nuen. Kantu liburuak banatu zituzten eta euskal kantuak abesten jardun genuen denok. Askotan zait kantuan egitea.

Zinegotzi moduan bigarren jaiak izan dira aurtengoak. Nola disfrutatzen dira gehiago jaiak, zinegotzi izanda ala herritar moduan?

Aurtengoa bigarren urtea den arren, niretako, lehenengoa izan balitz bezala izan da. Aurreko urtean, Udalera iritsi ginenerako, dena eginda zegoen. Aurten guk landu eta prestatu ditugu jaiak. Oso lanpetuta ibili naiz, hara eta hona, batekin eta bestearekin. Astelehen arratsaldean hasi ziren niretako benetako

jaiak, dena ondo joan zela ikusi nuen. Baina oso ondo pasatu dute jaietan.

Orain atseden hartu behar orduan...

Bai. Baina jaiak ez dira guztiz bukatu oraindik. Biharko ere hainbat ekitaldi prestatu ditugu: bertso afaria egingo dugu eta gaulean, gero, pilotu partiduak egongo dira. Beraz, bihar bukatuko dira benetan jaiak. Baina, bai, bihartik aurrera atseden pixka bat izango dugu.

Koadrilen arteko 'pikeak', jaien azken egunean

San Martin jaietako astelehena da aramaioar askorentzat egunki politena. Goizean umetxoek izaten dituzte jolasak eta arratsaldean nagusiek jarduten dute jolasean. Koadrilen arteko *pikeak* dira, duda barik, egun horretako momentu dibertigarriena. Astelehenean ere ederki asko ibili ziren Aramaiko gazte eta ez hain gazteak proba ezberdinak egiten. Argazkian ikusten duzun moduan, gerriko soka batez lotutako boligrafoa botila batean sartzea zen egin behar izan zuten probetako bat. Pepinoaren probak ere barre algarak eragin zituen.



MIKEL SAIZ

**> DEIALDIA
Elbarriei, dirulaguntzak eskatzeko aukera**

Arabako Foru Aldundiak pertsona elbarriei dirulaguntzak ematen dizkie urtero, eta baita aurten ere. Ekainaren amaieran zabaldun zuten dirulaguntzak eskatzeko epea eta astelehenean amaitzen da. Beraz, oraindik eskaera egin ez dutenek astelehena dute eskaria udaletxeen aurkeztekoei azken eguna. Dirulaguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa da pertsonak beren kabuz moldatzeko laguntza behar izatea: zaintza eta higiene pertsonalera, komunikazio rako edo joan-eterriak egiteko.

Esan bezala, uztailaren 14a izango da dirulaguntzak eskatu ahal izateko azken eguna. Interesa duenak udaletxeen gizarte laguntzailearen bulegora joan besterik ez du.

AZPIEGITURA LANAK > SANEAMENDUA ETA GASAK

Hilabetearekin batera bukatuko dituzte herriko azpiegitura lanak

Ur hodiak aldatu eta gasarenak sartzeko lanei azken ukituak egin behar dizkiete

San Inazio kalean zegoen komun publikoa bota eta pasabidea egin dute

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Aurrera doaz Gatzagako azpiegitura lanak, eta Udalak uste du hil honetan bertan bukatuko dituztela; lanik garrantzitsuenak, behintzat. Garra enpresa, ostera, laster hasiko da bigarren faseak eragiten dien herritarrei galdezka ea etxeen gasa izan gura duten. Etxebitzotan egin beharreko egokitzapen kontuak egindakoan, gasa iritsiko zaie negurako.

ARAZOAK EURIAKIN

Lanak, 291.000 euroko aurrekontuarekin, martxoan hasi zituen Arrasateko Aikia enpresak, eta sei hilabete aurreikusi bazitzen ere lanok egiteko, bukatzen dabilta. Eusebio Villar alkateak uste du lanik garrantzitsuenak uztailean bertan bukatuko dituztela. Erritmo onean egin dute aurrera, baina arazoak izan dituzte langileek egin bitartean.



Errepide albotik doan pasealekua egokitzen langileak, astelehenean.

MIRARI ALTUBE

Izan ere, aurtengo udaberria oso euritsua izan da –euri jasa zakarrekin–, eta horrek ezustekoak sortu ditu: "Bizilagun batzuek arazoak izan dituzte, ur arazoak gehienbat, eta garrantzitsuak izan dira, baina lanok egin beharrekoak direla ulertu dute, eta guztia konpondu da", argitu digu alkateak.

Udaletxe aurreko kalea zabal-duta hasi zituzten lanok, San Migel plazan, eta ondoren Gasteizera doan errepide albotik jarraitu zuten. Txabola bat bota behar izan dute hor, baina ez dela arazorik izan esan digu alkateak: "Jabearekin akordiora ailegatu ginen, eta ez da desjabetzerik egin beharrik izan".

HIRUGARRENA TXUKUNTZEN

Ur hodiak aldatu eta gasarenak sartzen ibili dira bigarren fase barruan sartutako kaleetan; hau da, Pilar kalean, frontoi inguruaren eta Erronda pasealekuaren. Gune horietako zangak egokitzen dituzte, ez zutelako euri urak jasotzeko sistemarik. Gainera, ur beltzen saneamendua oso zaha-

rra zen eta hondatuta zegoen. Eta horiek batera, gasaren hodiak sartu dituzte, Repsolek banatzten duen gasa iritsi ahal izateko etxe guztieta.

Baina hodiak aldatu baka-rrik ez, bigarren fasean sartutako kaleak txukundu egin dituzte. Hala, San Inazio kalean zegoen komun publikoa bota egin dute, eta haren ordez pasabidea egin. Kalea ez, baina karkaba izeneko pasabidea dago orain, eta errepideraino doa. Gainera, errepide inguruko pasealekua oso txukun eta dotore jartzen dabilta.

Abenduan herrira egin zuen bisitan Javier Madrazo sailburuak esan zuen hiriguneak oso garrantzitsuak direla herritarren bizi kalitatea bermatzeko, eta horregatik udalekin elkarlana bultzatzen dutela hiriguneak eraberritzeko. Jaurlaritzak dirulaguntza eman zuen lanok egiteko, 169.000 euro.

HIRUGARREN FASEA

Hirugarren faseko lanak geratzen dira orain egiteko. Etxebitzitza gutxi daude hor, baina egin beharreko lanak ez dira batere samarrak, eta izugarritzko kostua dute. Horregatik, alkateak uste du oraingoz itxaron egin beharko dutela herritar horiek.

Bestalde, eskaintza egin zien baserritarrei Repsolek gasa jartzeko, baina inork ez zuen onartu gura izan.

AISIALDIA > UDALEKUAK

Zezen jantzita hasi dituzte udalekuak

Bikuñako zalditegira (Araba) joango dira bihar neska-mutikoak gurasoekin; 46 bat ume, guztira

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Astelehenean hasi zituzten udalekuak Gatzagako ume eta gaztetxoek, eta, uztailaren 7a izanda, San Fermín eguna ospatu zuten. Zuri eta gorri koloreekin jantzi eta zezenez mozarrotu ziren gehienak; ondoren txupinazoa bota zuten eta zezenaren aurrean ibili ziren takarradan. Eguaztenean, ostera, eguraldi ona aprobaetxatu eta Gamarra igerilekuuan pasatu zuten arratsaldea. Neska-mutiko asko elkartu dira aurten udalekuetan, 30en bat.



Zezenez mozarrotu guran, udalekuetako neska-mutikoak pilotalekuaren.

MIRARI ALTUBE

ATLETISMOA > GIPUZKOAKO CHALLENGE JARDUNALDIA MOJATEGIN

Gipuzkoako atleta onenen eskutik ikuskizuna Mojategin

Zaleek Mojategiko lehenengo hitzordu nagusiarekin gozatu ahal izan zuten eguaztenean; Arrasateko atletak gustura lehiatu ziren etxearen

Kanpotik etorritako atleta, epaile eta entrenatzaileek bat egin zuten Mojategi asko gustatu zitzaiela esaterakoan

x.u. > ARRASATE
Gipuzkoako Challenge-eko laugarren jardunaldiak lurraldeko atleta onenak batu zituen eguaztenean Mojategin. Ia 200 atleta ibili ziren Mojategiko atletismo instalazioak txapelketa ofizialean estreinatzen, eta, han entzunda koaren arabera, Anoetako instalazioei inbidia handirik ez diete.



Naroa Agirre, 4,40 zentimetroko marka gainditzeke uanean. ARGAZKIAK: XABIER URTZELAI

Gusturen ibili ziren atletak, duda barik, Arrasate Atletiko Taldeko ordezkarriak izan ziren, urtetan horrenbeste kilometro egin eta gero, azkenean euren zaleen aurrean lehiatu ahal izan zirelako.

Horren harira, Mojategiko harmailak ez ziren goraino bete, ezta gutxiago ere, baina herritar kopuru polita izan zen Gipuzkoako atleta onenak bertatik bertara jarraitzen. Orain arte etxean horrelakorik izan barik, orain, atletismoa jarritzeko lan egin beharko da Arrasaten, eta baita ibarrean. Kontuan hartu behar da beste modalitate batzuek arrakasta handia dutela gurean: krosak, mendi lasterketak...

"ITXURA APARTA"

Eguaztenean Naroa Agirre izan zen zaleek gehien jarraitu zuten

atletetako bat. Agirre Olinpiar Jokoetan izango da abuztuan, eta Mojategin 4,40 metroko saltoa eginda –entrenatzalearekin batera erabaki zuen hor geratzea, saiakera gehiago ez egitea–, etorri baino lasaiago itzuli zen Donostiarra: "Orain arte ez naiz Olinpiar Jokoetan jarduteko moduko markak egiten ibili, baina orain, poliki-poliki hasi naiz marka horietara geraturazten".

Atleta olinpikoak Mojategirren gainean ere egin zuen berba: "Guk brometan *Txufi Arena* deitzen diogu Mojategiri [barre]; oso txukun geratu da dena, eta hemengo taldeak merezi zuen horrelakorik. Zelako lana egin duten Jonathanek (Perez) eta gaintzeko atletek! Instalazio ego-kirik gabe, ikusi Arrasatek zelako harrobia duen pertika jau-

zian, eta orain hobeto egin ahal izango dute lan". Hain zuzen, Naroa Agirrek Fernando Zufiria *Txufi*-ren gainean egindako bro-mak badu motiborik, Arrasaten inork ez duelako herriko atletismoaren alde horrenbesteko lanik egin. Eguaztenean ere saltsa-maltsan zebilen Zufiria, baina badi-ki errelebua gainean daukala:

"Bada garaia protagonismoa bes-te batzuek hartzeko. Hori bai, hona etorri diren atleta, epaile, entrenatzaile eta bestelakoak txundituta geratu dira bai instalazioekin, eta baita txapelketa zelan joan den ere. Une batzuetan hiru modalitate ezberdin batera egin ahal izan ditugu, eta hori ezin izaten da leku guztietan egin. Izan ere, horretarako kolaboratzaile asko behar dira, eta, zorio-nez, guk baditugu. Klubeko jendearekin batera gurasoak ere ibili dira lanean, eta txapelketako ordutegi guztiak bete ditugu".

BERO HANDIA

Eguazteneko saioan beroak era-gin zuzena izan zuen atleten jardunean. Batez ere 600 eta 800 metroko lasterketetan korritu zuten atletek igarri zuten hori, baina baita gainontzekoek ere.

Pertika jauzian Naroa Agirre izan zen protagonistako bat, baina Maialen Axpe izan zen lehe-

"Tarte batzuetan atletismoko hiru proba batera egiten ibili ziren, eta hori egiteko kolaboratzaile asko behar dira"

Fernando Zufiria > Entrenatzailea



Oihane Urtzelai, luzera jauzian.



Chen Yian, pisu jaurtiketan.



Markel Blanco 800 metroko lasterketa hasi zuten unean; azkarrena izan zen.



Jonathan Perezek hirugarren saiakeran lortu zuen 4,90 metroko marka.

nengo saiakerak egin zituena. Orain dela gutxi Lore Mar talde-kideak egindako Euskadiko erre-korra (3,31 metro) ontzeko asmo-arekin kantxaratu zen Axpe-lehenago berak zuen errekorra-, baina ezin izan zuen 3,25eko mar-ka gainditu. Horrela jarraitzen badute, baina, bi horiek marka guztiak gainditu behar dituzte.

Pertika jauziaren saioa amaitze-ko, ordura arte Axperekin entrenatzaile lanetan ibili zen Jonathan Perezzen txanda iritsi zen. Arrasatekoari kosta egin zitzzion txapelketan sartzea, eta etengabe entzun zituen Jon Karaga Lizeaga entrenatzailearen aholkua. Berotu zenean, baina, listoia gora eta gora hasi zen.

Halako batean iritsi zen Perezzen muga; ezin gainditu 4,90 metroko marka –salto horiek ber-tatik bertara ikusteak zurrara sortzen du-. Haizeak jotzen zuen edo ez etengabe zainduz, lehenengoan saiakeran kale, baita bigarrenean ere. Bazirudien eguazte-neko ez zela eguna. Hirugarren ahalgainerako astia hartu zuen Arrasatekoak, tarte bat egin zuen entrenatzailearekin berbetan, eta hark *benetan* salto egiteko eskatu zion, egin behar zuen horretan kontzentratzezko.

Orduan bai: abiada hartu, pauso bakoitzan non eman zaindu, pertika finkatu eta gora! Mojategin orain arte egindako marka onena, 4,90. Ikusleen txaloak segi-dan. Realeko atletak aurrera egi-teko asmoa zuen, 5,05 metroko marka buruan, baina entrenatzaileak jarri zion galga: "Salto egi-teko haize handia zebilen, eta gainera bi aste barru Espainiako Txapelketa daukat. Bihar entre-namendu saioa daukat, eta kon-formatzea zen zentzuzkoena".

IRABAZTEA EZ DA NAHKOA

Arrasatekoek egindako lana-rekin jarraituz, Markel Blan-cok ondo irabazi zuen 800 metroko proba. Bigarren postuan egin zuen ia saio guztia, baina azken metroetan gordeta zeukan kartu-txoa atera eta kontrarioari aurre hartuta lehenengo hel-mugarratu zen. Garaipen horren aurrean, baina, Zufi-ria zorrotza da: "Egindako denbora baino hobea egiteko gauza delako".

Chen Yang-ek ere jar-dunaldia gustura amaitu zuen: "Challenge-ean pun-tuak hartzeko neureak ez diren modalitateetan ibili naiz (600 metroko lasterke-ta eta pisu jaurtiketa), eta aurretik pentsatzen nuena baino hobeto ibili naiz. Gai-nera, etxeen".

Oihane Urtzelairendako ere berezia zen etxeen jardu-tea. Luzera jauzian neurtu zituen indarrak, baina ez berak gura bezain ondo. Bost metroko marka pertsonala du, eta hori hobetzeo tek-nika lantzen dabil aurten; emaitzak, baina, ez dira bera-halakoan etortzen. Lehan izan ziren, baita ere, Andoni Perez, Martin Davila, Remi Diosdado, Iñigo Uri-barron eta Lorenzo Avila.



Wurth taldeko Eloy Carral (ezkerrean) eta Arturo Mora (eskuinean) Antzuolako helmugan, iaz.

GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA > ANTZUOLA SARIA, XVI. IÑAKI LETE OROIGARRIA

Iaz erraz nagusitu ziren Wurth taldekoak, baina aurten ez dago talderik horren indartsu

Lehendakari

Txapelketako seigarren proba jokatuko dute domekan Antzuolan (09:30); orain arteko probetan inor ez da nabarmen gailendu

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Domekan ehun txirrindulari inguru lehiatuko dira Antzuola-ko Sarian, eta ziklistek 125 kilo-

metro izango dituzte aurretik. Iaz, Wurth taldeko Eloy Carralek eta Arturo Morak ihesaldia egin zuten Antzuolatik Deskargarako bigarren itzulian, eta geratzen ziren 60 kilometroak bakarrik egin zitzuten. Aurtengo Lehendakari Txapelketan, baina, lehian dabiltzan taldeen artean inork ez du horrelako nagusitasunik era-kutsi –joan den astean Azpiru Ugartekoak jaun eta jabe izan ziren Leintz Gatzagan, baina Euskaldun Torneoaren hori-. Hala, amateur mailan dabiltzan azken urteko ziklistek parte hartuko ez dutela jakinda, ziklista gazteek aukera handiagoak izango dituzte domekan aurrean ibiltzeko. Tartean izango dira Seguros Bilbao, Bruesa Polyclinica, Naturgas Energia eta Lizarte taldeko txirrindulariak.

Ibilbideari dagokionez, Antzuolatik Oñatiara joan-etorria birritan egin eta gero, ziklistek Deskargako maldei aurre egin-go diente (11:20). Segidan, Udana Legazpi aldetik igo, eta Oñatiitik Asentziora joango dira (12:15); Elgetara (12:18); handik Bergara, eta azkenik Antzuolara.

100 METRO SENIOR MAILAKO GIZONAK, TXANDA 1

6. Remi Diosdado 11,47

100 METRO SENIOR MAILAKO GIZONAK, TXANDA 3

6. Iñigo Uribarren 12,72

400 METRO SENIOR MAILAKO GIZONAK, TXANDA 1

6. Remi Diosdado 52,29

400 METRO SENIOR MAILAKO GIZONAK, TXANDA 2

1. Martin Davila 54,19

400 METRO, GIZONEZKOEN KADETE MAILA

4. Jian Chen 1,35,77

6. Andoni Perez 1,42,07

800 METRO, GIZONEZKOEN SENIOR MAILA

1. Markel Blanco 1,59,07

PISU JAURTIKETA, KADETE GIZONEZKOAK (4 KILO)

3. Jian Chen 9,49 metro

LUZERA JAUZIA EMAKUMEAK

8. Oihane Urtzelai 4,80 metro

UDAko jokalariak batera, 1972an lortutako txapelketa gogoratzeko

Joan den zapatuaren ospakizunetan ibili ziren erretratuko lagunak, orain dela 36 urte lortu zuten-eta UDAko futbol jokalari izandako horiek Espainiako amateur mailako txapelketa. 1971-72 denboraldian izan zen, eta orduan, uztailaren 9an jokatu zuten joaneko partidua, Aretxabaletan, Imperial de Murcia taldearen kontra (2-1). Itzulerako norgehiagoka, berriz, La Condomina futbol zelaian jokatu zuten: uztailaren 16a zen, eta Murtziak Irazpenean egin zuen berdinhetaren gola (2-2). Aretxabaletarrek harrera beroa egin zieten herrian.



Tourra kanpotik

Markel Irizar > Ziklista

Aupa, lagunok! Giroan oso gustura ibili ginan Iban Velasco eta biok Giroa barrutik izenezko blogean idazten, eta orain zutabe honetaz baliatuko naiz Tourra, kanpotik ez bada ere, zelan ikusten dudan kontatzeko.

Hasteko, lehenengo aste honek ez ditu gauzak larregi argitu, baina adi, gainean ditugu eta Pirinioak. Batetik, esan, Euskaltel-Euskadi taldekoideak topera joan direla Tourrera, ondo dakit hori, baina bistan dago gainontzeko txirrindulariak ere ze mailakoak diren. Esango nuke Cadel Evans gaintzakoak baino koska bat gorago dagoela, eta ondoren gizon indartsuz betetako zerrenda dator: Cunego, Valverde, Menchov... Eguazteneko erlojupekoak ekarri zuen lehenengo ezustea, eta hor, txirrindulari batzuek denbora askorik galdu ez zuten arren, faborito batzuen eta bes-teen artean bi minutuko aldea ere ikusi genuen: gaitza izango da tarte horri buelta ematea.

Oraingo asteburura begira, badakit Pirinioak euskal zaleekin beteko direla berriro ere. Oñatiko peñek ere, urtero moduan, pare bat autobus antolatu dituzte lasterketa bertatik bertara jarraitzeko. Horiei guztiei, esan, orain arte egin duten moduan euskal txirrindulari guztiak gogotik animatzeko –eta maldan gora larri dabiltzanei bultzadatxoа eman!–. Erakutsi Euskal Herrian zelako zalego ona dugun; izan ere, txirrindulariok kanpoan gabiltzanean asko gerturatzentz dira esatera jarraitzaile euskaldunek ziklismoaz asko dakitela, eta errespetuz jokatzen dugula. Kanpoan zabiltzanean polita da hori entzutea. Ondo pasa asteburuan, eta gozatu ziklismoaz!



GOIENKARIA

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL
Bergara / Oxitondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOEN VICTOR
Bergara / Oxitondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraikozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE
Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDIOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfonso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
ARZAK MIREN
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirolegian
Arrasate / Mendi Jauregia.
943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29
ARANTZETA JUAN MARI
Elgeta / Salvador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
ELORTONDO FLOREN
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
BEGIONDIO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
ITZIAR OPTIKA
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
ETXEERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95
SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753



> OSKORRI
Oñatiko bandarekin joko du 18an, Banda Band biran > **37**



> WI-FIA
Wi-fi instalazioak zalantzhan jartzen hasi dira hainbat herrialdetan > **43**

> JORDI GOMEZ
Oñatin bizi den gazte kataluniar honek podologo eta erizain moduan egiten du lan gurean; Barça taldearen jarraitzailea da eta udazkenean ondo bila joatea gustuko du > **42**



Danbaka Durangaldera eta Debabarrenera ere zabalduko da. Talde eta sari gehiago, baina hasierako helburu bera: musika taldeak ezagutzera ematea

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA
Hasi da atzerako kontaketa. Bi urteko itxaronaldiaren ondoren, badator Danbakaren hirugarren edizioa. Oso kritika onak jaso dituen ekimena da Danbaka. Hainbat adituk goraipatua, eta pasa diren musika talde askori benetako bultzada eman diena. Gainera, Espaloiko kontzertuetara 300-400 pertsona inguru etorri izan dira, batez beste.

Eguaztenean aurkeztu zuten lehiaketa, Elgetako Espaloia Kafe antzokiaren atarian. Aurkezpe-nean Samu Gorrotxategi Espaloiko arduraduna, Iker Barandiaran Danbakako koordinatzalea eta Maider Arregi aurtengo edizioaren aurkezlea izan ziren.

Goiena komunikazio kooperatiba elkartea eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak antolatutako lehiaketa da, eta denetariko musika estiloak zuzenean dastatzeko aukera izango da: lehen kontzertua, urriaren 17an.

MUGA GEOGRAFIKOAK HAUSTEN
Berritasunez josia dator III. Danbaka. Izena bera ere aldatu zaio lehiaketari: aurten Danbaka Musika Lehiaketa izango da, Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketa beharrean.

Izen aldaketen ikus daitekeenez, Danbakak muga geografiakoak *hautsi* egingo ditu. Hala, Debagoieneko taldeei ez ezik, oraingoan Durangaldeko eta Debabarreneko musikariei ere zuzendu zaizkie antolatzailak. Beraz, batetik, Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Elorrio, Durango, Iurreta, Ermua, Garai, Izurtza, Mañaria, Mallabia eta Zaldibar, eta, bestetik, Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko musika taldeak emango dira ezagutzera Espaloian.

Danbaka hedatzearen arrazoia honela azaldu du Iker Barandiaran Danbakaren koordinatzaleak: "Hirugarren edizio honetarako lehiaketa sendotu egin dela ikusi, eta beste pauso bat ematea erabaki dugu". Hori bai, Barandiaranek argi utzi nahi izan du Deba-



Danbakaren III. edizioa,
berritzalea eta zabalagoa

KULTURA
ET
AISIALDIA



Eguaztenean aurkeztu zuten III. Danbaka. Irudian, ezkerretik eskuara: Samu Gorrotxategi, Iker Barandiaran eta Maider Arregi.

ANER HERNANDEZ

Danbakaren III. edizioa, berritzalea eta zabalagoa

(35. orrialdetik dator) goienean jaiotako lehiaketa izanik, lehentasuna Debagoineneko taldeei emango zaiela.

EDIZIO BEREZIA

Edizio berezia izango da, ezbairik gabe. Gurean ezagutzen ez ditugun hainbat musika talde zuzeneko emanaldi baten bitartez ezagu tu ahalko du Elgetako Espaloira hurbiltzen den orok. Izan ere, hor dago Danbaka lehiaketaren berezitasuna: musika taldeak zuzenekoena bitartez neurten direla. Bestalde, Debagoinenekoak ez diren taldeentzat ere aukera paregabea da Danbaka, euren musika ezagutaz gain, gure bailarako taldeak ezagutu eta etorkizunerako harremanak sendotzeko.

TALDE GEHIAGO

Hirugarren Danbaka berezi honetan talde gehiago pasako dira Espainiko oholtzatik. Izan ere, gurean

bezala, Durangaldean eta Debabarrenean makina bat musika talde dago. Aurreko bi edizioetan baino lau talde gehiago izango dira; 24, guztira. Horietatik 14, Debagoinenekoak izango dira, eta hamar, aipatutako beste eskualdetakoak. Beraz, aurten, bost kontzertu beharrean, sei izango dira, eta gero, finala.

AUKERAKETA PROZESU BERBERA
Lehiaketan parte hartzen ia talde denek jaso beharko dute epaimahaiaren oniritzia -23 taldek, hain zuzen-. Talde bat, ordea, epaimahaiaren oniritzia jaso gabe sar daiteke txapelketan.

Aurreko bi edizioetan bezala, entzuleei nahi duten taldea bozkatzeko aukera emango die Danbakkak. Hala, *Asteleheneko Goienkaria*-ren eta www.danbaka.com helbide elektronikoaren bidez jakinaraziko dira Danbakkara aurkeztu diren taldeak, eta baita, noski, horietatik epaimahaiak sailkatu dituenak. Entzuleek, beraz, euren favoritoei mesede handia egiteko aukera paregabea dute.

Azken talde hori aukeratzeko ere, entzuleak www.danbaka.com webgunean sartu beharko du. Norberaren posta elektronikoa beharko da aukeraketa egiteko, eta posta helbide bakoitzari boto bakarra ematea utzikoa zaio.

MUSIKAN ADITUAK, EPAILE

Epaimahaien musika munduan adituak diren pertsonak osatuko dute. Bost aditu izango dira egubakoitzero Espaloian eskainikoa diren lau kontzertuak epaituko dituztenak: Itziar Iturbe, Cool Panic taldeko abeslaria; Iñaki Benjona, Arrasateko Shot grabazio estudioko arduraduna; Yul Bolinaga, Rip talde ohiaren gitarrista; Iban Arantza, Goienako Telemetikako zuzendaria; eta Iker Barandiaran, Danbakkako koordinatzailea.

GOIENAREN JARRAIPEN BEREZIA
Goiena Komunikazio Zerbitzuak izango da, nola ez, Danbakkaren berri izateko bitarteko onena. Kontzertu guztiak GOITBk grabatuko ditu -hasieran, Debagoinean ikusiko dira, baina

Euskal Herriko hainbat tokiko telebistatan ere emitituko dituzte gerora.

Gainera, prentsa idatzian ere oihartzun handia izango du Danbakkak. Egubakoitzeko kontzertuetan gainekeko informazio sakona -albiste, kronika, elkarritzeta eta erreportajeak- *Asteleheneko Goienkaria* irakurri ahalko dira. Arrasate Irratiak ere emango du Danbakkaren berri uhin bitarte FMko 107.7an. Erabateko jarraipena, hortaz.

'WWW.DANBAKA.COM'

Danbaka musika lehiaketak webgune propioa duela ez da berria. Bigarren edizioan jaio zen interneteko ataria, Goiena Komunikazio Kooperatibak hala erabakita. Gure ibarreko musika taldeen kopuru handiak eta horiek eragiten dituzten ekimen guztien berri emateko tresna moduan sortu zen. Ordutik hona, Danbaka lehiaketaren gainekeko informazio eguneratuaz aparte, hemengo musika taldeen gainekeko informazioa eta Debagoinen kanpoko baina debagoiendarrantzako interesgarriak

Egutegia eta sariak

Iraileak 19

Musika taldeek euren lanak aurkezteko azken eguna.

Iraileak 29,

Asteleheneko Goienkaria-n epaimahaiak hautatutako taldeak jakinaraziko dira (23 talde).

Urriak 3

12:00ak arte bota dezakete entzuleek geratzen den taldea.

Emanaldien hasiera, 22:30ean. Lau talde kontzertu bakoitzean.

Urriak 17

Lehen kontzertua.

Urriak 31

Bigarren kontzertua

Azaroak 14

Hirugarren kontzertua

Azaroak 28

Laugarren kontzertua

Abenduak 12

Bosgarren kontzertua

Abenduak 19

Seigarren kontzertua

Urtarrilak 16

Finala

Sariak

Danbakkako talderik onena:

Arrasateko Shot! estudioan diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak-en bitarte kaleratzea.

Debagoineneko talderik onena:

Arrasateko Shot! estudioan diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak-en bitarte kaleratzea.

Oharra: musika talde irabazleak Debagoineneko balitz, disko bakarra grabatu eta kaleratuko litzateke.

izan daitezkeen bestelako musika albisteak ere sartu izan dira. Musika lehiaketari begira, bestalde, izena ematen duten taldeak ezagutaraziko dira. Izena eman duten taldeak, ez talde sailkatuak bakarrak; danbakkaren webguneaa musika lehiaketara soilik mugatzen ez den seinale. Bada, webgunean taldeen blogetara sartu, abestiak -MP3an- entzun, argazkiak ikusi eta idatzizko informazioa konsultatu ahalko da.

OINARRI GARRANTZITSUENAK

> GUZTIENTZAKO GONBITA

Debagoineneko, Durangaldeko eta Debarreneko talde eta bakarlarri guztiek dute lehiaketan parte hartzen aukera, diskoa dutenek zein ez dutenek. Hori bai, gutxinez partaideetako batek eskualdeetako baten erroldatua egon behar du. Une honetan kontratu diskografikorik ez izatea ere ezinbestekoa da.

> ERREPIKATZEKO AUKERA

Aurreko edizioan finaletan egon ez diren sei taldeez gain, beste edozeinek berriro parte har dezake, baldin eta kantu berriak aurkezten baditu.

> EUSKARAZ, HOBETO

Goiena euskara elkartetatik jaio zela ahaztu barik, Danbakkako epaimahaiak euskaraz kantatzea hobetsiko du.

> ENTREGATU BEHARREKOA

Irailen 19rako entregatu beharko dira CDak, eta hiru kantu original izan beharko dituzte. Beraz, bertsiorik ezin da aurkeztu. CDarekin batera, taldearen argazkiak, biografia txiki bat, helbidea, telefonoa eta e-posta jakinaraziko dira. Dokumentazio osatua bidaltzea garrantzitsua da.

> NORA BIDALI

E-postaz, MP3 kantuak helbide honekara: danbaka@danbaka.com. Posta arruntez, CD baten, honako helbide honekara: Goiena Komunikazio Zerbitzuak, DANBAKA 132 posta-kutxa, 20500 Arrasate. Eta bestela, Goienaren beste edozein egoitzatarra ere eraman daitezke kantuok. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05 telefonora.



Aby-kem Aurreko edizoko irabazleek grabatu eta kaleratu zuten euren diskoa: azken guda.

GOIENKARIA

ABESBATZAK > TXAPELKETA

Ganbara abesbatza Torreviejako nazioarteko lehiaketara doa

Hilaren 25ean, Oñatiko Ganbara abesbatzako 35 kidek Torreviejako Nazioarteko Polifonia eta Habaneren Txapelketan esku hartuko dute

IKER BARANDIARAN > OÑATI

Oñatiko Ganbara abesbatzak ia guztia prest dauka hilaren 25ean Torreviejako (Alacant) Polifonia eta Habaneren Nazioarteko Txapelketan esku hartzeko.

Urte hasieran, urtarrilean, eman zuten izena Oñatiko abesbatzakoek; eta otsailean jaso zuten onartuta zeuden baiezkoak. Ordutik hona jo eta su dabilta txapelketaren eta bidaiaaren gainerako guztia ondo prestatzen.

HIRU EUSKAL ABESBATZA

Torreviejako txapelketaren 52. edizioa da aurtengoa eta nazioarteko 18 abesbatzak esku hartuko dute. Europa, Asia eta Hego Amerikako abeslariak izango dira agertoki gainean. Horien artean hiru euskaldun: oñatiarrak, Irungo talde bat eta Gernikako beste bat.

Hala, Ganbarak bete ditu Torreviejako txapelketen antolatzaileek jarritako maila eta baldintzak, eta honako kantuak abestuko dituzte jendaurrean: F. Grau Vegarscoreren *El dique del elefante*, Javier Bustoren *A tu lado* eta Ricardo Lafuente Agudoren *Torrevieja*, hirurak habanerak. Horiez gain, baina, Claudio Monteverdiren *Ecco mormorar londe* madrigala eta David Azurtzaren *Oihu hau* folklorikoa ere interpretatuko dituzte.

SARI ASKO ESKURATUTAKOAK

Hortaz, hilaren 25ean Ganbara lehiaketetara itzuliko da, aspaldian ez du-eta halakoetan izenik eman. Dena dela, kontuan izan behar da iraganean Avilesen (Asturias) bigarren gelditu zirela, Ejea de los Caballerosen (Zaragoza) eta Cocentainan (Alacant)



Oñatiko Ganbara abesbatza, entsegu batean.

GANBARA ABESBATZA

MOTIBAZIOA ETA FINANTZAZIOA

Ganbarako arduradunek jakinaz digute Torreviejan lehiatzeko ilusio handia daukatela, halako txapelketek abesbatzako kideen motibazioa pizten dutelako. "Lehiaketak pizgarriak dira gure buruari gehiago eskatzeko eta lana ahalik eta ondoen egiteko.

Halako txapelketetan berriro esku hartzeko ordua da", azaldu digute.

Are gehiago, helburua da Torreviejatik sariren bat ekartzea eta, bide batez abesbatzaren proiektuetarako finantzazio apur bat lortzea. "Diru eta mutil abeslari faltan gaude".

MUSIKA > OSKORRI

Oskorriren 35 urteotako kantategia Oñatiko Bandaren laguntzarekin Oñatiko Zubikoa kiroldegian interpretatuta

Hilaren 18an, Oñatiko Bandak eta Oskorrik bilbotarren kantategia interpretatuko dute Oñatiko Zubikoa kiroldegan, 22:30ean

I.B. > OÑATI

Oskorri taldeak erronak oso gustuko ditu eta horren erakusele da Oskorri taldearen 35. urteurrena ospatzeko Oskorri Banda Band egindako proiektua.

Hain zuzen ere, Oskorriren urteurren berezi horretan, Bilbaoko Bandarekin batera errepertorio berezia osatu eta egokitzen. Bandaren ideia zen Oskorriren 35 urteotako kantategien errepaso historikoa egitea, eta bi taldeak elkartuta hala egin zuten.

Horren emaitza izan ziren Bilbon bertan egin zituzten hiru kontzertzutik bikain eta errepikagaitz. Baina Oskorrikoak ezin geldi geratu, eta ideia horri jarrai-pena ematea erabaki zuten bestetik herri eta talde batzuekin.



Argazkian, Bilboko Oskorri talde ezaguna ibarrean egindako beste kontzertu baten.

DAVID HERRANZ

BANDEKIN LAN EGIN GURA IZATEA
Oskorrikoek argi eta garbi azaldu zuten bandekin lan egin gura dutela: "Beste musika formazio batzuk ueztez izen handiagokoak izanda ere, gure inguru naturalean banda da errotuago dagoen elkartea musikalak".

Fusio edo bateratze horren erronkarik handiena Oskorriren soinu berezia gorde eta aldi berean bandaren nortasuna errespetatzea izan da. Horretarako, hilabetetan konponketak moldatu behar izan zituzten Euskal Konpositore Elkarteko presiden-

te Hilario Extremaniaren laguntzarekin. Izan ere, lan handia izan da, baina emaitzak begi bisitan daude.

Datorren egubakoitzean, Oñatiko Bandarekin batera iku-si eta entzun ahal izango da Zubikoa kiroldegian, 22:30ean.

ARETXABAleta

Mota askotako ekitaldiak Arkupen

Antzezlana, magia ikuskizuna, film emanaldia eta irakurketa

I.B. > ARETXABAleta

Artxabaletako Arkupe kultura etxearen mota askotako ekitaldiak antolatu dituzte datozen egunetarako.

Gaur, egubakoitzta, Glu-Glu taldeak *Ezker-eskuma* antzezlana eskainiko du Zaraia aretoan, 22:00etan. Bihar, zapata, berriz, Kidam magoak 5 eta 14 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako ikuskizuna egingo du, 17:00etan, areto berean. Eta etzi, domeka, Paul Weiland-en *La boda de mi novia* filma ikusteko aukera egongo da, 21:30ean.

Bestalde, martitzenean, Karmele Igartua *Hitzak orbainetan* poema liburuan gaineko irakurketa egingo du, 19:00etan.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. 50 metro koadroko etxebizitza salgai Zabalotegi. Sukalde-jangela, hiru logela; komuna, balkoi eta sotoa. Erdi jantzia. Prezio onean. Deitu 635 72 67 11 telefonora.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai edo errentan. Bi logela, bi bainugela, egonela eta sukaldea. Arropak eskegitzeak. Igogai-luarekin. Oso eguzkitsua. 20 metro koadroko trastelekuaren. Deitu 663 38 36 93 telefono-no zenbakira.

Gasteiz. 80 metro koadroko etxebizitza Mendizorrotzan. Hiru logela eta bi komun. Gas berokuntza individuala. Hego-mendebaldea eta dena kanoalde-ka begira. Igogai-luarekin eta garaje plazarekin. Deitu 615 70 99 86 edo 605 72 14 38 telefono-no zenbakiera.

Oñati. 105 metro koadroko duplexasalgai. Prezioa adosteko. 635 71 41 39

Oñati. 80 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egonela. Garaje itxia eta garbanera. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Ferrerias kalean etxebizitza errentan. Logela bat, sukaldea, egonela eta komuna. 530 euro. 619 34 88 52.

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Zerrajera kalean. 950 euro. Deitu 646 81 03 35 zenbakira.

Arrasate. Unibertsitatetik geru-eta etxebizitza ematen da erren- tan ikasleentzat. Deitu 688 64 28 27 zenbakira.

Benidorm. Bi logelako aparta-mentua ematen da errentan. Jantzia eta aparkalekuarekin. Levante hondartzako lehenengo ilaran. 630 41 84 65

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan, oso egoera onean. Deitu 626 00 96 32 telefonora.

ETXE AGENTZIAK



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Fax: 943 76 97 97
www.inmokorrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubietza 80 m². Berritua. Ganbarekin.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazeentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garaje aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubietza 75 m². Txokarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m². Gazeentzat.
- Azkarrunte 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarekin.
- Artekal 62 m². Berritua.
- Fraiskoizuri 102 m². Bi balkoi.
- Ibargarai 106 m². Duplexa.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorentzon etxe berriak

Arrasate:

- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

Antzuola:

- Buztintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

Oñati:

- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortu.
- Lezesari. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIAK ez du argitaratz diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Conil. Apartamentua ematen da errentan. Deitu 615 75 11 47 zenbakira

Gasteiz. Basoa kalea 9ean etxe-bizitza emango nire errentan ikaslei. Hiru logela, egongela eta bainua. Deitu zenbakia hone-tera: 627 85 29 22

Jaca. Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa bi igerilekurekin (nagusia eta umeena) eta bi tenis pistarekin. Inguruan umeendako jolaslekua. Deitu 665 73 95 65 telefono-no zenbakira.

Vieux Boucau (Landak). 10-12 pertsonarendako etxe indibiduala errentan. 2008an guztiz berritua. Bost logela, bi komun, terraza, lorategia eta barba-koak. Astebe gutxienez. Hondartza eta harriz gertu. 669 05 49.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi neska gaztek etxe- txiki edo apartamentua erren- tan hartuko genuke. Deitu 659 55 60 zenbakira.

Arrasate. Bikote batek etxebizitza edo logela hartuko luke errentan. Ahal, iñanez gero erdialdean. Deitu 666 21 88 95 edo 943 77 13 10 telefono zen- bakietara.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. Deitu 608 49 89 93 telefonora.

Bergara. Bolun logela ematen da errentan, sukalderako auke- rarekin. Natalia. Deitu 670 85 86 68 zenbakira.

Bilbao. Etxea osatzeko pertsona baten bila gabilta. Sarrikoko metro geltokitik bi minutura. 630 43 26 73.

Donostia. Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko, univer- sitatetik oso gertu. Deitu 651 70 85 13 edo 665 70 00 27 telefono zenbakira.

Debagoina. Eskoriatza, Arra- sare eta Aretxabaletan etxe- txiki bat urte osorako errentan harta nuke. 635 12 87 82.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona bakarra- rentzak logela ematen da erren- tan. 619 83 68 19.

Aretxabaleta edo Arrasaten. Mutila etxea osatu edo logela alokatzen gertu. 662 08 22 03.

Arrasate. Bi pertsona behar dira errentan Kurtzebide kalean. Deitu 651 70 92 57 zenbakira.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etik aurrera 680 17 38 37 telefono zenbakira.

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan. Deitu 610 02 65 39 telefono zenbakira.

Arrasate. Etxea osatzeko bi edo hiru ikasles behar ditugu univer- sitatea ondoan. Nork bere gela eta gas naturala. Deitu 630 71 35 83 zenbakira.

Arrasate. Logela bat hartuko nuke errentan. Iñaki. Deitu 608 49 89 93 telefonora.

Bergara. Bolun logela ematen da errentan, sukalderako auke- rarekin. Natalia. Deitu 670 85 86 68 zenbakira.

Bilbao. Etxea osatzeko pertsona baten bila gabilta. Sarrikoko metro geltokitik bi minutura. 630 43 26 73.

Donostia. Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko, univer- sitatetik oso gertu. Deitu 651 70 85 13 edo 665 70 00 27 telefono zenbakira.

Debagoina. Eskoriatza, Arra- sare eta Aretxabaletan etxe- txiki bat urte osorako errentan harta nuke. 635 12 87 82.

106. ESKAERAK

203-ERRENTAN EMAN

Oñati. Garajea ematen da errentan Kurtzebide kalean. Deitu 651 70 92 57 zenbakira.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etik aurrera 680 17 38 37 telefono zenbakira.

204-ERRENTAN HARTU

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan Masterreka edo Santa Marina inguruan. Deitu 669 63 93 29 telefonora.

3/ LOKALAK

304-ERRENTAN HARTU

Lokala hartuko nuke errentan. Gehienez ere 350-400 euro. Deitu 669 17 09 51 telefono zen- bakira.

BERGARA
Ile apaindegia eta estekika zentroa eskualdatzen da, ezin atenditzagatik 609 52 38 54

4/ LANA

402. ESKAERAK

Arraxabala eta Arrasaten. Makumea umeak zaindu edo etxe-ko lanegiteko gertu. 943 77 20 58.

Arrasate. Makumea gaztea gertu nagusiak zaindu eta garbi- keta lanak egiteko, batez ere gauetan. 686 42 06 42.

Arrasate. Makumea bat edozein lanetarako gertu. 659 82 75 18.

Arrasate. Makumea esperien- tziadunak egingo luke abuz- tuan, edo jaiegun zein asteburuan, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten. 638 89 98 60.

BERGARA
Arrano tabernan zerbitzariak behar dira 943 76 02 54

Arrasate. Emakume gazte euskalduna edozein lanetarako prest. 659 55 25 60.

Bergara. Neska lanerako gertu. Adinekoak eta umeak zaintzeako edo garbi- keta lanetarako. Deitu 691 50 49 53.

Bergara. Neska lanerako gertu. Orduka. Garbiketa lanetarako edo umeak zaintzeako. 671 97 19 30.

Debagoina. Emakumea garbi- tasun lanak egiteko prest, baita pertsona nagusiak zein umeak zaintzeako ere. Udan bakarrik. 688 66 08 85.

Debagoina. Gizonzko edo- zein lan egiteko prest. Langilea. 695 60 21 36 edo 697 94 76 06.

Debagoina. Mutil gaztea zer- bitzari eta sukaldari lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeako gertu. 685 42 72 80.

Debagoina. Neska esperien- tziaduna gertu. Osoak zaindu, arrandegi, fruta denda eta abar- retan lan egiteko. Eguna edo asteburuetan. Abuztuan ere bai. 608 53 93 02.

Debagoina. Neska euskaldu- na uztalean eta abuztuan umeak zaintzeako prest. 696 10 20 62.

Oñati. Irakasle eta lehen mai- lako Psikologia ikasketak dituen neska uztalean lanerako prest. 651 70 85 13.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arkiteturako lehenengo ikas- turteko ikasle batek eskola par- ticularrak emango lituzke udan. 676 61 15 47.

Arrasate. Ingelesek eskola ematen ditut. Zortzi urtetik aurrera. Eskola laguntza ere bai. 635 73 77 21.


Ingeles komunikazioa eko- lak ematen ditut. Maila guztiek. Laguntza eskola edo azter- tak prestatzen. 15:00etatik aurrera deitu. 610 97 49 68.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Opel Astra Caravan auto sal- gal. 1997ko. 121.000 km. 1.500 euro. 605 72 14 25.

Mahai obalatua salgal. 136x92 cm, luzagariarekin. Asier. 6



Eleder Albizu eta **Jone Urtzelai** oñatiarrak bihar ezkonduko dira Arantzazun. Ondoren Zelai Zabal jatetxeen egindo dute bazkaria. Zorionak, bikote, familia eta lagunen partetik. Ondo pasa eta izan zoriontsuak!



Jon Altube oñatiarra eta **Saioa Arkonada** zegamarra bihar ezkonduko dira Dorletan. Ondoren familia eta lagunekin ospatu dute. Ondo pasa biharko eguna eta gozatu ezkon bidaian. Zorionak bikote, familia osoaren partetik.



Agustin Otamendi eta **Mila Gonzalez** oñatiarrak orain dela 25 urte ezkondu ziren, 1983ko irailaren 9an. Zilarrezko ezteiak egin dituzuen honetan, semareen partetik zorionak! Laztan handi bat eta jarraitu orain arteko bezain zoriontsu izaten. Ondo pasa eguna.



Jose Luis Agirre lasartearra eta **Mari Carmen Gonzalez** arrasatearra Musakolako San Isidro elizan ezkonduko dira bihar, zapataua. Ondoren Azpeitiko Kiruri jatetxeen egindo dute bazkaria. Ondo pasa eta zoriontsuak izan, bikote, lagunen partetik!



Xabier Errasti eta **Melina Lopez** arrasatearrak bihar, zapataua, ezkonduko dira Aramaion, Barajuengoko Andra Mari elizan. Bazkaria Baster-Alde jatetxeen egindo dute. Egun ona pasa familia eta lagunekin. Familia, lagunen eta lankideen partetik.



Dani Fernandez eta **Vanesa Tamayo** uztailaren 5ean ezkondu ziren Loiolako Santutegian. Ondoren Kirurin egin zuten ospakizuna familia eta lagunekin. Ezkon bidaian Tailandiara joango dira. Zorionak koadrilaren partetik! Primeran pasa genuen....



Arkaitz oñatiarra eta **Eider** irundarra zapatuan ezkonduko dira Hondarribian, Ama Guadalupeko elizan. Bazkaria Jaizkiel hotelean egindo dute. Zorionak, familia guztiaren partetik, eta laztan handi bat. Izan zoriontsu, bikote!



Txan eta **Ines** 1983ko ekainaren 11n ezkondu ziren Aramaioko Andra Mari elizan. Bihar, zapatua, zilarrezko ezteiak ospatu dituzte familia eta lagunekin merezi duten moduan. Zorionak, bikote, eta laztan handi bat!



Arrasateko **Iñaki Muñoz** eta Catalunyaoko **Isabel Robles** Leintz Gatzagako Dorletako santutegian ezkondu ziren uztailaren 5ean. Afaria Armeniako Etxean egin zuten. Bidaia Parisera, Disneylandiara, eta Seichelles uharteetara eginago dute. Zorionak!



Olaia Mondragon eta **Raul Gartzia** arrasatearrak bihar ezkonduko dira Bedoñako elizan. Eztei bidaian New York eta Los Angelesera joango dira. Zorionak eta ondo pasa, bikote! Familia guztiaren partetik, laztan handi bat.

ESKER ONA

Benita Baquedano Alberdi

Vicente Unzurrunzagaren alarguna

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 5ean, 91 urte zituela

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko uztailaren 11n.

10. URTEURRENA

Fernando Eraña Leceta

*Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
thesetan joan hintzana*



Jasone eta Markel.
Eskoriatzan, 2008ko uztailaren 11n.

1. URTEURRENA

Vicente Olabarria Gisasola

Aquilina Zangituren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan,
uztailaren 13an, 15:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

Tomasa Unzueta Arteaga

Juan Elkororen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan,
uztailaren 13an, 15:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

Luis Larrañaga Orozkola


'Kikio'

Lehen urteurreneko meza domekan,
uztailaren 13an, 15:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

bila-bila 7





hitz gezidunak

Kantu	* Irudiko hiriburua	Aurpegiak, begitarteak
Erabateko nekea	Semeen emazteak	Kirol-puntu
Pirinioetako menda		
Laborarien lanabes		
Ahal luke	Kataluniako hiria (Infin.) Sartu	
Taketa		
Zaldi gaztea		
Lana		
Kontso-nantea	Oldar	
Deialdi	1	
	Kui	
		Titanioa
		Kontuz!
		Potasioa (Zah.) Zakur
		Iodoa

GOIENKARIA

jeroglifoa: Labean.



sudokua

9			1				8	3
							7	1
			7	2	4			
			6	9			7	
			8				1	
			2		3	5		
				4	6	1		
6	5							
3	4			8			9	6

hieroglifo a


Non prestatu behar duzue oilaskoa?

B
LA

hizki salda

Debagoiendarren oporretako 5 leku

T	E	N	E	R	I	F	E	S
S	A	L	A	M	R	B	C	E
T	O	R	O	P	A	D	T	V
I	B	E	C	N	B	K	M	J
C	S	A	L	O	U	J	O	A
E	X	Z	E	J	N	E	P	C
N	E	M	I	A	U	I	T	A
M	O	R	T	W	T	M	L	M
K	J	E	U	T	I	M	O	P



Onatiko erdigunetik oso urrun ez dagoen arren, baseliza hau ez da herriko ezagunenetako. Zein da?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain



BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIKAK asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUDIRAKO
Golenako edozein egoitzara

BMn beti
eskaintzarik onenak!


AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA
Arrasateko Maria Berecibarrendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Apotzaga.

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENeko GOIENKARIA IV. LEHIAKETA **Bidali zure udako argazkiak**

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira: berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 23an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoineneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkezten ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate, edo Otarola Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarrian eta JPEG formatuan.

- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoak den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren 14tik aurrera ASTELEHENeko GOIENKARIAn.
- Ibabazleak nortzuk diren urriaren 6an jakingo dugu ASTELEHENeko GOIENKARIAn.
- Parte-hartzaleek gehienez 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaiaiak baloratuko ditu: argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa, bizitasuna..., besteak beste.
- Honez gain, GOIENAKO beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENeko GOIENKARIKO artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

Sariak



1. saria

Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.

- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarril: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.



- 2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako Arrasate Bidaia-en eskutik.



- 3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Babeslea:



Laguntzaileak:



ASTELEHENeko
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

Asteleheneitik egubakoitzera
09:00etik 18:00etara

Jordi Gomez Lara > Podologoa eta erizaina

"Hemengoak itxiak zaretela diote, baina ni ondo moldatzen naiz oñatiarrekin"

Oñatiartutako kataluniarra da Jordi Gomez. Neskaguna han ezagutu eta Bartzelonatik gure

artera etorri zen lanera. Mutil langiletzat eta alaitzat du bere burua. Bromak egitea gustuko

duela dio. Podologo eta erizain lanean jardun ostean, aisaldi-rako tarte bat hartzen duene-

an perretxikotara joateko edo lagun artean Barçaren partiduak ikusteko aprobetxatzen du.

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Hanka eta oin artean lanean jardun arren, guregana pauso edo hitza luzatzeko tarte harru eta lanaz, gurean egiten duen bizimoduaz eta dituen zaletasunez berba egindigu urratsez urrats Jordi Gomezek.

Zer egiten du zure moduko kataluniar batek Oñatin?

Manresan Podologia ikasten neskailela ezagutu nuen neskaguna. Asmoa zuen kontsulta zabaltze eta harekin etorri nintzen lanera. Podologiako kontsultan obretan zebiltzan bitartean erizain lanetan hasi nintzen, Aita Mennin. Orain, bietan dihardut.

Badira urte batzuk podologo lanetan diharduzula. Gustura?

Podologo lanbidea jende askorendako ezezaguna da oraindik. Adinekoak, gogorguneak, azazkaleko arazoak... dituztenak etortzen dira eta ezagutzen dute gure lana. Jende gaztea ez dago ohitura. Hala ere, gero eta gehiago dira gure zerbitzua behar duten kirolariak. Entrenamenduengatik, giharren nekearengatik... barne-zolak behar dituzte batzuek; hau da, euren kirol jarduera arintzen lagunduko dien zerbait. Adinekoek eta kiroliek salbu, zaila da jendeak ezagutzea egiten duguna.

Podologia kontsultan ez ezik Aita Mennin ere badiharduzu.

Hiru urte dira kontsulta zabaldu genuela. Hasieran, sekula ez da jakiten nola funtzionatuko duen; hortaz, erizain lanari eustea erabaki nuen. Orain, beharbada, itoago, larriago nabil bi lanekin. Aita Mennin bi asteburutik behin egiten dut lan eta badira asteak kontsultako lana eta ospitalekoa elkartzen zaizkiana, eta hori astuna da. Hala ere, ospitaleko lana gustuko dut. Lan egiten dut hartutako buruko gaitza dutenekin, istripuak, enbolaiaren bat, tronbosia... izan dutenekin. Jende gaztea ikusten dut, bere kabuz moldatu ezin dena, eta hori gogorra da.

Aisialdirako zein zaletasun duzu?

Uda ostean, irailean edo urrian, onddo bila joaten naiz. Katalunian pinutelak hartzentzu. Hona etorri artean sekula ez nuen onddorik jaso, baina hemen erakutsi zidaten eta orain oso gustura ibiltzen naiz basoan. Sukaldean ibiltzea ere gogoko dut, plater bereziak gertatzea.



ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

Herria: Bartzelona. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Podologia eta Erizaintza. **Zaletatsunak?** Barça futbol taldea jarraitzea. **Musika talde bat?** Denetarik entzuten dut, irratia batez ere. **Bidaiatzeko leku bat?** Italiara; iaz izan nintzen eta asko gustatu zitzaidan.

Parrandarako toki bat? Ez naiz oso parrandazalea, baina toki bat aukeratzekotan Bartzelonako Poble nou auzoa. **Amets bat?** Besterik gabe, ondo bizitzea. Norberari egitea gustatuko ez litzaioketan hori beszte inori egin gabe.

Kirolik egiten duzu?

Bartzelonakoa naizen aldetik, Barçazalea ere banaiz, baina kirolean ez dut jarduten, ez daukat astirik. Lehen, saskibaloian jokatzen nuen, baina orain dela hamar urte utzi nuenetik ez dut berriz kirolik egin. Orain, ikusi baino ez dut egiten. Barçak jokatzen duenean Aker tabernara joaten gara eta lagun artean ikussten dugu partidua.

Oñatin lagun giroa aurkitu duzu, beraz. Baino Bartzelona-ra sarritan joaten zara?

Orain dela pare bat asteburu joan nintzen podologia ikastaro bat egitera eta gurasoen etxeen izan nintzen. Ikastaroen aitzakian, Aste Santuko oporretan... joaten naiz, urtean hirupalau aldi. Gurasoak ere etortzen dira hona bisitan. Hango jendearen falta sumatzen dut batik bat; izan ere, leku bat berezi egiten duena bertako jendea da. Gustuko dut hura, baina batik bat hango jendea. Baino hemen ere jende jatorra aurkitu dut. Hemengo jendea itxia dela esan didate, oñatiarrak *zoratuta* daudela, baina ni ondo moldatzen naiz jende artean eta, euskaltegira ere joaten nai-zenez, saiatzen nahiz herrian ahalki eta gehien bertakotzen.

Euskara ikasten ere badiharduzu, hortaz.

Bai, baina ordu gehiago sartu beharko nituzke. Euskaltegira joaten naizenean saiatzen naiz ahalki eta gehien euskara erabilten. Etxean ere albistegiak euskaraz ikusten ditut telebistan; irratia euskaraz entzuten dut; GOIENKARIA ere irakurtzen dut... Arazoa da euskaltegian batua ikasten dugula, baina kalean oñatiarrez eta hika egiten dute, eta ulertzeko zaitasunak dauzkat. Taberman trago bat eskatzeko edo kontsultan hitzorduak emateko egiten dut ahalegintxoa.

Etorkizunerako zein asmo duzu?

Ikastaroak egiten dihardut eta Bilbora ere joaten naiz oinetako ebakuntzak nola egiten dituzten ikustera. Etorkizunerako daukan asmoa da kontsultako eskaintza zabaltzea. Esaterako, juanikote batekin etortzen bada pertsona bat eta min handia badu, barne-zola bat ipini beharrean operazioa gure kontsultan egiteko aukera izan nahi nuke. Horretarako, kirurgia gela ipini beharko genuke, baina hori hemendik hiru edo lau urterako asmoa da.



Estatistikek diote Spainian Internetera konektatzen diren hamar lagunetatik bostek wi-fi konexio bidez egiten dutela; azken bi urteotan %50 hazi da wi-fi erabiltzaileen kopurua.

XABIER URTZELAI

KOMUNIKAZIOA > WI-FIA

Wi-fi konexioari bai ala kablera itzuli, hortxe dago eztabaidea

Talde ekologista batzuk kableen itzulera eskatzen ari dira, eta geroago eta gobernu gehiago wi-fi konexioari mugak jartzen dabiltza

XABIER URTZELAI > BERGARA

"Inork ez ditu ikusten, inork ez ditu entzuten, ezta hor daudela igartzen ere. Baino hor daude, gure artean, egun osoan: ikastetxean, eraikin publikoetan, lantokietan...". Steven Spielbergen beldurrezko film baten hasiera dirudi, *War of the Worlds* filmetako sarrera-edo. Baino ez, Luis

Pablo Beauregard-ek *El País* egunkarirako idatzitako errepertajeko hasiera da, eta uhin elektromagnetikoen gainean egiten du berba. Izen ere, oraindik inork ez du frogatu antenek edo poltsikoko telefonoek emititzen dituzten erradiazioak osasunerako kaltegarriak ez direnik -kaltegarriak direnik ere ez dute frogatu-, eta orain, beste elementu bat azaldu da komunikazioaren gizarte: wi-fi konexioa (Wireless Fidelity).

Kable barik bizitzearen erosotasunak bultzatuta, datuak batetik bestera transmititzeko erreminta horrek harrera oso ona izan du; batzuendako pentsaezina da berriro ere kablera itzultzea, baina hori da, hain zuzen, talde ekologiko eta bestelako elkartea batzuek eskatzen dutena.

OSASUNARI KALTE?

El País-ko kazetariak Ecologistas en Accion taldeko Pedro Belmonteren berbak jasotzen ditu erreportajearen: "Luzera begira etor daitezkeen gaitzak ekiditeko neurriak hartu behar dira; esaterako, teknologia horrek osasunari kalte egiten ez diola frogatu arte, irakaskuntza zentroetan, liburutegietan edota bestelako eraikuntza publikoetan ez erabiliztea".

Wi-fi antenek sortzen dituzten erradiazioak "poltsikoko telefono batek sortzen dituenak baino baxuagoak dira, baina konsstanteagoak", dio Belmontek. Hala, uhin elektromagnetiko horiek "ez-ionizatzaleak" dira. Zer esan gura duen horrek? Bada, Fisika Aplikatuko Institutuko Mercedes Martinez Burdaloren

esanetan, "kalterik sortzen ez duten uhinak" direla. Erradiazio ionizatzaleak dira kaltegarriak: X eta gamma izpiak, esaterako.

IRITZI KONTRAJARRIAK

Mediku guztiak, baina, ez dato horrekin bat; izan ere, uhin horiek erritmo biologikoari eragiten dietela uste dute. "Insomnioa sor dezakete, neke kronikoa, eta baita kantzerra ere, gai-xotasun hori garatzeko erraztasunak dituzten pertsonengen".

Kontrara, baina, Europako Komisioko Teknologia Berrien Zientzia Batzordeak (SCENIHR) argitaratu berri duen txostenak zera dio argi eta garbi: "Ez dago frogariak irrati-frekuentziaren emuek kantzerra sor dezaketela pentsatzeko".

Eztabaidea, baina, oso komplexua da; izan ere, nazioarteko 14 zientzilarik egindako lanean (*Bioninitiative Report*) eskatzen dute errepasatu egin beharko litzakeela onartutako erradiazioen muga non dagoen, geroago eta azkartasun handiagoa gura dugu-eta gure konexioetan, eta gainditu egiten dira babes-mugak.

Dokumentu horretan gaineratzen dute ezin dela baiezatu wi-fi osasunerako kaltegarria denik, baina ikertzen jarraitzea komeni dela.

HARTU DITUZTE NEURRI BATZUK
Adituak, baina, bat dato gauza baten: haurrekin kontu handia izan behar dela. Oraindik ez dugu haur baten burmuinaren garapen prozesu osoa ezagutzen, "eta hobe da uhin horien esposizioa ahalik eta txikiena izatea".

Gobernu batzuk hasi dira neurriak hartzen. Azaroan erabaki zuten Parisko liburutegi eta museoetan wi-fi ez jartzea, eta Alemanian, Ingurumen Ministerioak gomendatzen du ikastetxean kablezko konexioak erabiltzea. Italian, Suitzan... antzerako neurriak hartu dituzte.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko-blog-komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aistui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-
aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/guzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesh
/garaia
/gertu
/gorkataxi

/gorla
/gurea
/gutzizeder
/hamakataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/izkutuorly
/jcracing
/lamaino-etzaberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticash
/ohiak
/ogizun
/kipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaior
/tabernaberri

/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugar tearotza
/urbeta
/urkia
/vitoria
/zaindusz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejateke.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.hautxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

berriak

> 'EUSKALDUNAK HIZKETAN'
**Teknologia berrieik
izan duten eboluzioaz
arituko dira oraingoan'**

Euskaldunak hizketan saioaren bukaerara heltzen ari gara. Hilabete hauetan guztietan, euskaldun nagusien eskutik hainbat kontutaz gehiago jakin ahal izan dugu. Datorren asteko saioan, teknologia berriez arituko dira gure nagusiak: XX. mendean teknologia berrien alorrean izan den aurrerapena ikaragarria da, eta horretaz jardungo dute. Eurek kontatuko digute horietara nola egokitzen diren.

> 'HARMAILATIK'

**Antzuolako ziklismo
saria eta Bergarako
hirunako txapelketa**

Astelehenean *Harmailatik* saioan hainbat kirol kontuzango dituzue ikusgai, aste-ro bezala. Beste batzuen artean, Xabier Urtzelai kazetari eta aurkezleak bi hitzordua ekarriko ditu oraingoan pantailara: batetik, asteburuan izango den Antzuolako ziklismo sarian gertatutakoak jaso-ko ditu; eta bestetik, Bergarako hirunako saskibaloi txapelketan gertatutakoak. Saioa 21:47an izango da.

BIDAIAK**Leku exotikoak
bisitzetako aukera,
etxetik mugitu barik**

Udako giroan erabat murgil-duta, opor proposamenak egi-ten segituko dute datorren astean irratiko lankideek. Eta joan den astean Txina bisita-tu zuten moduan, datorren astean, leku exotikoak bisita-tzen segituko dute. Oraingo honetan, Zelanda Berria bisi-tuko dute, inguru hura eder-ki asko ezagutzen duen arra-satear baten laguntzarekin. Martitzenean da hitzordua, 11:30etik 12:00ak bitartean.

**MUSIKA
Punk-hardcore
kontzerturako
sarrerak**

Asterokoari segituz, entzule-en artean opariak zozkatuko dituzte irratiko lankideek egubakoitzean. Oraingo honetan, punk-hardcore doinuak izan-go dira 3.60 aretoan hiru musika talde ezagunen eskutik: Surfin Caos, Plan B eta Captain Nemo. Uztailaren 18an izango da hori, 22:30ean. Bada, kontzertura joateko sarrerak zozkatuko dituzte irratian. Aquariumerako sarrerak ere izango dira eta Karelean musika taldearen CDa ere bai.

JAIETAKO EMANALDIAK > EGUAZTENA, 21:47

Kontzertu eta emanaldiekin osatutako saioa eguaztenean

Gure herrietako jaietan izan diren hainbat kontzertu eta emanaldi jasoko dituzte saio batean

GOIENKARIA > ARRASATE

Eguaztenean izango da hori. Bergaran egin zen Mundumira jai-tik hasi eta Aramaio edota Elgetako jaietaraino izan diren kontzertu eta emanaldiak jasoko dituzte eta saio berezia prestatuko dute.

Hainbat izan dira, eta batzuk oso bereziak, azken hilabeteotan gure ibarrean izan diren musika kontzertuak eta bestelako emanaldiak. Goiena Telebistak gure herrietako jaien jarraipena egin du zuentzat eta jarrai-pen horretan grabatutako kontzertu eta emanaldiekin saio berezia prestatuko dute.



Hainbat kontzertu izan dira Debagoienean.

GOIENKARIA

'ERREPORTAJEA' > ASTELEHENNA, 21:47

Uda pasatzera Lasturrera joan diren Saharako umeak dira protagonista

GOIENKARIA > ARRASATE

Urte asko dira Saharako haurrak Euskal Herrira uda pasatzera etortzen hasi zirenetik. Urte hauetan guztietan, euren errealtitate gordinetik kanpo, *Oporrak bakean* eta euren egunerokotasunetik desberdina den erreali-

tatea ezagutu izan dute gure artean. Azkenaldian, baina, Saharako umeak hartzen dituzten familiak geroz eta gutxiago direlako, Aretxabaletako Iesbaa eta Arrasateko Nubi elkarteeek oporrak pasatzeko beste planteamendu bat garatu dute. Hala, Saharako

ume talde batek Lasturren pasa-tuko ditu uztaila eta abuztua, Saharako errefuxiatuen kanpalukuetatik urrun, begirale saharar baten eta beste begirale euskaldun batzuen zaintzaean.

Lasturren dauden umeak per-tsonen aurkako minen ondorioz itsu, paraplegiko edo gorputzeko atalen bat anputatuta duten sahararren seme-alabak, ilobak edo bilobak dira.

Asteleheneko erreportaje, Lasturko udalekuetan nola mol-datzen diren erakutsiko du Goiena Telebistak. Horretarako auke-ra egongo da 21:47an.

telebegiEdorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika**Hil da**

Etxeko telebista hargailuak berea egin du. Azken asteotan trakets xamar zebilen (minbiziai buruz esaten den bezala? gaixoaldi luze baten ostean? izango ote). Sarritan, irudia joaten zitziona. Baina, oraingoa betirako da. Teknikoaren parterik ez dudan arren, badirudi, ez duela digitalizazioari aurre egiteko beharrezkoa zen adorea eduki eta itzali da, *per secula seculorum*.

Beldur zien berea baino tamaina handiagoa zuten, pantaila lau eta plasmakoei. Konplexuz betea zegoen, tele-aginte sofistikatu berriak ikusita. Ate joka dagoen digitalizazioak ikaratuta zenu da.

Bere pantailan ez dira dagoeneko inoiz loratuko kanal eta programa eskaintza berriak (akaso inorenenean, gauzak dauden bezala gaur egungo errepikapen hutsa izango baita nagusi). Amaitu zaio, etxeako aurrez aurre biltzeko zuen abilezia. Gainera, azken denboraldian inoiz baino gehiago, Wiaik, ordenagailuak eta udako planek makalduta zeukanen bere agintea. Bizi poza galdua zuen. Etxekoek berzikla gune batean emango diogu azken agurra.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Ilunpean saioa; musika kontuak, *Kantaka* irratsaioan; merkealdiak; Arrasteko tailagileen elkarleen erreportaje eta sexologoa eta gazte kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia, Arrasateko eta ibarreko albisteekin
Donostiaro Aquariumeko kontuak
Eguraldiaren iragarpenea (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean
Kantaka
Erreportajeak
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrrak (parte hartzeko:
ff943 25 05 05 (irratia@goiena.com,
goiena.net)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarraren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa**Egubakoitzta, 11**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ureta Iur. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Elgeta eta Aramaiko jaiak. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikuusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 12

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Ikuusmira. 11:30 Ikuusten. 12:00 Astekoak. 12:15 28 Klip. 12:30 Berbaire. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Wasemak. 14:30 Elgeta eta Aramaiko jaiak. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Teknopolis. 19:30 Kirolari. 20:00 Ureta Iur. 20:30 Ikuusmira. 21:00 Euskaldunok hizketan. 21:30 Wasemak. 22:00 Erreportaje. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 28 Klip. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 13

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Kantari. 12:00 Arte irekia. 12:30 Estetika. 13:30 Ikuusten. 14:00 Ureta Iur. 14:30 Erreportaje. 15:00 Ikuusmira. 15:30 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 28 Klip. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ureta Iur. 20:30 Erreportaje tipi tipa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Elgeta eta Aramaiko jaiak. 22:45 Erreportaje. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 14

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje-Ttipi Ttapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Wazemak. 16:15 Ikuusten. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitz bitan. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunako. 20:45 Berriak. 21:15 Har-mailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportaje. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Har-mailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 15

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Har-mailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klip. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Wazemak. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikuusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 16

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Marrazkiak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunok hizketan. 16:15 Wazemak. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Har-mailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Euskal artzainak. 20:45 Berriak. 21:15 Hitz bitan. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal artzainak. 22:15 Ureta Iur. 22:45 Berriak. 23:15 Ikuusten. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazzmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguna, 17

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Euskal artzainak. 14:15 Euskal artzainak. 14:45 Berriak. 15:15 Ikuusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ureta Iur. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Muka muka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikuusten. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazzmina. 00:15 Emisio amaiera.

www.danbaka.com

DANBAKA))))))

I I I . M U S I K A L E H I A K E T A

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldeko
bazara eta taldean zein bakarlarri gisa bazabiltza,
Danbaka Musika Lehiaketa zain daukazu.
Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta
kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak ere sari
bera eskuratuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com.

irailak **19** izena
emateko
azken
eguna

Uztailak 11-17

Antzerkia



ESKORIATZA

> Oinekin antzeziana egingo du Veronica Gonzalez aktoreak bihar

Argentinan jaio eta Italian bizi den Veronica Gonzalez aktoreak gorputzeko zenbait atal eta, bereziki, oinak erabiliko ditu *Había una vez... ¡dos pies!* umorezko antzezlaneko pertsonaiak sortzeko. Bihar izango da, Gernika plazan, 23:00etan.

Kontzertua



BERGARA

> Flamenko-jazz emanaldia egingo du JJ Band Andaluziako taldeak

Gaur, egubakoitza, JJ Band taldeak joko du Espoloian, 22:30ean. Jose Juan Martinez baxu jolearen taldea da; Radio Tarifa, El Cigala, Niña Pastori, Triana eta beste batzuekin jotakoa da. *Tangos de Lavapiés* delako emanaldia egingo du.

Ospakizuna



ARETXABAleta

> Emakumeen gaineke 'Ezker-eskuma' antzeziana egingo du Glu-glu taldeak

Loli Astorak eta Iñaki Irastortza Rosa eta Sara bizilagunena egiten dute; oso desberdinak izan arren, ezker-eskuma bizi izateak bateratu egiten ditu. Gaur, egubakoitza, izango da antzeziana, kultura etxean, 22:00etan. 10 euro da.

Antzerkia

BERGARA

> Zirka Zirkusek umeendako emanaldia egingo du

Zirka Zirkus taldeak zirkua eta antzerkia bateratzen ditu. Oraingo honetan, *Zirkutailerrak* delako emanaldia egingo du, adin guztietako ikusleendako.

Bihar, zapatua, Munibe plazan, 18:00etan.

ARETXABAleta

> Magia eta umore ikuskizuna egongo da, umeendako

Kidam magoak musikarekin egindako trikimailuak eta hitz-jokoak egingo ditu. 5 eta 14 urte artekoendako ikuskizuna da, eta 5 euro da sarrera.

Bihar, zapatua, kultura etxe Zaraia aretoan, 17:00etan.

ARRASATE

> Kale ikuskizuna egingo du Tallarinconbanana taldeak

Tallarin (Rodrigo Oyarzun txiletarra) eta *Banana* (Anabel F. González argentinarra) aktoreek *Al paloo...* delako kale antzerkia egingo dute. Bi pertsonaiak kalean dabilta, zeinek aurkituko dituen bila, jendearekin euren zoramena partekatzen.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 20:00etan.

Ikuskizunak

ARETXABAleta

> Budang mendieren gaineko diapositiba emanaldia

Yoo Ching-en *Budang, la montaña mágica* delako diapositiba emanaldia egongo da egunean, kultura etxea ireki dutela ospatzeko egitarauaren barruan.

Eguera, hilak 17, kultura etxearen, 19:30ean.

Musika

BERGARA

> Disko-jartzaleen emanaldiak egongo dira Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, DJ Dubby (KPK) disco-jartzaleak egingo du emanaldia, eta bihar, zapatua, DJ Lala-ek.

Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

Erakusketak

BERGARA

> Rikardo Azkargortaren ikasleen erakusketa

Oraingo ikasturtean Rikardo Azkargorta margolarriarekin ikasten ibili direnek euren lanak erakutsiko dituzte uztailaren 14tik 24a arte, kultura etxean.

Bisita ordutegia: astehenetik egubakoitza, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

ESKORIATZA

> Jose Aranaren inguruko erakusketa bisitatzenko parada

Jose Aranaren heriotzaren mendeurrena dela eta, haren gaineke erakusketa ikus daiteke Ibarraundi museoan. Erakusketaren gaineko liburuxkak ere banatuko dituzte.

Bisita ordutegia hauxe da: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Urria arte egongo da zabalik.

OÑATI

> Corpus prozesioko irudiak erakusketan ipini dituze

Corpusko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek. Parrokian izango dira ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan,

17:30-20:30. Bestalde, uztail eta abuztuant, turismo bulegoko bisita gidatuen barruan egongo da erakusketa.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

BERGARA

> Esther Astarloaren zeramika lanen erakusketa Aroztegin

Esther Astarloa (1975) egilearen zeramika lanen erakusketa dago Aroztegi aretoan. Hilaren 27a arte egongo da zabalik.

Arte Ederretan lizenziaduna da Esther Astarloa. Doktoretza ikastaroak baditu. Ikastaro asko egin ditu hainbat artista-rekin, Euskal Herrian eta Espanian. Hezkuntzan ere lan egin du, ikastaroak eta maisu lanak egiten. Bere lanean, abstrakziorako joera dauka, baina konnotazio organiko nabarmena dute bere lanek.

Eskulturak zeramika teknika-rekin landutakoak dira.

Bisita ordutegia: martxinetik egubakoitza, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

ARETXABAleta

> Kantauri itsasoko faunaren inguruko erakusketa

Txomin Rivera urpekari erreneriarra ateratako argazki erakusketa dago, *Kantauriko koloreak* delakoa. Kantauri itsasoko flora eta fauna ikusgarrien irudiak dira. Arkupe kultura etxean dago zabalik erakusketa hori, uztail osoan barrena.

Bisita ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

Lehiaketak

ARRASATE, BERGARA

> 'Gomendatzen dizut!' lehiaketa deitu dute Gazte Bulegoek

Gomendatzen dizut! Merezi du delako lehiaketa deitu dute Gazte Informazio Bulegoek. Oporretan ezagutako lekuenean, zerbitzuen... gaineke gomendioak eskatzen dituzte. 12-34 urte arteko edozeinek parte har dezake. Argibideetarako, jo www.aizue.com webgunera.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

ESKORIATZA

> I. San Pedro jaietako Argazki Lehiaketako epea, zabalik

Udalak lehenengo urtez antolatu du aurten San Pedro jaien gaineke argazki lehiaketa. Argazkiak honako helbidea bidali behar dira: kultura@eskoriatza.net, fitxategiaren izen gisa argazkiaren izenburua jarrita: adibidez, *kalejira.jpg*.

Honako sariak emango dituzte: argazki onenaren egileari, 150 euro; bigarren onenari, 100 euro; eta hirugarren onenari, 50 euro. Bestalde, jasotako argazki guztiak www.eskoriatza.net webgunean ipiniko dituzte.

Mugaeguna: uztailak 18.

Ospakizunak

BERGARA

> Santa Marinako jaietako lehen ospakizunak, egunotan

Gaur, egubakoitza, etxafuegoak eta kanpaihotsak egongo dira jaiak hasi direla jakinatzeko (12:00); iluntzean, zinema emanaldiak egongo dira Agorrosinen. Etzi, domeka, txistulariek kalejira egingo dute (09:00); gero, Udal Musika Bandaren kalejira (11:00) eta kontzertua (12:00) izango dira, azken hori, frontoian.

Jaiak gaur, egubakoitza, hasiko dira, eguerdian.

PROPOSAMENA



BERGARA

> San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Aldai-Egia auzoan

Honako ekintzak egingo dituzte: bihar, zapatua, Izer, Alabier eta Lutxurdio alaitu-tako dantzaldia (23:00); eta etzi, domeka, meza, autoen bedeinkapena eta erretiratuendako lurcha; aldi berean, Moises Azpiazuren dantza emanaldia eta kukainak (12:00).

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izango dira ospakizunak.

ARETXABAleta

> San Kristobalen omenezko jaiak daude Larrino auzoan

Larrinoko auzotarrek aferia egingo dute gaur. Biher, elkartekoek eta auzotarrek zaindariaren eguna ospatuko dute: jolasak eta puzgarriak izango dituzte umeek (17:30); txokolatea, gero (18:30); eta buruhandiak (19:00). Bazkide-ek, gainera, aferia izango dute.

Gaur, aferia egingo dute elkartean.

ANTZUOLA

> Elkartasun jaietako du bihar Anelkar elkartea

Elkartasun jaietako du bihar Anelkar elkartea biharko, zapatua. Aferia egingo dute, 21:30ean; segidan, guateke solidarioa, 23:00ak aldera. 70eko hamarkadako estilora janztek Eskatzen dute. Brasil, Kongo eta Senegalaren dituzten proiektuei laguntzeko antolatu dute jaietako.

Bihar, zapatua, pilotaleku, 21:30ean.

OÑATI

> Arrano elkartearren 25. urteurrena ospatuko dute

Arrano elkartea 25 urte betetzen dituela ospatzeko, hainbat ekintza antolatu dituzte datorren zapaturako, hilak 19. Besteak beste, herri bazzaria egingo dute, eta horretarako txartela erosteko azken eguna hilaren 14a da: tabernan, 943 78 29 82 telefonoa deitura edo *gorgomendis@euskalnet.net* helbidean.

Hilaren 19rako, triki-poteoa (12:00), bazzaria (14:30) eta gero, bertsosariak eta trikitiliak izango dituzte.

Bazzarikako txartelak erosteko azken eguna hilaren 14a da.

Bestelakoak

ARRASATE

> Dantza erakustaldia egongo da datorren egunean

Gazte Bulegoak eta Sexologia Zerbitzuak Udan be bai! delako aisiaaldi egitaraua gertatu dute eta, horren barruan, Maite Albeseak dantza erakustaldia egingo du datoren egunean, hilak 17.


Biteri plazan, 19:00etan.

ARETXABAleta

> Poesiak irakurriko ditu Karmele Igartuak

Hitzak orbainetan poesia liburuko hainbat pasarte irakurriko ditu Karmele Igartuak jendaurrean.

Hilaren 15ean, martitzena, kultur etxearen, 19:00etan.



Aliento **

Zuzendaria: Kim Ki-duk.

Aktorak: Chang Chen, Ja Jung-woo, Hego Korea, 2007. 84 min. 13 urtetik gorakoendako.

Kim Ki-duk zuzendaria gazteek ia etengabe filmatzen du: Primavera, verano, otoño, invierno... y primavera; Hierro 3; Samaritan girl... Urtero gutxienez film bat egiten du. Orain gure pantailan *Aliento* daukagu, eta egunkarietan agertu denez, bere hurrengo lanak Donostiako zinemaldian parte hartuko du.

Aliento-n kontatzen zai-gun istorioa nahiko berezia da: ezkondua dagoen emakume bat ez da batere zoriontsua. Denboraren eraginak eta senarra engainatzentzuak duela jakitearen tristurak heriotza-zigorraren zain kartzelan dagoen preso bat bisitatzera bultzatuko dute. Lehenengo bisitak hurrengora eramango du, eta horrela, bien artean oso harreman bitxiak eta estuak sortuko dira. Bikotearekin batera, badira beste pertsonaia batzuk: kartzelan pantaila bat esker bikotekidearen topaketak zainduko duen gizonak (pertsonaia Kim Ki-dukak egiten du eta zinemaldian alter ego-tzat har dezakegu), emakumearen senarra eta alaba, eta presoen gelan bizi diren beste presoak. Denen artean sortzen diren istorioak amodioz, zeloz eta irrikaz osatuak daude.

Aliento lan interesgarria da, batez ere, filmatuta dagoen eragiketako oso hitz gutxi egiten bada ere, soinuak garrantzi handia du: pausoak, ixten diren ateak, kaleko soinuak, e.a. Pertsonaiek elkarri begiratzen diote, eta hortik sortzen da euren arteko gerturaztea. Gauzak ez dira askorik argitzen; arrazonamendu baino gehiago, senak balio du. Alde horretatik, filmak errepikapenarekin jokatzen du: bikotearen topaketak dira istorioaren erdigunea, batetik hurrengora *crescendo* txiki bat ematen da, eta horien inguruaren beste pertsonaiak mugitzen dira. Dena den, istorioak ez dira oso indartsuak, ondo lotu barik daude. Eta azkenean emaitza interesgarria bada ere, filma-ri indar poetikoa falta zaio.

Antonio Zabala

Zinema

ARETXABAleta ITURRIGORRI

La boda de mi novia

Domeka: 21:30.

ARRASATE MONTERRON PARKEA

El último gran mago

Egubakoitza: 22:30.

BERGARA AGORROSIK

Nocturna (euskaraz)

Egubakoitza: 20:00.

EUTSI!

Egubakoitza: 22:00.

GAZTETXA

Historia de O

Eguera: 21:30.

EIBAR UNZAGA

Kung Fu panda

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Astelehenak, martitzena eta eguztiena: 19:30,

22:15.

GASTEIZ GURIDI

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

17:30, 20:00, 22:30.

EL INCIDENTE

22:30.

KUNG FU PANDA

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Antes de que el diablo sepa que has muerto

17:30, 20:00.

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián

18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

17:30, 21:30, 23:15, 00:30.

YELMO CINEPLEX GORBEIA

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián

12:15, 15:30, 17:15, 18:30,

20:15, 21:30, 23:15, 00:30.

INDIANA JONES Y EL REINO DE LA CALAVERA DE CRISTAL

12:15, 15:45, 17:00, 18:15,

19:30, 20:45, 22:00, 23:15,

00:30.

EL INCIDENTE

18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

17:30, 21:30, 23:15, 00:30.

FUNNY GAMES

18:00, 20:15, 22:30.

17:00, 19:40, 22:15.

LA NIEBLA

19:55, 22:20, 00:45.

SEXO EN NUEVA YORK

17:00, 19:40, 22:15.

GENTE DE MALA CALIDAD

17:30, 20:00, 22:30.

POSDATA: TE QUIERO

17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Oh, Jerusalén

18:00, 20:15, 22:30.

LOS CRONOCRÍMENES

20:00.

RIVALES

12:15, 15:40, 17:50.

ALGO PASA EN LAS VEGAS

12:15, 16:20, 18:25.

LA BODA DE MI NOVIA

12:15, 16:05.

KUNG FU PANDA

16:00, 16:25, 18:00, 18:30,

20:00, 20:30, 22:10, 22:30,

00:30.

SEXO EN NUEVA YORK

16:15, 19:15, 22:15, 01:00.

PASO DE TI

15:45, 18:05, 20:25, 22:40,

01:00.

ÁBACO BOULEVARD

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

16:20, 19:15, 22:10, 00:45.

EL PATITO FEJO Y YO

12:15, 15:35, 17:15.

DESFÍOS DE LA CALLE

20:00, 22:10, 00:20.

POSTDATA: TE QUIERO

12:15, 16:30, 19:00, 21:30,

00:00.

HORTON

12:15, 15:50.

DOS COLGAOS MUY FUMAOS 2

12:15, 16:35, 18:35, 20:35,

22:35, 00:35.

LA BODA DE MI NOVIA

16:10, 18:20.

EL INCREIBLE HULK

17:00, 19:20, 22:15, 00:45.

EL PATITO FEJO Y YO

16:05, 18:00.

POSDATA: TE QUIERO

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

EL INCIDENTE

16:15, 18:15, 20:15, 22:25.

GUAERDIKO SAIOAK

Eguerdiko saioak, eguba-

koitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, dome-

Telebistan identitatea gordez

SAIOA Juan Mari Herrasti
aretxabaletarra TVEko 'Identity' saioan
irten zen oraingo astelhenean

PATXARANA Herrastiren identitate
ezkutua patxaran onenaren lehiaketa
irabaztea zen; hiru bider irabazi du

BITXIAK Programan, zaletasun edo
lanbide bereziak dituen jendearen bila
dabiltza lehiakideei lana zaitzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA
Nork bere nortasuna ezkutuan
gorde nahi izaten du, askotan,
batez ere gauza bitxietan dihar-
dutenek. Hori da, hain zuzen ere,
TVEko *Identity* saioaren gakoa:
lehiakide batek 12 lagunen iden-
titatea asmatzea. Identitate horie-
tako baten atzean gordeta aretxa-
baletar bat egon zen uztailaren 7ko
saioan: Juan Mari Herrasti patxa-
ran egilea. "Saiotik udaletxera
deitu zuten esanez gauza bereziak
egiten zituen jendea behar zute-
la. Mendizale taldeak urtero anto-
latzen du patxaran lehiaketa eta
nik hiru aldiz irabazi dut. Elkarte-
ko presidenteak deitu zidan
saioaren berri emanet, eta gero
Madril diktipikatu ziren nirekin
harremanetan", kontatu digu.

Ekainaren 20an grabatu eta
uztailaren 7an eman zuten. Lehen
aldia zuen telebistan eta esperien-
tzia polita izan dela esan digu:
"Aurrez GOITBn agertu naiz
inoiz, baina horrelako saio han-
dianez, eta oso urduri egon nin-
tzen. Tratua oso ona izan da eta
jendearekin ondo moldatu naiz".

HIRUGARRENEAN ASMATU
Aretxabaletarra ikusteko auke-
ra izan dute saioaren zaleek. Mutil
batek hirugarrenean asma-
tu zuen Juan Mari Herrastiren
identitatea. Aurrez ezpata bate-
kin meloiak mozten zituena eta
alikatatzale bat bota zituzten.
Saioa jende askok ikusi zuela
esan digu eta denetarik esan dio-
tela: "Lodi ikusi nindutela, sumat-
zen zela gaztelaniaz berba egi-
terakoan, eta hori apenas berba
eginda, sekulako azala dudala...
Baina komentario gehienak one-
rako izan dira".

Esperientzia bizi aurretik ez
zuen sekula uste horrelako toki
batera joango zenik, alabari eta
emazteari baimena eskatu ziela
esan digu. Baina orain ez du baz-
tertzen beste telebista saio bate-
ra joaterik, ideiaren bat ba omen
du buruan. Gainera, esan digu
programan zaletasun edo lanbi-
de bereziak dituen jendearen bila
dabiltzala. Bien bitartean, saio-
ra eraman duen identitateari
eutsiz hurrengo lehiaketarako
patxarana gertu du jadanik.



GRABATUTA Uztailaren 7an eman zuten saioa telebistan eta grabatuta dauka, oroigarri moduan.

JASONE ZABALA

ahobero

"Petrolio oso
merkea da beste
gauza batzuekin
alderatuz gero"

Luis Fernando Lobejon >
Ekonomian doktorea

Ez dakigu zerekin alderatzen
duen petrolioaren prezioa,
baina badirudi oinez joaten
dela lanera, edo bestela depo-
situa betetzeak poltsikoa ez
dio hainbeste husten. Behar-
bada azterketa sakonagoa egi-
nez gero, deposituaren hondo-
raino helduko ginateke eta
petrolio merkea nola lortu
jakingo genuke.

iturri onetik

Mankomunitateak
gurasoendako
prebentzio aldizkaria
kaleratzeko asmoa du

Seme-alaben gaineko preben-
tzio gaiak landuko dituen
aldizkaria kaleratu nahi du
Debagoineneko Mankomuni-
tateak urtean lau aldiz. Gura-
soei zuzenduta. Orain arte
Arrasateko, Oñatiako eta Ber-
garako udalek bakoitzak
berean kaleratzen zuten. Orain,
ordea, asmoa da ibarreko
herri guztiararako bakarra
egitea. Udaletan banan-banan
aztertzen diharduten gaia da
prebentzio aldizkariarena.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goienna.net/blogak/piperraутса

Errekan gora

U rtek daramatzat Elorrioko Musikaire jaialdiaren
lagun taldean. Oso maitea dut formula: kultura
kalean eta doan. Uda giroak aprobatxatz, kalean
biltzeko ohitura zaharrari eustea, betiere kultura-
ikuskizun baten bueltan. Aurten Eskoriatzak lagunza
eskatu dio Elorriori, bide beretik abiatzeko. Eta tartean
ibiltzea egokitu zait.

Jaialdi berriari izena jartzerakoan ideia bota nuen
eta onartu egin didate. *Errekan gora* deitu da ekimena.
Hain zuzen, adierazteko dena ez dagoela itsasertzean,
hirietan; hemen ere, ibar goienean, bagaudela jende
ekimentsua, mendi artean pozik bizi dena, kultura etxe
ondoko plazan ere gozatzeko gai. Alegia, Debagoina ere
badela erdigune, eta guretzat kanpokoak daudela erdigu-
netik aparte, ez gu.

ai, ene!



**Txankletak babesteko
giltzarrapoa**

Hondartzara edo igerilekura joan
eta uretarra sartzeko arropa eta
oinetakoak modu seguruan gor-
detzeko, hona hemen irtenbidea.

<http://joquecosas.wordpress.com>



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatuz s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

